



ORIOKO TOKIKO AGENDA 21 **IRAUNKORTASUNERAKO UDAL PROZESUA**



IRAUNKORTASUNERAKO TOKIKO EKINTZA **PLANAREN MEMORIA**

2005eko abendua

AURKIBIDEA

1 AURKEZPENA	7
2. IRAUNKORTASUN DIAGNOSTIKOA EGITEA	11
3. DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA PLANERA.....	15
3.1. Helburuak.....	17
3.2. Diagnostikoaren ondorioak eta helburuen proposamena.....	18
4. TOKIKO EKINTZA PLANA	38
4.1. Ekintza Planaren egitura eta edukiak	40
4.1.1. Egitura	40
4.1.2. Ekintzen oinarrizko ezaugarriak.....	42
4.1.3. Ekintzen ezaugarri ekonomikoak eta horiek aurrera eramateko ardura	46
4.2. Orioren Iraunkortasunerako Udal Ekintza Plana.....	47
4.3. Udalez Gaindiko Ekintza Plana.....	58
5. JARRAIPEN PLANA	70
5.1. Aurkezpena	70
5.2. Iraunkortasunerako adierazle sistema	70
5.2.1. Adierazleen ezaugarri eta helburuak	70
5.2.2. Aukeraketa irizpideak	70
5.2.3. Adierazle sistemak	71
5.2.4. Proposatutako adierazle sistema.....	71
6. JARRAIPENA ETA PARTE-HARTZEA	75
7. TOKIKO AGENDA 21EN EKINTZEN KUANTIFIKAZIO EKONOMIKOA.....	77
ERANSKINAK	
1 ERANSKINA: HERRITAR PARTE HARTZE FOROEN AKTAK	79
2. ERANSKINA: HERRITARREN PARTE HARTZE FOROAREN ARAUDI EREDUA.....	108
3. ERANSKINA: ADIERAZLEAK KALKULATZEKO FITXAK.....	118

UROLA KOSTAKO TOKIKO AGENDA 21

UDALTALDE 21 UROLA KOSTA

UROLA KOSTAKO UDALTALDE 21 ESKUALDEKO BATZORDEA

PARTE HARTUTAKO UDALETXEAK

Igor Iturain Ibarguren. Aiako Alkatea
Jose Francisco Larrate Aguirre. Aizarnazabalgo Alkatea
José Ezenarro González-Etxabarri. Getariako Alkatea
Ramon Etxeberria Aldaz. Orioko Alkatea
Maite Etxaniz Balenciaga. Zarauzko Alkatea
Gorka Unanue Zabala. Zestoako Alkatea
M^a Eugenia Arrizabalaga Olaizola. Zumaiako Alkatea

UROLA KOSTAKO MANKOMUNITATEA

Javier Zarraonandia. Urola kostako Mankomunitateko Lehendakaria
Arantza Alberdi. Ingurugiro Sailaren Arduraduna.
Elixabete Zuriarrain. Udaltalde21-eko Koordinatzailea

IHOBE
Josu Sanz
Xabier González

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Aitor Lekuona

EKINTZA PLANA LANTZERA KOAN PARTE HARTU DUTEN LAGUNTZAILEAK

ARDURADUN POLITIKO ETA TEKNIKOAK

Mirari Arruabarrena, 2005eko urrirarte alkatea izandakoa

Ramon Etxeberria. 2005eko azarotik alkatea

Eneko Olariaga. Zinegotzia

Eugenio Cotado. Zinegotzia

Noemi Ostolaza. Zinegotzia

Elena Legarra. Zinegotzia

Jesus Rodriguez. Zinegotzia

Martxiel Genoba. Zinegotzia

Pilar Azurmendi. Teknikaria

Jose Carrera. Teknikaria

Mikel Izquierdo. Teknikaria

Jabier Zabaleta. Teknikaria

M Luisa Urbieto. Teknikaria

Amaia Usandizaga. Teknikaria

Idoia San Sebastian. Teknikaria

Iñaki Etxeberria (AASSetako arkitektoa)

GIZARTE ERAGILEEN ORDEZKARIAK

Leandro Azkue

Ainhoa Fernandez

Cristina Salsamendi

Zigor Saizar

Amaia Dorronsoro

Marije Gonzalez de Txabarri

Maikar Iurramendi

Iñaki Zaldua

Garbiñe Manterola

Emeterio Iribar

Enara Rabina

Imanol Manterola

Jose Luis San Sebastian

Joxe Mari Makazaga

Luis Azkue

Pello Orbaños

Santos Carretero

Ainara Peña

Alazne Goenaga

Ane Miren Fernandez

Eneko Dorronsoro

Eneritz Odriozola

Maider Lopetegi

Ricardo Uzkudun

Ruth Echeverria

UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamendua

Kote Olaizola

Aintzane Lauzirika

Landa Ingurunearen Garapenerako Departamendua

Iñaki Aizpurua

Balentin Mugarza

Jose M^a Losa

Krispin Agirre

GIPUZKOAKO URAK

Mikel Zubizarreta

URKOME

Manuel Odria

MENDIKOI

Xabier Arruti

ZARAUZKO TURISMO BULEGOA

Ana Maria Esnal

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

Javier Zarraonandia

Arantza Alberdi

Elixabete Zuriarrain

Idoia Odiozola

Xabier Urdangarin

AHOLKULARI TALDEA: ONDOAN S.COOP eta HAIZEA S.L.

Jon Zubiria. Koordinatzailea
Maidier Etxaide. Koordinatzailea
Ainhoa Zubillaga. Teknikaria
Arantza Zubizarreta. Teknikaria
Juan Mari Apaolaza. Teknikaria
Laura Moreno. Teknikaria
Leire Egaña. Teknikaria
María Heras. Teknikaria
Junkal Fernández. Teknikaria

1 AURKEZPENA

1992an Rio de Janeiron ospaturiko Lurraren Gailurraren barne onarturiko iraunkortasunerako Ekintza Programa batean du jatorria Tokiko iraunkortasunaren aldeko mugimenduak. Programa hau Tokiko Agenda 21 bezala dugu ezaguna.

1994an Europar Hiri eta Herri Iraunkorren lehen Batzarra ospatzen da Aalborgen (Danimarka). Bertan, Iraunkortasuneranzko Europar hiri eta herrien Gutuna landu zen, Aalborgeko Gutuna bezala ezagunagoa dena landu zen. Dokumentu honetan ingurumenaren babesean udalbatzen garrantzizko papera azpimarratzen da batez ere.

Garai hartan laurogei udalerrik sinatu zuten Aalborgeko Gutuna, iraunkortasunerako herri mailako prozesu partehartzailea martxan jartzeko konpromisoa hartuz. Globalki pentsatu eta herri mailan jardutean legoke gakoa ("Mundua gogoan, jardun auzoan"). Iraunkortasunaren alde herri mailan lan egiteko konpromiso hau europar herri eta hiri askok hartu du geroztik, gaur egun 2000 baino gehiago izanik Aalborgeko Gutuna sinatu eta Hiri eta Herri Iraunkorren europar kanpainari atxiki zaizkion hiri eta herriak, modu honetan berauen Tokiko Agenda 21 proiektuak martxan jarritz. Oriok Aalborg-eko gutuna 2004ko uztailaren 27an sinatu zuen.

2004an, Aalborg+10 ospatu zen, iraunkortasunaren aldeko tokiko ekintza plana 10 urteren buruan berrikusteko aukera emanez, Agenda edo Programatik Ekintzara eta Aalborgeko Gutunetik Aalborgeko Konpromisotara igarotzeko helburu berriak ezartzeko aukera (Europa guztiko tokiko gobernuek elkarrekin burutzeko baterako konpromisoen multzoa), alegia.

Aalborg+10ko Konpromisoek Europa osoan egungo hiri-iraunkortasun ahalegina indartu, Tokiko Agenda 21 suspertu, eta iraunkortasuna (tokikoa eta globala) lortzeko helburu, estrategia eta ekintza berriak definitzea dute helburu.

Tokiko Ekintza Planen gauzapena bultzatzeko koordinazio eta lankidetzeta foro izateko helburuarekin UDALSAREA 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea osatu zen, euskal udalerrietako Tokiko Agenda 21 proiektuak dinamizatuz alegia.

Gaur egun UDALSAREA hiru Lurralde Historikoetako 138 Udaletxek, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila/IHOBek, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUEDEL) osatzen dute.

Orioko udalerria 2004ko maiatzean sortu zen UDALTALDE 21 UROLA KOSTAko kide da. Udaltalde hau Urola Kosta eskualdeko herriek (Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orío, Zestoa, Zarautz eta Zumaia), Urola Kostako Udal Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko

Jaurilaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak, IHOBE SA Sozietate Publikoaren bitartez, osatzen dute.

Honela, Garapen Iraunkorreranzko Ekintza Plana ezartzeko hausnarketarako konpromisoa hartzen da, hau da, bizi kalitatea hobetuz, natur balioak gordez, baliabideak eta energia aurreztuz eta aipaturiko udalerrien ahalmen ekonomikoak garatuz epe labur, ertain eta luzearako programak lantzeko konpromisoa.

Zazpi udalerriotatik Zarautz da iraunkortasun irizpideen eta Tokiko Agenda 21en ezarpenean bide luzeena egin duena. Udalerrri hau izan zen, hain zuzen ere, 2002ko abenduan Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareari, UDALSAREA 21i alegia, atxiki zitzaion lehen hamasei udalerrietako bat.

Udaltalde 21 Urola Kosta osatzen duten udalerriek, Zarautz salbu, 2004ko maiatzean hasi zuten prozesu hau Iraunkortasunerako Diagnostikoa burutuz. Diagnostiko hau udalerriaren egoera ekonomiko, sozial eta ingurumenekoaren analisi bat egitean datza. Egungo egoera eta arazoak, puntu ahul eta sendoak eta etorkizunera begira diagnostikoa deskribatzeaz gain, helburuak, ekintza planak eta adierazleak proposatzen ditu. Azken hauek, Tokiko Agenda 21 prozesua eta udalerriaren iraunkortasuna neurtzea ahalbidetuko dute.

Diagnostiko hau oinarri hartuz, hemen aurkezten den dokumentuak analisi honi erantzuna ematen dioten helburu eta garatu beharreko ekintza multzoa jasotzen ditu, udalerriaren garapen iraunkorrako batetarrantz aurrera egitea dutelarik helburu nagusia.

Helburuak eta hauek lortzeko proposaturiko ekintza multzoa, Orioko Tokiko Agenda 21 prozesuko oinarritzko elementua den Orioko Iraunkortasuneranzko Tokiko Ekintza Plana deiturikoan jasotzen dira.

Dokumentu honen helburu nagusia Diagnostikoa eta jarduera helburuen arteko lotura ezartzea da, jarduera helburu hauen baitan lehentasunak erabakitzea, Ekintza Planaren edukien deskribapen zehatza egitea eta ezarpen prozesuaren jarraipena egiteko Iraunkortasun Adierazle Sistemaren aurkezpen eta deskribapena egitea.

Honen arabera, ondorengo ataletan banatzen da dokumentua:

DIAGNOSTIKOA BURUTZEA (2. atala)

Tokiko politiken ezarpeneko lehen pausoa Iraunkortasun Diagnostikoa burutzean datza, beronen xede nagusia garapen iraunkorrarekiko, inguruarekiko eta kudeaketa sistemarekiko udalerriaren hasierako egoera definitzea izanik. Ondoren, detektaturiko gabezia eta arazoen

izaera eta garrantzia zehaztu eta baloratuko dira, arazo eta gabeziei aurre egingo dien politikak definitu ahal izateko.

DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA PLANERA (3. atala)

Diagnostikoa lortzeko buruturiko prozesuaren laburpena da. Bertatik ateratako ondorioak eta hauei loturiko esku-hartze helburuak azaltzen ditu. Helburu hauek Ekintza Planaren oinarria izango dira.

TOKIKO EKINTZA PLANA (4. atala)

Buruturiko prozesua deskribatzeaz gain, Orioko Tokiko Ekintza Planaren edukien deskribapen zehatza burutzen da, Ildo Estrategiko, Programa eta Ekintzen inguruko xehetasunak emanez.

JARRAIPEN PLANA (5. atala)

Orioko Tokiko Agenda 21 prozesuaren jarraipena egiteko diseinaturiko Iraunkortasun Adierazle Sistemaren deskribapena azaltzen du. Sistema honen bidez, Iraunkortasuneranzko Ekintza Planaren garapen maila eta udalerrriaren egoera balioztatu ahal izango dira urtez-urte.

2. IRAUNKORTASUN DIAGNOSTIKOA EGITEA

Behin Udalak konpromisoak hartu ondoren Oriko Diagnostikoa burutzeari ekiten zaio. Ingurumen, ekonomi eta gizarte sektoreak aztertuz, eta aspektu egituratzaileak eta politikari, teknikari eta herritarren ekarpenek gehituz, gaur egungo egoera deskribatzen duen Diagnostikoa osatzen da, bertan sendotasunak nahiz ahultasunak islatzen direlarik.

Diagnostikoaren dokumentua ondoko atal edo gaietan oinarritzen da:

- Ekonomi eta gizarte arloa
- Inguru fisikoa
- Inguru naturala
- Lurralde antolamendua eta hiri plangintza
- Mugikortasuna eta garraioa
- Ingurumen sektoreak: ura, hondakinak, energia, kutsadura akustikoa eta atmosferikoa
- Jarduera ekonomikoen ingurumen eragina
- Arriskuen analisia eta kudeaketa
- Komunikazioa, sentsibilizazioa eta parte hartzea
- Ingurumenaren udal kudeaketa

2004ko urria/azaroan zehar hiru Mahaia Tekniko burutu ziren; berauetan Orioko udaleko arduradun politiko eta teknikoek, iraunkortasun gaien inguruko adituek eta udalerriko gizarte eragileek hartu zuten parte, udalerriko ahultasun, mehatxu, sendotasun eta aukerak landuz.

1. Mahaia Teknikoa: Jarduerak eta Ingurumen Sektoreak. Landutako gaiak eta partaideak:

GAIAK
Jarduera ekonomikoen ingurumen eragina
Baliabideen kudeaketa eta erabilera: ura eta energia
Hondakinen ekoizpena eta kudeaketa; lurzoru poluituak
Kutsadura atmosferiko eta akustikoa
Ingurune fisikoa eta sistema naturalak
Ingurumen arriskua

PARTAIDEAK
Mirari Arruabarrena (Alkatea)

Ramon Etxeberria (Obra, nekazaritza eta arrantza Zinegotzia)
Pilar Azurmendi (Udal Arkitektoa)
Leandro Azkue (Arrantzaleen Kofradiako Idazkaria)
Herrio elkarteko ordezkaria

2. Mahaia Teknikoa: Planeamendua eta Mugikortasuna. Landutako gaiak eta partaideak:

GAIK
Planeamendua
Mugikortasuna, garraioa eta irisgarritasuna

PARTAIDEAK
Mirari Arruabarrena (Alkatea)
Eneko Olariaga (Alkateordea)
Pilar Azurmendi (Udal Arkitektoa)
José Carrera (Udaltzaingoa)
Kote Olaizola (GFA)
Iñaki Etxeberria (AASSetako Arkitektoa)

3. Mahai Teknikoa: Sozioekonomia eta Partehartzea. Landutako gaiak eta partaideak:

GAIK
Sozioekonomia
Herritarren sentikortzea eta partehartzea

PARTAIDEAK
Mirari Arruabarrena (Alkatea)
Eneko Olariaga (Alkateordea)
Eugenio Cotado (Kiroletako Zinegotzia)
Mikel Izquierdo (Kiroletako Teknikaria)
Noemi Ostolaza (Euskara, Hezkuntza eta Kultura Zinegotzia)
Jabier Zabaleta (Euskara, Hezkuntza eta

Kultura Teknikaria)
Elena Legarra (Zinegotzia)
M ^a Luisa Urbieta (Gizarte Zerbitzuetako Teknikaria)
Ainhoa Fernandez (Arkupe)
Cristina Salsamendi (Arkupe)
Zigor Saizar (Orioko Herri ikastolako Zuzendaria)
Amaia Dorronsoro (Ikastolako ordezkaria)
Marije Gonzalez de Txabarri (Zaragueta Guraso Elkartea)
Maikar Iurramendi (Zaragueta Guraso Elkarte)

Mahai tekniko hauez gain, “Motondoko inguruaren antolaketarako” Mahai Tekniko Berezia antolatu zen. Bere helburua Oriko Udalaren irizpidea argitzea eta osatzea zelarik. Mahai honen ibilbidea Tokiko Agenda 21 proiektuaz aparte jarraitu du

PARTAIDEAK
Arantxa Txintxurreta (Herrio natur taldea)
Asier Esnal (Arraun Elkarteko lehendakaria)
Elixabete Zuriarrain (Urola-Kosta Udaltaldeko koordinatzailea)
Enara Rabina del Rio (Herrio natur taldea)
Eneko Olariaga (Orioko Udaleko hirigintza eta ingurumeneko zinegotzia)
Eneritz Odriozola (Herrio natur taldea)
Eugenio Cortado (Orioko Udaleko kirol zinegotzia)
Igor Iturain (Aiako alkatea)
Jakoba Rekondo (arraun eta piragüismoko pista olinpikoaren proiektuaren diseinatzailea)
Javier Zarraonaindia (Urola-Kostako Mankomunitateko lehendakaria)
Jose Luis Albeca (Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol saileko ordezkaria)

Jose Luis San Sebastián (Arraun Elkarteko lehendakari ordea)
Josu Erkiaga (Eusko Jaurlaritzako biodibertsitateko zuzendaria)
Mirari Arruabarrena (Orioko alkatea)
Patxi Sarasola (arraun eta piragüismoko pista olinpikoaren proiektuaren sustatzailea)
Pilar Azurmendi (Orioko Udaleko arkitektoa)

Era berean, 2004ko abenduaren 1ean Herritarren lehen Partehartze Foroa ospatu zen, udalerriaren egoeraren analisia burutuz.

Foroko partaideen eskaerari erantzunez, herriko elkarteekin bilera bat antolatu zen, Orioko Tokiko Agenda 21eko parte hartze prozesuaren metodologia adosteko asmoz. Bilera horretan, Tokiko Agenda 21eko diseinu prozesuko hurrengo faseetan, mahai tekniko bat gehiago egitea erabaki zen, sozioekonomia mahaia bitan banatuz, ekonomia eta gizarte esparrua, alegia. Honela gaiak sakonago lantzeko aukera legoke.

Era berean, antolaturiko mahai teknikoetan parte hartzeko herriko elkarteek eskaria egitea erabaki zen, zein mahaietan parte hartu nahi zuten zehaztuz.

Diagnostikoaren lanketari 2005eko maiatzean eman zitzaion amaiera, Orioren egoera azaltzen duen dokumentu bat sortuz. Era berean, diagnostikoaren laburpen dokumentu bat aurkeztu zen, non diagnostikoaren ondorio nagusiak jaso eta helburuak proposatzen ziren. Bi dokumentuok Udaletxean daude eskuragarri.

3. DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA PLANERA

Diagnostikoaren ondorioetatik abiatuz, Ekintza Planaren diseinuari ekin ahal izateko esku-hartze helburuak identifikatu eta lehenesten dira. Finkatu diren helburuen lorpenean aurrera egitearren, aipaturiko Ekintza Planean 4-5 urteren buruan aurrera eraman beharreko ekintzak zehaztuko dira.

Honela bada, 2005eko martxoan zehar berriro ere lau Mahai Tekniko burutu ziren, non Orioko udal politikari eta teknikariek eta udalerriko gizarte eragileek parte hartu zuten.

1. Mahaia Teknikoa: Jarduerak eta Ingurumen Bektoreak. Partaideak:

PARTAIDEAK
Mirari Arruabarrena (Alkatea)
Elena Legarra (Zinegotzia)
Jesús Rodríguez (Zinegotzia PSE)
Amaia Usandizaga (Udal Arkitekto Teknikoa)
Jose Carrera (Udaltzaingoa)
Martxiel Genoba (Zinegotzia)
Leandro Azkue (Arrantzale Kofradia)
Iñaki Zaldua (Talai Plataforma)
Garbiñe Manterola (Herrio Natur Taldea)

2. Mahaia Teknikoa: Planeamendua eta Mugikortasuna. Partaideak:

PARTEHARTZAILEAK
Mirari Arruabarrena (Alkatea)
Elena Legarra (Zinegotzia)
José Carrera (Udaltzaingoa)
Pilar Azurmendi (Udal Arkitektoa)
Cristina Salsamendi (Arkupe)
Emeterio Iribar (Talai)
Enara Rabina (Herrio)
Imanol Manterola
Jose Luis San Sebastián (Orio A.E.)
Joxe Mari Makazaga (O.H.I. Ikastola)
Leandro Azkue (Arrantzale Kofradia)

Luis Azkue (Muskuilu-Harria)
Marije Gz. De Txabarri (Zaragueta Herri Eskola)
Pello Orbañanos Zabala (Ikastola)
Santos Carretero (Zaragueta Herri Eskola)

3. Mahai Teknikoa: Ekonomia. Partaideak:

PARTAIDEAK
Mirari Arruabarrena (Alkatea)
Elena Legarra (Zinegotzia)
Jesús Rodríguez (Zinegotzia PSE)
Idoia San Sebastián (Turismo eta Merkataritza Teknikaria)
Alazne Goenaga (Talai Plataforma)
Cristina Salsamendi (Arkupe)
Garbiñe Manterola (Herrio Natur Taldea)
Iñaki Zaldua (Talai Plataforma)

4. Mahai Teknikoa: Gizarte eta Parte hartzea . Partaideak:

PARTAIDEAK
Eneko Olariaga (Alkateordea)
Eugenio Cotado (Zinegotzia)
Jesús Rodríguez (Zinegotzia PSE)
Javier Zabaleta (Euskara, Hezkuntza eta Kultura Teknikaria)
Mikel Izquierdo (Kiroletako Teknikaria)
Ainara Peña (Karkara)
Alazne Goenaga (Talai Plataforma)
Amaia Dorronsoro (Herri Ikastola)
Ane Miren Fernández (Txurumuski)
Eneko Dorronsoro (Talai Plataforma)
Eneritz Odriozola (Karkara)
Imanol Manterola

Maider Lopetegui
Maikar Iurramendi (Zaragueta Herri Eskola)
Marije Gz. De Txabarri (Zaragueta Herri Eskola)
Ricardo Uzkudun (Errikotxia)
Ruth Echeverria (Gazte Pastoralta)
Zigor Saizar (Orioko Herri Ikastolako zuzendaria)

Mahai teknikoen lana amaitutakoan, herritarrek diagnostikotik ateratako ondorio eta proposaturiko helburuen inguruan euren ekarpenak egiteko aukera izan zuten, horretarako 2.005eko apirilaren 21ean Herritarren Partehartze Foroa burutu zelarik.

Jarraian, burututako lan eta aterako ondorioen inguruko xehetasunak jasotzen dira.

3.1. Helburuak

Iraunkortasunerako Ekintza Planaren helburuak definitzeko Iraunkortasuna Lortzeko Bidean Europako Hirien Gutunean (Aalborg-eko Gutuna) agertzen diren printzipio gidariak hartzen dira oinarritzat; printzipio hauek Aalborg+10ean berrikusi ziren Iraunkortasunerako bidean ondoko konpromisoak definituz:

1. *Gobernatzeko moduak*: demokrazia partehartzailearen bidez erabakiak hartzeko prozedurak bultzatu.
2. *Iraunkortasunaren aldeko udal kudeaketa*: diseinutik hasi eta ezartze eta ebaluazio fasera arte udal kudeaketa programa eraginkorrak prestatu.
3. *Natur ondasun komunak*: guztiok natur ondasun komunak erabiltzeko aukera izan dezagun hauek babestu, mantendu eta bermatu.
4. *Kontsumo eta bizimodu arduratsuak*: baliabideak tentuz eta modu eraginkorrean erabiltzea erraztu eta kontsumo eta ekoizpen iraunkorra bultzatu
5. *Hirigintza diseinatu eta planifikatzea*: hirigintza diseinatzen eta planifikatzen eginkizun estrategikoa izan eta ingurumen, gizarte, ekonomia, osasun eta kultur gaiak guztion onerako bideratu.
6. *Mugikortasuna hobetu eta zirkulazioa murriztea*: garraioa, osasuna eta ingurumena bata bestearen mende daudela onartu eta mugikortasun iraunkorreko ereduak irmotasunez sustatzeko konpromisoa hartu.
7. *Osasunaren aldeko tokiko ekintza*: herritarren osasuna eta ongizatea zaindu eta areagotu.

8. *Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra*: tokiko ekonomia bizia izan dadin eta enplegua sor dezan lortu ingurumenari kalterik egin gabe.
9. *Berdintasuna eta justizia soziala*: komunitate integratzaile eta solidarioak bermatu.
10. *Tokian tokikotik mundu globalera*: bakea, justizia, berdintasuna, garapen iraunkorra eta klima babesteko erantzukizun globala gure gain hartu.

Iraunkortasuneko printzipio orokor hauek Orioko Iraunkortasun Diagnostikoan jasotako gaiekin kontutan izateak udalerrirako helburu espezifikoak definitzea garamatza; helburuok, hierarkizatu ondoren, Orioko Ekintza Plana osatzeko beharrezko ekintzak egituratzeko oinarri izango dira.

3.2. Diagnostikoaren ondorioak eta helburuen proposamena

Ondorengo orrialdeetan, taula moduan, Diagnostikotik ateratako ondorioak eta proposaturiko helburuak aurkezten dira gaiez-gai.

SOZIOEKONOMIA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
HERRI IZAERA ♣ Herri txiki eta arrantzale izaerak definitu izan du Orio orain arte baina gaur egun aldatzen ari da.	♣ Herri izaera garai berrietara egokitu.
DEMOGRAFIA ♣ Orioko zahartze tasa hazkorra da Gipuzkoa osoan bezala. Biztanleriaren eboluzioa positiboa izan da 1998 eta 2003 urteen artean.	♣ Biztanleriaren berriztapena mantendu.
MIGRAZIOA ♣ Migrazio mugimenduek 94 pertsonako saldo positiboa ageri zuten 2001ean.	♣ Emigrazioa minimoa izan dadin lortu.
BIZTANLERIA ♣ Orioko biztanleen erdia emakumezkoak dira eta beste erdia gizonezkoak. ♣ Biztanle dentsitatea Gipuzkoako batez bestekoa baino altuagoa da. ♣ Familia bakoitzeko pertsona kopurua Gipuzkoako batez bestekoa baino handiagoa da.	♣ Udalerriko biztanle kopurua mantendu edo gehitu, herriko izaera mantenduz
EKONOMIA ETA LANA ♣ Orioko BPG eta FEG Euskal Autonomi Erkidegoko batez bestekoaren azpitik zeuden 2000 urtean. ♣ Orioko langabezia tasa baxua da. Biztanleen %93ak lanean ziharduen 2001ean. ♣ Langabetu gehienak 25 eta 34 urte bitartekoak eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketadunak dira. ♣ Lan mundua Oriotik kanpo dago eta oriotarrek kanpora jo behar dute lanera	♣ Langabezia tasa handiak jasaten dituzten gizataldeengana zuzendutako ekintzak burutu, lana sustatzearren. ♣ Lanaren kalitatea hobetu Udalerrian. ♣ Udalerrian lanpostu sorkuntza bultzatu

SOZIOEKONOMIA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
LEHEN SEKTOREA ♣ Orion nekazaritza eta abelazkuntza jarduera garrantzitsua da; 68 ustiategi daude guztira. Hauetatik 6 dira horretatik bizi direnak ♣ Arrantza sektoreak indarra galdu du azken hamarkadan.	♣ Nekazaritza arloko lanpostuak kontutan eduki eta sustatu ♣ Arrantza sektorearen eboluzioa eta bere etorkizuna balioztatu.
BIGARREN SEKTOREA ♣ Eskualdean kokaturiko industria da Udalerriko ekonomiaren motore nagusia. ♣ AASSen aurrerapenean Aizperron industrigune berri bat sortzea proposatzen da. ♣ Udalerriak industriguneei dagokienez agertzen duen gabezia edo hutsunea arintzea bilatzen da, industria lurzorua zabalduz. ♣ Ekonomia jarduketarako lurzoru publikoa eta merkataritza ekipamenduak sortzeko LAP-ren arabera: – Eskualde-Egiturak jarduketa ekonomikoetarako lurzoru erreserba du. – Orion ez dago lurzoru erreserba taxuzkorik. – Orio, hazkuntza orekatuko udalerrien artean aurkitzen da jarduera ekonomikoei dagokienez.	♣ Industria sustatu herritarrentzako lanpostuak sortzearen. ♣ Industria jardueretara bideratutako azalera gehitu. ♣ Udalerri mailan jarduera ekonomikoetarako libre gelditzen den lurra kudeatu.

SOZIOEKONOMIA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
HIRUGARREN SEKTOREA ♣ 2003an MTPBPB (Merkataritza eta Turismoa Berrindartzeko Plan Berezia) jarri zen martxan ♣ Orion mota ezberdinetako ostatuak aurki daitezke: Kanpina, ostatuak, agroturismoak. ♣ Orioko turismo bulegoa ITOURBASKen baitan sartu da, kalitatezko turismoa sustatzearen. ♣ Kirol Portuak suposatzen duen turismo-potentziala zaindu behar da	♣ Udalerrian bertan kontsumitzea sustatu. ♣ MTPBPB eguneratu eta ebaluatu ♣ Turismoa sustatu, kalitatea irudi bezala erabiliz eta nortasuna mantenduz.
ETXEBIZITZA ♣ Orion etxebizitza huts ugari dago. ♣ Orioko gazteengana zuzendutako etxebizitza erreserba egin nahi da. ♣ Etxebizitzen salneurriak nabarmen gora egin du azken hamarkadan (%170). ♣ Garatutako guneek oso dentsitate altua agertzen dute ♣ Lurzoru Urbanizaezina kategoria bakoitzean baimentzen den erabileraren arabera sailkatuta dago. Etxebizitza berrien eraikuntza araututa dago eta egungoak finkatuta.	♣ Udalerriko etxebizitza hutsak kudeatu. ♣ Gazteengana zuzendutako etxebizitza eskaintza bermatu. ♣ Landa eremuko eraikuntza berriak antolatu, paisaiaren kalitatea kaltetu ez dezaten.
HEZKUNTZA ♣ Orion herrian bertan eskolatzeko aukerarik baden arren bertako ikastetxeen promozioa falta da ikasleak kanpora joan ez daitezen. ♣ Haur eskola falta da.	♣ Udalerriko ikastetxeak balioztatu eta sustatu. ♣ Haur eskola publikoa sortu.
OSASUNA ♣ Orion nahikoa osasun zerbitzu eta farmazia dago. ♣ Eskualde mailako osasun zentro baten falta nabari da.	♣ Kontsulta espezializatueterako eskualdeko osasun zentroaren sorkuntza kudeatu.

SOZIOEKONOMIA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
GIZARTE ONGIZATEA ♣ Gizarte ongizateko lan nagusiak minusbaliak, inmigrazioa, drogamenpekotasuna, emakumeen diskriminazioa eta pasadizokoak dira. ♣ Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarrera eta Gizarteratzeko Larrialdietarako Laguntzak jasotzen dituzten familiak 14 eta 13 dira hurrenez hurren. ♣ Orioko txirotasun maila ez da eskualdeko batez bestekoa baino altuagoa. ♣ Etxez etxeko laguntzarako itxaroten ez dago inor. ♣ Eguneke zentrorako bi pertsona daude zain. ♣ Familia desestrukturatuen kopurua hazten ari dela detektatu da ikastetxeetan.	♣ Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bilatu ♣ Drogomenpekotasunari aurre egiteko neurriak hartu ♣ Laguntzak jasotzen dituzten familien egoera hobetu. ♣ Familia eredu ezberdinen beharrei aurre egiteko prestatu.

SOZIOEKONOMIA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
EKIPAMENDUAK ♣ Parke, berdegune eta lorategi eskasia dago. ♣ Zinema, musika kontzertu edota antzerkietarako lokal baten falta nabari da. ♣ Gaztegune eta ludoteka falta dira gazteentzat. ♣ AASS berrietan proposatzen da – espazio libreak erabat betetzea eta ekipamendu eta gune berdeen zerrenda bat sortzea. – ibaiaren ondoan kirol eremua sortzea ♣ Ekipamendu komunitarioen sistemara bideraturiko aurreikuspenak daude, zeintzuek ondorengoetan izango duten eragina: – Ikastetxeak – Kirol ekipamenduak – Hiri parkeak – Oria itsasadarreko Portua	♣ Zinema eta antzerki jarduerak ahalbidetu. ♣ Kultur Zentro berria sortu(balio anitzekoa) ♣ Haur eta gazteen beharrak asetzeko ekipamenduak sortu. ♣ Sustapen berrietan espazio libre, parke eta lorategiak erdietsi eta hauen diseinuan erabiltzaileen erosotasuna (estazionalidadea, itzalen planteamendua, e.a.) kontutan hartu. ♣ Bizi kalitatearen hobekuntza eta, batez ere, herrigunean aisialdirako gune gehiago edukitzea bilatu, Arau Subsidiarioen bidez.
KULTURA ♣ Gazteengana zuzendutako jardueretan hutsunea nabari da.	♣ Gazteen beharrak ezagutu ♣ Gazteengana zuzendutako jarduera programa bat sortu. ♣ Herriko talde desberdinen ekintzak ezagutu

SOZIOEKONOMIA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
KIROLA ♣ Orion nahikoa kirol ekipamendu dago. ♣ Kirol ezberdinetan federatutako pertsonen eta kirol-taldeen egungo daturik ez dago.	♣ Kirol instalakuntzak mantendu eta egokitu eta jarduerak antolatu. ♣ Orioko kirol jarduera ezagutu bere alde neurriak hartzeko
EUSKARA ♣ Euskararen ezagupen eta erabilpen maila ona da. ♣ Etorkinei euskara ikasteko erraztasunak ematen zaizkie. ♣ Euskara Lan Munduan Sustatzeko Planaren ezarpena hasi da. ♣ Hitanoa geroz eta okerrago erabiltzen da	♣ Euskararen erabilera normalizatu maila guztietan. ♣ Hizkuntzaren erabilpen zuzena sustatu
HIRI BIRSORKUNTZA ♣ Orion hiri birsorkuntzako zenbait plan daude: PERCO, PERCOTUR, Agenda 21. ♣ Lurralde mailako planetan hirigune historikoaren dinamizazioa proposatzen da. ♣ AASS berrietan Hirigune historikoa birgaitzea proposatzen da.	♣ Hiri Birsorkuntzako Plan guztiak koordinatu eraginkortasun handiago baten bila. ♣ Hirigune Historikoren Birgaitze Plana garatu.

INGURUMEN NATURALA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
EGUNGO LANDAREDIA ♣ Orioko landa eremuan belardi eta larreak batez beste Gipuzkoa osoan baino proportzio altuagoan ageri dira, Udalerrri honen landa izaeraren adierazle. ♣ Orioko baso eremua batez ere koniferoek okupatzen dute, batik bat Pinus pinaster (itsas pinuak).	♣ Baserrietako laborantza estentsiboa zaindu eta sustatu, egungo landa eremuko paisaia mantentzearen. ♣ Bertako hostozabal landaketak sustatu konifero espezieen aurrean, bai udalaren sailetan baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren sailetan ere
NATURGUNE ETA NATUR ELEMENTU BABESTUAK ♣ Oria Itsasadarra EAEko Hezeguneak Babesteko LAPan babestuta dagoen eremua da, natur eta paisaia balio garrantzitsuak ageri dituelarik. ♣ Gaur egun ez dago babestutako naturgune eta elementuen inguruko informazioa askorik, herritarrei zuzendutakorik.	♣ Oria itsasadarra bere balioa eta sustapen aukerak kontutan izanik kudeatu. ♣ Orioko natur balioak ezagutzera eman bertakoei eta bisitariei. ♣ Herritarrei babestutako guneak, natur, ekonomia eta gizarte baliabide bezala duten garrantziaz informatu ♣ Oria itsasadarrean burutzen diren jarduera eta interbentzioek eremu horretako natur balioetan izan ditzaketen eragina kontutan hartu.

INGURUMEN NATURALA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
BESTE INTERES GUNE BATZUK ♣ Orioko AASS berriek proposatzen dute: – Babes Bereziko Eremuak eta Ingurumen Hobekuntzako Eremuak izendatzea, Udalerriko Natur Intereseko Eremuak babestu eta berreskuratzearen. – Landa lurreko berezko balio naturalak babestea proposatzen dute. ♣ Motondoko eremuaren egoera hobetu eta babesteko aukeren inguruko ikerketa bat behar da. ♣ Ibai eta Erreken ertzak Antolatzeako LAPean Motondoko ingurua berreskuratzeako premia duen ibaitarte gisa proposatzen da.	♣ Natur intereseko eremuen mantentzea eta hobekuntza eta elkarren arteko jarraitasun ekologikoa bermatu Arau Subsidiarioen garapenean. ♣ Oria ibaiaren erriberak eskaintzen dituen aukerak aztertzen hasi, bere natur balioak mantenduz eta indartuz ♣ Lurzorua baliabide mugatu bezala kontsideratu. Berria okupatu aurretik hiriguen barruko espazio hutsa aprobetxatu
GALZORIAN DAGOEN FAUNA ♣ Oria ibaian agian espezieen arteko desoreka hasi da gertatzen	♣ Oria ibaiko espezieen egoera azertu
GALZORIAN DAGOEN FAUNAREKIN LOTUTAKO PLANAK ♣ Igeldo-Mendizorrotz kordan zehar Hegoaldeko Zuhaitz-Igelaren habitata berreskuratzeako ekintzak aurreikusita daude.	♣ Jarduerak burutzerakoan mehatxupear dauden espezieen habitatak kontutan hartu. ♣ Hegoaldeko Zuhaitz-Igelaren kontserbaziorako ekintzak erraztu.

MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	♣ Udalerriko Mugikortasun Plana garatu ♣ Mugikortasun arloan herritarrak sentikortzearen kanpainak antolatu
ERREPIDE SAREKO PROIEKTUAK ♣ Urola Kostako Lurraldearen Zatikako Planean (2003-2018) Orion (Txanka) A-8 Autobidearekiko lotune bat egitea aurreikusten da. ♣ Urola Kostako Lurraldearen Zatikako Planean (2003-2018) Oria itsasadarraren gainean beste zubi bat eraikitzea aurreikusten da (Anibarko Portutik Motondora). ♣ AASSen aurrerapenean trafiko zirkulazioa desbideratzea eta herriko plazaren peatonalizazioa ahalbidetuko duen zubi berri bat eraikitzea proposatzen da., beti ere itsasontziei moilara pasatzen utziz.	♣ Errepide nagusienetatik Udalerriko sarbidea hobetu.
IBILGAILUAK ♣ Orion 1.000 biztanleko 481 ibilgailu daude, Urola Kostako batez bestekoa gaindituz eta Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik.	♣ Auto pribatua ez den beste garraiobide erakargarriak sustatu. ♣ Autoaren erabilera murriztu.
APARKALEKUAK ♣ Ibilgailu eta aparkaleku kopurua nahikoa orekatuta daude gaur egun. ♣ AASSen berrikuspen prozesuan aurreikusiten diren aparkalekuek aurreikusitako ibilgailu parkearen igoera dela eta sortutako beharrak aseko dituzte. ♣ Hondartza inguruko aparkaleku plazak ez dira nahiko betetzen.	♣ Aparkaleku plazak erabiliak izan daitezen lortu.

MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
GARRAIO PUBLIKOA ♣ Garraio publikoa ez da Udalerriko herrigunera iristen eta horrek, beronen erabilera oztopatzen du. ♣ Lurraldeko Zatikako Planean (LZP) trenbide sarearen desdoblamendua eta Aia-Orioko trenbide-pasagunearen ezabaketa eta Orioko geltokiaren berregituraketa aurreikusten dira. ♣ Hondartzako gunea betetzen ari da eta urrun geratzen da garraio publikoetatik. ♣ Herrigunea eta hondartza artean motora bidezko garraioa sortzea aztertzen ari da Udala.	♣ Garraio publikoaren erabilera sustatzeko bideak jarri. ♣ Garraio publikoetarako irispidea erraztu herrigunetik. ♣ Zerbitzu kantitatea eta lotura desberdinak (Lasarte, Azpeitia, Bilbo...) hobetu
MOTORGABEKO MUGIKORTASUNA ♣ Gaur egun herrian bidegorri bakar bat dago. ♣ LZPak oinezkoentzako ibilbide bat aurreikusten du kostarekiko paralelo, Orio zeharkatuz. ♣ Hondartza eta hirigune historikoa lotzeko bidegorriak eraikitzea proposatu da.	♣ Bidegorri praktiko eta funtzionalak egin. ♣ Herri barruko garraiobide bigunak bultzatu, bizikletaren eta oinezkoaren diskriminazio positiboa aplikatuz , autoaren erabilera masiboa ekidinez
IRISGARritasuna ♣ Hirigune Historikora irisgarritasuna hobetzeko elementu mekanikoen beharra nabaria da. ♣ Espalioen egoera puntu batzuetan txarra da: toki batzuetan falta dira eta daudenean gabezia handiak dauzkate (estutasuna...). ♣ Espaloiak egokitzeko lanekin jarraitu beharko litzateke. ♣ Eremu malkartsuetan eskudelak falta dira eta oinezkoen segurtasunerako seinaleztapenik ez dago.	♣ Elementu mekanikoak ezarri hirigune historikora heltzeko. ♣ Espaloiak egokitu eta oinezkoentzako eskudelak ezarri

INGURUMEN BEKTOREAK URA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
HORNIDURA ♣ Gaur egun Oriok ur hornidura asetuta dauka Azpeitian kokatutako Ibai Eder urtegitik; San Juanen erreserbako beste hartune bat dauka.	♣ San Juaneko hartunea erreserba moduan mantendu.
KONTSUMOA ♣ 2002 eta 2004 urteen artean hiru hileko ur kontsumoa, batez beste 68.470 eta 98.694 m3 artekoa izan zen.	♣ Ura kontsumoaren igoera 2000 eta 2003 urteen artean zergatik gertatu den aztertu. ♣ Ur kontsumo arrazionala sustatzeko kanpaina burutu.
SANEAMENDUA ♣ Orioko ur zikinak Zarauzko Ur Zikinen Araztegira ponpatzen dira. ♣ Saneamendu sarean itsasoko ura sartzen da marea biziak direnean ♣ Ur zikinen saneamendu sarea Iturbide kalea eta Plaza inguruko ur beltzen eta euri uren banaketa amaitzen denean osatuko da.	♣ Ur fekal eta euri-uren banaketa egin saneamendu sarean.

INGURUMEN BEKTOREAK ENERGIA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
KONTSUMOA ♣ Orioko argindar kontsumo totalak gora egin du 2000 eta 2003 urteen artean, biztanleko energia fakturazioa gutxi gorabehera egonkor mantentzen den arren; etxebizitza eta zerbitzu sektorea dira kontsumo handieneko sektoreak.	♣ Enpresa ezberdinen energia kontsumoa kuantifikatu. ♣ Energia kontsumoaren igoera 2000 eta 2003 urteen artean zergatik gertatu den aztertu.
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK ♣ Energia berriztagarrien sorkuntza sistemarik ez dago.	♣ Energia berriztagarrien sorkuntzako instalakuntzak sustatu
UDALAREN NEURRIAK ENERGIA AURREZTEKO ♣ Energia kontsumoa kontrolatzeko fluxu kontrolatzaileak ezartzen ari dira urbanizazioetan.	♣ Zentzuzko energia kontsumoa lortu aurrezpen neurriak aplikatuz. ♣ Arrazoizko energia kontsumoa sustatzeko kanpainak burutu.

INGURUMEN BEKTOREAK HONDAKINAK	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
HONDAKINEN KUDEAKETA ♣ Orioko hiri hondakinak Urtetako zabortegian isurtzen dira. Europako zabortegien inguruko legedia betetzeko ekintzak diseinatu behar dira Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketako Plan Integralarekin bat eginik.	♣ Gipuzkoako Hondakin Solidoen Plan Integralak herri mailan zein eragin duen suposatzen duen aztertu
GAIKAKO BILKETA ♣ Hondakinen gaikako bilketa Urola Kostako Mankomunitatearen esku dago. ♣ Mankomunitateak hondakinen gaikako banaketa hobetzeko lanean dihardu: Berriki papera eta kartoiaren bilketa banatu egin dira, etxeetako hondakin arriskutsuen bilketarako zerbitzu bat ezarri da eta tabernei ontziak botatzeko edukiontzi berezi batzuk eskaini zaizkie. ♣ Orion, eskualdeko gainerako herrietan bezala, hondakinen gaikako bilketak nabarmen gora egin du azken urteetan.	♣ Eskualde mailako hondakinen kudeaketa europar legedia beteaz burutu. "3-R"en hierarkia errespetatu. ♣ Gai guztientzako ahal den birziklapen maila altuena lortu.

INGURUMEN BEKTOREAK ATMOSFERA ETA AKUSTIKA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
ATMOSFERA ♣ Kutsadura atmosferikoaren adierazleek ez dute arrisku egoerarik azaltzen. ♣ Kutsadura atmosferikoaren foko nagusia N-634 errepidea da, eragina kuantifikatzeke dagoen arren. ♣ Industria sektoreko zenbait kutsadura foko ezabatu egin dira ikatza gas naturalaz ordezkatu ondoren.	♣ Kutsadura maila neurtzeko sistema fidagarri bat ezarri.
AKUSTIKA ♣ Gaur egun ostalaritza sektoreak eragindako zarata eta ostalaritza kanpoko zarata arazoei aurre egiteko neurketak egin eta neurriak hartzen ari dira.	♣ Herritarrak gogaitzen dituen zarata maila gutxitu. ♣ Autopistaren handitzeari begira, Oriotik pasatzen den zatian pantailak jartzea aztertu.

JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
BASO USTIAPENAK ♣ Baso ustiapenek inpaktu negatiboak eragin ditzakete ingurunean behar den neurriak hartzen ez baldin badira. ♣ Baso azalera gehiengoa pribatua denez Udalak ezin du jarduera hauen kontrol eta erregulazioan parte hartu.	♣ Baso jardunbide egokien gida bat sortu. ♣ Inpaktuak eragiten dituzten baso ustiapenen aurrean Udalak esku hartzeko ahalmena izan dezan formulak bilatu.
NEKAZAL JARDUERAK ♣ Negutegidun nekazal ustiategi intentsibo bat dago Orion. Produktu fisiko-kimikoen erabilera dela eta kutsadura eragin lezake.	♣ Udalerriko nekazal usiatiegiek eragindako kutsadura mailaren inguruko ezagupena lortu eta jarraipena egin ♣ Udalerriko nekazal produkzioko potentziala aprobetxatu. ♣ Nekazal jardunbide egokien gida bat sortu. ♣ Iraunkortasun irizpideak barneratuak dituen nekazal jarduerak bultzatu
ABELAZKUNTZA JARDUERAK ♣ Behi aziendadun ustiategi intentsiboak daude herrian; Udalak jardueron jarraipen bat egin beharko luke ingurunean eragin dezaketen kutsadura dela eta.	♣ Udalerriko abeltzaintza ustiatiegiek eragindako kutsadura mailaren inguruko ezagupena lortu eta jarraipena egin ♣ Iraunkortasun irizpideak barneratuak dituen abeltzaintza jarduerak bultzatu
ARRANTZA ♣ Arrantza jarduerak kutsadura iturri dira itsasoan isurtzen diren zaborrak, eta estuarioan burutzen diren beste isurketak (pinturak, olioak,) direla eta. Gainera oso zaila da Arrantzaleek zaborrok biltegitatu eta portura ekar ditzaten lortzea, itsasontzian sortzen zaizkien eragozpenak direla eta.	♣ Beraien hondakinak itsasora bota ez ditzaten itsasontziei baliabideak eskaini eta arrantzaleak kontzientziatu.
INDUSTRIA ETA ZERBITZUAK ♣ Kutsadura arazo handiena zaratagatik	♣ Udalerriko enpresetan ingurumen

JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
ematen da. Herrigunean kutsadura akustikoa lantegi eta tabernek eragiten dute. ♣ Enpresak Mutiozabal poligonotik atera nahi dira eremu hau bizitegitarako erabiltzeko.	kudeaketa sustatu. ♣ Jarduera gogaikarriak herrigunetik atera.
LURZORU POLUITUAK ♣ EAEko Lurzoruaren Poluitzaile izan daitezkeen Jarduerak dituzten Lurzoruen Inbentarioan Talleres Arostegui eta Motondoko zabortegia kokatzen zeneko eremua ageri dira.	♣ Lurzoruen kutsadura mailaren jarraipena egin. ♣ Motondoko eremua babestu eta sustatzeko aukerak kontutan izan. ♣ Lurzoru-kalitate kontzeptua planeamenduan sartu ♣ 1/2005 Legeak (Otsailak 4ko 1/2005 legea, lurzoruaren kutsaduraren prebentzio eta zuzenketarako) ezartzen duen bezala, borondatezko akordioak sustatu neurriak hartu behar dituztenen eta Administrazio publikoaren artean

ARRISKUEN ANALISIA ETA KUDEAKETA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
♣ Udal zein instalakuntza mailan Larrialdi Planak daude.	♣ Diseinatutako Larrialdi Planak exekutatu.

KOMUNIKAZIOA, SENTIKORTZEA ETA PARTE-HARTZEA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
KOMUNIKABIDEAK ♣ Orioko Udalak KARKARA eta UERA herri aldizkariak eta Urola Kostako Hitza erabiltzen ditu berri eta gertaera garrantzitsuen berri emateko. Hala ere Udalak proiektu eta jarduerak ez direla herritarrengana modu egokian heltzen uste du. ♣ Irrati baten beharra dago	♣ Udalak eskuragarri dituen komunikabideak maizago erabili. ♣ Herriko Irrati berri bat bultzatu ♣ Euskarazko komunikabideen erabilpena sustatu eta bultzatu.
KOMUNIKAZIOA UDALETXETIK ♣ Urola-Kosta Udaltalde 21 osatzearekin, Urola-Kosta Mankomunitatean Agenda 21eko informazio telefono bat eta mankomunitateko web orriko foro birtuala jarri dira martxan. ♣ Orio ezagutzera emateko jarduerak modu puntualean bakarrik egiten dira, sarriago egin beharko lirateke.	♣ Udalerriaren egoera ezagutzeko baliagarria den informazioa herritarren esku jarri. ♣ Eskaintza kulturala eta Orio ezagutzera emateko jarduerak ugaritu. ♣ Komunikazioa eta koordinazioa bultzatu herriko haurren ikastetxeen, elkartearen eta udalaren artean.
ELKARTE SAREA ETA PARTEHARTZEA ♣ Herritarren partehartzea bideratzeko sistema egituratu bat behar du Udalak. ♣ Zenbait elkarteetatik udal erabakietan parte hartzeko eragozpenak daudela adierazten da. ♣ Udalerrian mota ezberdinetako 30 elkarte daude, baina ez dute programa bateraturik. Jardueren eskaintzan koordinazioa falta da.	♣ Agenda 21en inguruan sortutako parte-hartze dinamika mantendu. ♣ Elkarte ezberdinek antolatutako programak koordinatu gainezar ez daitezten.

UDAL INGURUMEN KUDEAKETA	
ONDORIOAK	HELBURUEN PROPOSAMENA
UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEEN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIOA ♣ Orioko Udalak dagokion Udalaz gaindiko entitate guztietan hartzen du parte.	♣ Inguruko Udalerriekin eta beste administrazioekin lankidetzan maila altua mantendu, partekatutako zerbitzuen eraginkortasuna bilatzearen.
INGURUMEN KUDEAKETAREKIN ERLAZIONATURIKO ENPRESA ETA ERAKUNDEAK ♣ Orioko Udalak ur eta hondakinen kudeaketa modu mankomunatuaren burutzen du.	♣ Mankomunitateotan modu aktiboan parte hartu. ♣ Udalerriko bizitzan modu zuzenean eragiten duten ingurumen gaiak Udalak kudeatu.
TOKIKO INGURUMEN ARAUDIA ♣ Orioko Udalak ur-ziklo integralaren kudeaketa eta Ostalaritza establezimendu eta euren afekzioei buruzko udal ordenantza arautu du.	♣ Ingurumenaren babesa herritarrei eskaintzen zaien zerbitzu baten moduan hartu. ♣ Energia berriztagarrien ezarpena arautu
UDAL BARNEKO INGURUMEN KUDEAKETA ♣ AASS berrien dokumentuan ingurumena babesteko kapitulu bat sartu da, beraz, atzera begira alor honetan aurrerapen bat eman dela esan daiteke.	♣ Iraunkortasun irizpideak barneratzen dituen udal kudeaketa sustatu

4. TOKIKO EKINTZA PLANA

Udalerri baten etorkizuna, bertan garatu beharreko helburu eta ekimenei dagokionez, ez du Udalak bakarrik erabakitzen bere Ekintza Planaren bitartez, udalaz gaindiko edo eskualde mailako erakundeen aurreikuspenak ere udalerriaren etorkizunean, Oriorenean alegia, erabakigarriak izango direlarik.

Beraz, Ekintza Planaz ari garenean, bi atal banatuko ditugu: ekintzen lidergoa Udalak zuzenean daramanean **Udal Ekintza Plana** aipatuko dugu, baina udalerrian zuzenean edo zeharka eragiten duten ekintzetaz eta udalaz gaindiko edo eskualde mailako erakundeek kudeatu edo bideratzen dutenean **Udalaz Gaindiko Ekintza Planaz** ariko gara.

Orioko Iraunkortasunerako Udal Ekintza Plana aurreko fasean ezarritako helburuetatik abiatuta garatzen da. Helburu bakoitzari dagokion lehentasuna eman ondoren, Planaren helburu estrategikoak zehaztuko dira, Ildo Estrategiko bezala hain zuzen ere; horiek izango dira Ekintza Planaren ardatz egituratzaileak.

Lan fase honen helburua Tokiko Ekintza Planaren diseinua da, bertoko ekintzak definitu eta ezaugarrituz, hau da, ekintza bakoitzaren exekuzio programa zehaztuz.

Tokiko Ekintza Plana burutzeko, 2005eko uztaillean lau Mahai Tekniko bildu ziren:

1. Mahai Teknikoa: Jarduera eta Ingurumen Bektoreak. Partaideak:

PARTAIDEAK
Mirari Arruabarrena (Alkatea)
Elena Legarra (Zinegotzia)
M ^a José San Sebastián (Zinegotzia)
Amaia Usandizaga (Udal Arkitekto Teknikoa)
Jose Carrera (Udaltzaina)
Iñaki Zaldua (Talai Plataforma)
Garbiñe Manterola (Herrio Natur Taldea)

2. Mahai Teknikoa: Planeamendua, Mugikortasuna eta Gune Naturalak. Partaideak:

PARTAIDEAK
Eneko Olariaga (Zinegotzia)
Elena Legara (Zinegotzia)
José Carrera (Udaltzaina)

Amaia Usandizaga (Udal Arkitekto Teknikoa)
Ainhoa Fernández (Arkupe)
Cristina Salsamendi (Arkupe)
Emeterio Iribar (Talai)
Garbiñe Manterola (Herrio)
J. Sarasua (C.R.O. Orio)
Joxe Mari Eskizia (Ikastola)
Luis Azkue (Muskuiu-Harria)
Maribel Bruño (Zaragueta Udal Eskola)
Marije Azkue (Zaragueta Udal Eskola)
Pello Orbañano Zabala (Ikastola)

3. Mahai Teknikoa: Ekonomia: Partaideak:

PARTAIDEAK
Mirari Arruabarrena (Alkatea)
Eneko Olariaga (Zinegotzia)
Elena Legarra (Zinegotzia)
Idoia San Sebastián (Merkataritza eta Turismo Teknikaria)
Alazne Goenaga (Talai Plataforma)
Andoni Sarasua (Oliden)
Cristina Salsamendi (Arkupeko ordezkatzalea)
Garbiñe Manterola (Herrio Natur Taldea)
Iñaki Zaldua (Talai Plataforma)

4. Mahai teknikoak: Gizarte Esparrua: Partaideak:

PARTAIDEAK
Mirari Arruabarrena (Alkatea)
Eneko Olariaga (Zinegotzia)
Elena Legarra (Zinegotzia)
Eugenio Cotado (Kirol Zinegotzia)
Javier Zabaleta (Euskara, Hezkuntza eta Kultura Teknikaria)
M ^a Luisa Urbieto (Gizarte Zerbitzuetako)

Teknikaria)
Mikel Izquierdo (Kirol Teknikaria)
Amaia Dorronsoro (Herri Ikastola)
Jose Luis San Sebastián (C.R.O. Orio)
Maider Lopetegui
Marije Azkue (Zaragueta Udal Eskola)
Marije Gz. De Txabarri (Zaragueta Udal Eskola)
Zigor Saizar (Herri Ikastola)

Mahaien funtzioa ezarritako helburuak oinarritzat hartuz, 5 urteko gehieneko epe batean aurrera eramateko asmoa dagoen Ekintzak zehaztea izan da, Planaren helburuak 2010 urteari begira zehaztuz eta lehentasunak ezarriz. Ekintzen inguruan landutako informazioa, (deskribapen fitxak, epeak, aurrekontuak, finantziakzioa, arduradunak...) MUGI sisteman sartuko da epe laburrean. Sistema hau, Tokiko Ekintza Planaren kudeaketa errazteko IHOBek Udalsarea 21eko kide diren udalerrien eskura jarritako udal kudeaketarako informatika tresna da. Aipatzekoa da tresna honek iraunkortasunerako adierazle multzo bat barneratzen duela, zeina Orioko adierazle sisteman aldi baterako sartu ahal izateko aztertu egin beharko den.

Mahaietan metodologia ondokoa izan zen: aipaturiko bileretako partaideek, bakoitzak zegokion gaiaren inguruan, proposaturiko helburuak lortzera zuzendutako ekintzak zehaztu zituzten eta zenbait kasutan baita ezaugarritu ere, programa eta ekintza zehatzak definituz.

Mahai Teknikoen lana amaitutakoan, 2.005 azaroaren 28an, hirugarren Herritarren Partehartze Foro bat burutu zen, non herritarren ekarpenak jaso ziren, Ekintza berrien proposamena edo lehentasunak ezartzeari dagokionean.


4.1. Ekintza Planaren egitura eta edukiak

4.1.1. Egitura

Iraunkortasunerako Tokiko Ekintza Planaren egitura **Ildo Estrategikoen** definizioan oinarritzen da, hauek baitira Planari erantzuna eman nahi dioten helburu estrategikoak.

Ildo estrategiko bakoitzak helburu espezifiko batzuk ditu, **Jarduketa Programa** moduan adierazita hain zuzen ere. Aipatu programak **Ekintza** multzo batean gauzatzen dira, eta ekintza horiek definitzerakoan xede dituzten helburu orokorrak eta bereziak (lerroak eta programak), deskribapena, parte hartzen duten entitateak, koste ekonomikoa eta pertsonala, finantziakzio

iturriak, eta esleitutako lehentasun maila hartzen dira kontuan.



4.1. irudia: Iraunkortasunerako Ekintza Planaren egitura

4.1.2. Ekintzen oinarrizko ezaugarriak

Ekintzak dira Ekintza Plana egituratu eta definitzen duten oinarrizko unitateak, eta horietako bakoitzak ezaugarri batzuk ditu ondorengo orrietan azaltzen den legez.

Ekintza Planerako erabili den Ekintzaren kontzeptua zentzu zabalean ulertu behar da, mota oso desberdineko ekintzak barneratzen baitira; ekintzok ondoren adierazten den moduan sailka daitezke:

- **Kudeaketa**

Iraunkortasunaren bidean aurrera egitea ahalbidetzen duten udal kudeaketako hainbat ekintza.

Adibideak:

- *Motorrek eragindako zarata kontrolatu eta zaindu.*

- **Hezkuntza eta Partehartzea**

Iraunkortasunerako hezkuntzarekin eta herritarren nahiz toki komunitateko aktoreen parte hartzearekin zerikusia duten ekintzak.

Adibideak:

- *Hondakinen ekoizpena eta kudeaketa egokiaren inguruan herritarrak sentikortzeko kanpainak burutu.*

- **Araudia**

Arau berriak sartu edo daudenak aldatzea ingurumenaren gaineko eragina mugatzeko, ingurumenaren kudeaketa hobetzeko edo iraunkortasunaren bidean dauden prozesu eta jarrerak bultzatzeko, ingurumen kostuak edo onurak barnera daitezen.

Adibideak:

- *Lur urbanizaezinean eguzki plakak jartzeko eman daitezkeen eskaera pribatuei erantzuna emateko ordenantza edo araudi bat egin*

- **Zerga arloa**

Iraunkortasunaren aldekoak diren prozesu eta jarrerak hobesteko eta ingurumen kostu eta onurak

barneratzeko zerga arloan aldaketak egitea.

Adibideak:

- *Uraren erabilera iraunkorra sustatzeko ekimenak bultzatu: kontsumo baxuenak sarituz adibidez.*

- **Ekipamendu eta azpiegiturak**

Ekipamenduen erosketa edo azpiegituren exekuzioarekin loturiko ekintzak.

Adibideak:

- *Udalerriko zenbait edukiontzi lurperatu.*
- *Bidegorri Sarea hedatu.*

- **Iraunkortasun irizpideak barneratzea**

Ingurumen irizpideekin bat datozen ekintzak aurrera eramatea udal kudeaketarekin edo tokiko administrazioaren funtzionamenduekin zerikusia duten gaitan.

Adibideak:

- *Udaletxeko erosketa eta kontratazioetan iraunkortasun irizpideak barneratu.*
- *Udal erakundeetan ingurumen kudeaketako irizpideak barneratu: Udal instalazio batean Ekoscana burutu*

- **Azterketak**

Iraunkortasunaren bidean garrantzitsuak diren arlo, prozesu edo arazoak hobeto ezagutu eta balioesteko beharrezko azterketak egitea, edo Ekintza Planak guztiz zehaztu ezin ditzakeen ekintzak definitzea.

Adibideak:

- *Etorkinen beharren inguruko azterketa burutu*
- *Udalerriko interes naturaleko eremuak identifikatu eta zerrendatu.*

EKINTZEN EZAUGARRIAK ADIERAZTEKO ERABILTZEN DIREN KONTZEPTUEN DESKRIBAPENA

KONTZEPTUA	DESKRIBAPENA
Kodea	Ilidoari, programari eta ekintzari dagozkion hiru digituz osaturiko zenbaki kodea.
Ekintza	Ekintzaren zenbaki eta izenburua.
Lerroa	Ekintzari dagokion lerro estrategikoaren zenbaki eta izenburua. Ekintzaren helburu orokorra jasotzen du.
Programa	Ekintzari dagokion jarduketa programaren zenbaki eta izenburua. Ekintzaren helburu espezifikoa jasotzen du.
Deskribapena	Ekintzaren oinarrizko definizio eta karakterizazioa.
Exekuzio/ezarpen epea	Ekintza burutu (ekintza puntuala bada) edo ezartzeko (denboran modu jarraian edo periodikoan luzatuko den ekintza baten kasuan) gehienezko epea.
<i>Motza (0-1 urte)</i>	Exekuzio/ezarpen epea motza dela adierazten du (0-1 urte artean).
<i>Ertaina (1-3 urte)</i>	Exekuzio/ezarpen epea ertaina dela adierazten du (1-3 urte artean).
<i>Luzea (3-5 urte)</i>	Exekuzio/ezarpen epea luzea dela adierazten du (3-5 urte artean).
Maiztasuna	Ekintza burutzeko proposatzen den maiztasuna. Ekintza etengabe egin behar denean " jarraitua " hitzarekin adieraziko da.
Lehentasuna	Hainbat arrazoiengatik proposatutako ekintza lehentasunezkoa ote den adierazten du, funtsezko alderdi batean eragiten duelako, lehenbailehen ezartzea komeni delako edo ekintza hori burutzeak hainbat ondorio onuragarri izango dituelako.

Oharra: Ekintzen ezaugarriek dagozkien datuak osatzeko IHOBek helburu horrekin sortutako "MUGI" euskarri informatikoa erabiliko da.

KONTZEPTUA	DESKRIBAPENA
Aurreikusitako kostua (€)	Ekintza burutu edo ezartzeko aurreikusitako kostua. Pertsonalaren kostuak sartu ala ez erabakiko da, edo beharrezkoa izanez gero, hori erabakitzeke berariazko azterketa bat egingo da.
Erakundeak	Ekintzaren exekuzio eta ezarpenean parte hartuko duten erakundeak.
Finantziarioa	Ekintzaren finantzaketa ekonomikoan parte hartu behar duten edo parte har dezaketen erakundeak.
Adierazleak	Zuzenean edo zeharka ekintzarekin zerikusia duen/duten Iraunkortasunaren Adierazle Sistemako adierazlea edo adierazleak.
Exekuzioaren kontrola	Ekintzaren garatze edo ezartze maila adierazten du: Hasi gabe, hasita, aurreratua, amaitzen, amaitua.
HASI GABE	Ekintzarekin lotutako jarduerarik ez da hasi.
HASITA	Ekintzaren hasierako faseak burutu dira (proiektu fasea, parte hartu behar dutenekin elkarriketak hasia...).
AURRERATUA	Ekintzarekin lotutako jarduerak burutzen ari dira eta dagoeneko hasierako faseak gainditu dira.
AMAITZEN	Kategoria hau bi kasu hauetan erabiliko da: inbertsioak ekintzaren exekuzio kontrolaren urtean amaitzen direnean, edo exekuzio kontrola baino lehen ezartzen hasi den exekuzio periodiko edo jarraituko ekintza bat denean.
AMAITUA	Kategoria hau erabiliko da inbertsioak exekuzio kontrolari dagokiona baino urte bete lehenago amaitu direnean edo ekintza horren bidez konpondu beharreko arazoa desagertu egin denean.

4.1.3. Ekintzen ezaugarri ekonomikoak eta horiek aurrera eramateko ardura

Proposatutako ekintzak eta dagozkien gaiak hain desberdinak izanik, kostuen esleipen motak ere desberdinak dira; eta horri dagokionez, honako kasu berezi hauek hartuko dira kontutan:

- **Udaleko giza baliabideen kostuak bakarrik dituzten ekintzak**

Udalak dauzkan giza baliabideen beharra horren txikia eta puntuala izateagatik denbora kostu handirik ez dutenak, eta beraz, egungo kontratazio ordutegiaren erregimenean aldaketarik eragiten ez dutenak; beste aukera bat izango litzateke beste ekintza baterako kontratatu diren giza baliabideetara jotzea, eta kasu horretan, kontabilitatea bikoitza izango litzateke.

Adibidea: Ikastetxe eta Gizarte Zerbitzuen arteko harremana sistematizatu beharrei erantzuna emateko.

- **Kosturik gabeko ekintzak**

Beren ezaugarriengatik inolako kostu ekonomiko zuzenik ez duten ekintzak, edo oso kostu txikia dutenak.

Adibidea: Iraunkortasun irizpideak barneratu udal kontratazio eta erosketetan.

- **Zehaztu gabekoa**

Euren dimentsioa dela eta proiektu tekniko edo berariazko azterketa ekonomiko bat behar duten ekintzak.

Adibidea: Bidegorri Sarea garatu.

Ekintza bakoitzari lotuta ekintza horren finantzaketan parte har dezakeen erakunde multzo bat agertzen da. Erakundeen inplikazio finantzarioa lortzea da hain zuzen ere Udalak Iraunkortasunaren Ekintza Plana kudeatzeko lortu behar duen oinarritzko alderdietako bat.

4.2. Orioren Iraunkortasunerako Udal Ekintza Plana



LERRO ESTRATEGIKOAK. ORIOKO IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA

LE1. Udalerriaren ekonomia sustapena bultzatu.

LE2. Etxebizitza eta oinarrizko zerbitzuak bermatu.

LE3. Hiri ingurunearen eta ingurumen zerbitzuen hobekuntza.

LE4. Herriko mugikortasun beharrak iraunkortasun irizpideekin ase.

LE5. Herritarrekiko komunikazioa eta herritarren sentikortze eta parte-hartzea hobetu.

LE6. Bioaniztasuna eta paisaia babestu eta udalerriko gune eta elementu esanguratsuak ezagutarazi.

LE7. Iraunkortasun irizpideak txertatu udal kudeaketan.

Z ^a	LE 1	LERRO ESTRATEGIKOA	UDALERRIAREN EKONOMIA SUSTAPENA BULTZATU	
Z ^a	PROGRAMA		Z ^a	EKINTZA
P.1.1	Dibertsifikazioa bilatuz, enpresa ekimen berriak babestu eta sustatzeko programa		E.1.1.1	Arau subsidiarioetan proposatzen den industria gunee berria garatu.
			E.1.1. 2.	Herri barruko industriak industria gunee berrira bideratzen lagundu.
P.1.2	Lehen sektorearen sustapen ekonomikorako eta babeserako programa		E.1.2.1	"Plan Especial de la Ria " ren garapenaren jarraipena egin eta ahal den neurrian bultzatu
P.1.3	Udalerrian Merkataritza sektorea indarberritzeko programa		E.1.3.1	PERCO programa garatu
P.1.4	Udalerrian turismoa sustatu eta garatzeko programa		E.1.4.1	PERCOTUR programa garatu
			E.1.4.2	Done Jakue bidearen balorazio zentroa sortzeko gestioak burutu
			E.1.4.3	Orioko museo historikoaren proiektua diseinatu
P.1.5	Pertsona guztien lanbideratze eta aukera berdintasunerako programa		E.1.5.1	Gizarte zerbitzuetako errefortzu teknikaria mantendu
			E.1.5.2	Aukera Berdintasunerako Plana diseinatu eta garatu

Z ^a	LE 2	LERRO ESTRATEGIKOA	ETXEBIZITZA ETA OINARRIZKO ZERBITZUAK BERMATU	
Z ^a	PROGRAMA		Z ^a	EKINTZA
P2.1	Udalerrian dauden beharren arabera etxebizitza politika garatzeko programa		E.2.1.1	Udala beste administrazioekin koordinatuz etxebizitza alokairua sustatu eta eskaintza bideratu herritarren beharrak asetzeko
			E.2.1.2	Etxebizitza babestuak egin
			E.2.1.3	Udala eta gazteen artean elkarriketak mantendu hauen etxebizitza beharrak ezagutu eta kudeatzeko.
P2.2	Udalerrian dauden beharren arabera, hezkuntza zerbitzuak sortu eta garatzeko programa		E.2.2.1	Haur eskola publikoa sortu
			E.2.2.2	Guraso eskolaren programa sendotu eta garatu
			E.2.2.3	Ikastetxe eta Gizarte Zerbitzuen arteko harremana sistematizatu beharrei erantzuna emateko.
P2.3	Udalerriko osasun baldintzak eta gizarte zerbitzuko baldintzak egokitu eta garatzeko programa		E.2.3.1.	Kirolak osasunarengan dauzkan onurak ezagutzera eman
			E.2.3.2.	Kirola eta osasun zerbitzuen arteko koordinazio bideak garatu
			E.2.3.3.	Gaixotasun eta menpekotasunei aurre egiteko hitzaldien bidezko dibulgazio programa garatu
P2.4	Hirugarren adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzeko programa		E.2.4.1.	Pertsona helduen bizi kalitatea hobetuko luketen hainbat zerbitzuen (janari prestaketa, arropa garbiketa,...) bideragarritasuna aztertu
			E.2.4.2.	Zaharren Babes Lekuan aisialdirako iritzi eta beharrak jaso eta aurrera eramaten ahalegindu.
			E.2.4.3.	Harreman intergenerazionalak landuz, gazte eta adindunen arteko jarduerak antolatu (kontu kontaketak, marrazki erakusketak, kantu zaharrak...).
P2.5	Udalerriko beharretara egokitutako aisialdia, kultura eta kirol zerbitzuak eskaintzeko programa		E.2.5.1	Haur eta gazteen aisialdirako beharrak aztertu
			E.2.5.2	Aisialdirako baliabide eta ekipamenduen egokitasuna eta erabilerak aztertu, beharrezko egokitzapenak egin ahal izateko.
			E.2.5.3	Aisialdirako ekipamenduen erabilera arrazoizkoa izan dadin plangintzak garatu
			E.2.5.4	Aisialdirako behar eta ekipamenduetan oinarritzen den gazte plana garatu
			E.2.5.5	Oriotarren Kirol praktikaren azterketa egin
			E.2.5.6	Zahartuta dauden kirol instalazioak egokitu (frontoia, arraunketa elkarteak)
			E.2.5.7	Udala eta elkartearen arteko elkarlanaren bidez kultur jarduerak ugaritu
			E.2.5.8	Fototeka zerbitzua martxan jarri

Z ^a	LE 2	LERRO ESTRATEGIKOA	ETXEBIZITZA ETA OINARRIZKO ZERBITZUAK BERMATU	
Z ^a	PROGRAMA		Z ^a	EKINTZA
			E.2.5.9	Liburutegiaren erabilera sustatzeko kanpaina egin eta berrikuntzei buruzko informazioa zabaldu (fondoak on-line jarriko dela...)
			E.2.5.10	Herriko gaiei buruzko liburuen argitalpena bultzatu
			E.2.5.11	Kultura, aisialdi, kirola eta abarren arteko programa koordinatu, bateratu eta argitaratu.
			E.2.5.12	Balearen Eguna festa sendotu eta sustatzen jarraitu
			E.2.5.13	Euskal kulturaren oinarritutako ekintzen eskaintza zabaldu, udan batez ere
			E.2.5.14	Nesken Kiroleko Plana gauzatu.
P2.6	Droga menpekotasun arazoei aurre egiteko programa		E.2.6.1	Drogamenpekotasunaren Prebentzioko Planarekin jarraitu
			E.2.6.2	Drogei buruzko azterketan oinarrituz gazte eta gurasoei zuzendutako ekintza programa garatu, guraso eskola ere inplikatu.
P2.7	Giza ongizate beharrei erantzuna emateko programa		E.2.7.1	Gizarte zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruko informazioa zabaldu
			E.2.7.2	Eguneko zentroko plaza kopurua handitu
			E.2.7.3	Apartamentu babestuak sortu
P2.8	Herrian etorkinen integrazioa eta elkarbizitza sustatzeko programa		E.2.8.1.	Etorkinentzat euskara ikastaroekin jarraitu.
			E.2.8.2.	Herrian dauden etorkinekin elkarlanean, ekitaldi multikulturalak antolatu
			E.2.8.3.	Protokolo bat sortu etorkinei harrera eman eta integrazioa errazteko
P2.9	Udalerrian informazio eta ezagupen gizartea ezartzeko programa		E.2.9.1	Kolektibo espezifikoentzat internet eta informatika ikastaroak antolatu (herriko talde eta pertsonekin elkarlanean)
P2.10	Udalerrian euskararen normalizazioa bultzatzeko programa		E.2.10.1	EBPN (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) garatzen jarraitu, programa eta ekintza berriak antolatuz.

Z ^a	LE 3	LERRO ESTRATEGIKOA	HIRI INGURUNEAREN ETA INGURUMEN ZERBITZUEN HOBEKUNTZA	
Z ^a	PROGRAMA		Z ^a	EKINTZA
P3.1	Herrian ur hornikuntza sistema hobetzeko programa		E.3.1.1	Ur eskapeak eta galerak saihesteko fundiziokoak ez diren sare guztiak aldatu, hau da, fibrozementuzkoak, galbanizatu eta polietilenoazkoak (Ur Kontsortzioa)
			E.3.1.2	Benta gunea Ibaiederreko urarekin hornitu (gaur egun zundaketa bitartez hornitzen da) (Ur Kontsortzioa)
			E.3.1.3	Diputazioak ur depositu berri bat eraikitze duen aurreikuspena gauzatu (Aldundia)
P3.2	Herriko ur baliabideak babesteko programa		E.3.2.1	Hondartzako bigarren fasean San Juaneko hartunea lorategien erregadiorako erabili
P3.3	Hondakin uren kudeaketa hobetzeko programa		E.3.3.1	Hondakin urak eta euri ur sareak banatzeko inbertsioak egin (Adb: Pelotari Kalea, Udaletxeko Plaza (Ur Kontsortzioa)
			E.3.3.2	Saneamenduko arketak inpermeabilizatu marea bizitan itsasoko ura sartu ez dadin (Ad: Udaletxeko Plaza, Inca, e.a. (Ur Kontsortzioa)
			E.3.3.3	Fosa septikoak era naturalean kudeatzeko dauden esperientziak baserritarrei ezagutzera eman.
P3.4	Ur kontsumoa murriztu eta erabilera eraginkorra bultzatzeko programa		E.3.4.1	Uraren erabilera eraginkorra sustatzeko kontzientziario kanpainak burutu (herritarrei zuzenduak, ikastetxeekin elkarlanean,...)
P3.5	Udalerriko energia optimizatu eta kontsumoa aurrezteko programa		E.3.5.1	Argiteri publikoan energia eraginkortasuna hobetzeko fluxu erreduktore eta kontsumo baxuko luminariak jartzeko azterketa egin eta kutsadura luminikoa gutxitzeko neurriak hartu.
			E.3.5.2	Udalerriko Eraginkortasun Energetikoaren azterketa egiteko hitzarmena sinatu EVerekin eta eratorritako ekintzak burutu
			E.3.5.3	Kirol instalakuntzen energia erabilera optimizatzeko ikerketa energetikoa egin
			E.3.5.4	Eraginkortasun energetikoaren zertifikazioa eskatu etxebizitzaren sustapen publikoak egiten direnean.
P3.6	Udalerrian energia berriztagarriak erabili eta sustatzeko programa		E.3.6.1	Lur urbanizaezinean eguzki plakak jartzeko eman daitezkeen eskaera pribatuei erantzuna emateko ordenantza edo araudi bat egin.
			E.3.6.2	Etxe edo inguru berriak eraikitzerakoan, energia berriztagarrien erabilpena sustatu udaletik
			E.3.6.3	Eraikin berrietan energia berriztagarrien aldeko apustua egin (kiroldegia handitzerakoan eguzki panelak ezartzea aztertu...)

Z ^a	LE 3	LERRO ESTRATEGIKOA	HIRI INGURUNEAREN ETA INGURUMEN ZERBITZUEN HOBEKUNTZA	
Z ^a	PROGRAMA		Z ^a	EKINTZA
P3.7	Udalerriko hondakinen kudeaketa hobetzeko programa		E.3.7.1	Herritarrak hondakinen ekoizpena eta kudeaketa egokiaren inguruan sentikortzeko kanpainak burutu
			E.3.7.2	Etxeetako basura ontziak egokitzeko programa garatu
			E.3.7.3	Etxeko olioien bilketaren ordutegia eta sistema beharretara egokitu
			E.3.7.4	Txakurren kaken inguruan jabeen zuzendutako kontzientziakzio kanpaina burutu
			E.3.7.5	Txakurren inguruko Ordenantza eguneratu
			E.3.7.6	Konpostajerako proiektu pilotuari buruzko informazioa eskuratu
P.3.8.	Kontsumoa murriztu eta hondakinen sorrera txikitze programa		Ikus Udalaz gaingandiko Ekintza Plana	
P3.9	Hiri ekipamenduak hobetu eta mantentzeko programa		E.3.9.1	Parke berriak egin eta guztien mantentzea bermatu.
			E.3.9.2	Hiri-altzarien eta seinaleen mantentze lanak egin
P3.10	Udalerria birgaitzeko programa		E.3.10.1	Hirigune historikoaren birgaitze programa garatu
P3.11	Aire kutsadura eta zarata murrizteko programa		E.3.11.1	Zarataren inguruko gizabide kanpaina egin.
			E.3.11.2	Udalerriko zarata mapa egin eta dagokion neurri zuzentzaileak hartu.
			E.3.11.3	Motorren zarataren inguruko kontrola areagotu.

Z ^a	LE 4	LERRO ESTRATEGIKOA	HIRIKO MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN ASE	
Z ^a	PROGRAMA		Z ^a	EKINTZA
P4.1	Udallerriaren irisgarritasuna bermatzeko programa		E.4.1.1	Irisgarritasun Plana aurrera eraman eta udal eraikinetan irisgarritasuna bermatu
			E.4.1.2	Itsas- Etxean behar den neurriko igogailua jarri
			E.4.1.3	Irisgarritasun gaien inguruan herritarren sentikortasuna lantzeko aukerak aztertu
P4.2	Garraio zerbitzu publikoa sustatzeko programa.		E.4.2.1.	Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio Sailarekin harremana eta koordinazioa mantendu garraio publikoaren inguruko eskariak (bonobusa, autobus konbinazioen egokitzapena...) bideratu ahal izateko.
P4.3	Garraiobide alternatiboak sustatzeko programa		E.4.3.1.	Oinezkoentzako bideak egoki mantendu
			E.4.3.2.	Bide-hezkuntza saioak antolatu ikastetxeetan, bizikletaren erabilera integratuz
			E.4.3.3	Bidegorri sarea eraiki, lotura eta ibilbide praktikoak planteatuz, eta txirringentzako aparkalekuak ipini (Itsas etxetik hondartzara...)
			E.4.3.4	Herri barruko garraioari buruz egindako azterketa garatu
P4.4	Autoaren eta ibilgailu motordunen erabilera arrazionala bultzatzeko programa		E.4.4.1.	Autoaren erabileraren inguruko kanpainak burutu (gaizki aparkatzea...).
			E.4.4.2	Aparkaleku berriak eraiki.
P4.5	Bide sarearen hobekuntza gauzatzeko programa		E.4.5.1.	Seinaleztapena hobetu.
			E.4.5.2.	Orioko saihezbidea gauzatzeko gestioak egin dagokion departamentuan
			E.4.5.3.	Herriko sarrera-irteerak hobetu (Txanka bidea).
P4.6	Herriko mugikortasuna hobetzeko programa		E.4.6.1.	Herriko Mugikortasun Plana diseinatu

Z^a	LE 5	LERRO ESTRATEGIKOA	HERRITARREKIKO KOMUNIKAZIOA HERRITARREN SENTIKORTZE ETA PARTE HARTZEA HOBETU	
Z^a	PROGRAMA		Z^a	EKINTZA
P5.1	Udalak herritarrekiko duen komunikazioa hobetzeko programa		E.5.1.1	Agenda 21en inguruko komunikazio ekintzak burutu
			E.5.1.2	Udalaren web orriaren funtzionaltasuna hobetu, zerbitzu eskaintza handituz eta hobetuz
			E.5.1.3	Udaletxeko komunikazioa koordinatuko duen arduradun bat izendatu
			E.5.1.4	Udala eta herritarren arteko komunikazioa hobetzeko bide berriak aztertu eta martxan jarri (web orria...)
P5.2	Herritarrak udalerriko ekimenetan duten parte-hartzea areagotzeko programa		E.5.2.1.	Eskolako Agenda 21 garatu
			E.5.2.2.	Herritar parte-hartzeari jarraipena eman
			E.5.2.3	Aurrekontuen erabakitan parte hartzea sustatzen duten esperientziak aztertu
P5.3	Herritarren iraunkortasun sentikortasuna bultzatzeko programa		E.5.3.1.	Iraunkortasunarekin zerikusia duten gaiei buruzko kontzientziak kanpainak gauzatu eta formazioa eskaini

Z^a	LE 6	LERRO ESTRATEGIKOA	BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA BABESTU ETA UDALERRIKO GUNE ETA ELEMENTU ESANGURATSUAK EZAGUTARAZI	
Z^a	PROGRAMA		Z^a	EKINTZA
P6.1	Bioaniztasuna eta paisaia babestu, berreskuratu eta hobetzeko programa		E.6.1.1	Herriko babes bereziko guneen eta intereseko naturguneen mantentzea bermatu iraunkortasun irizpideak erabiliz
			E.6.1.2	Herriko gune baliotsuak identifikatzeko azterketa bat burutu, baldintza egokietan mantendu eta erabilerarako aukerak aztertu.
			E.6.1.3	Oribazar hondartzaren ingurumen berreskurapenerako proiektua aurrera eraman
			E.6.1.4	Oriaren itsasadarraren berreskurapen proiektua aurrera eraman
P6.2	Udalerriko gune eta elementu naturalak ezagutu eta ezagutarazteko programa		E.6.2.1.	Herriko gune interesgarriak identifikatu, zerrendatu eta ezagutarazi
P6.3	Ondare historiko, etnografiko eta arkitektonikoa ezagutzeko, babesteko ,berreskuratzeko eta ezagutarazteko programa		E.6.3.1.	Udalerriko ondare historiko, etnografiko eta arkitektonikoa ezagutarazten jarraitu

Z ^a	LE 7	LERRO ESTRATEGIKOA	IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK TXERTATU UDAL KUDEAKETAN	
Z ^a	PROGRAMA		Z ^a	EKINTZA
P7.1	Udalerriko jarduera ekonomikoen kontrola burutzeko programa		E.7.1.1.	Herriko enpresetan ingurumen kudeaketa ziurtagirien ezarpena sustatzeko informazioa eskaini
P7.2	Udalaren jardueran iraunkortasun irizpideak txertatzeko programa		E.7.2.1.	Ekoscanan burutu Udala eraikin batean
			E.7.2.2.	Udalaren kontratazioetan eta erosketetan iraunkortasun irizpideak txertatu.
			E.7.2.3.	Arau Subsidiarioak garatzerakoan iraunkortasun irizpideak kontuan hartu
			E.7.2.4.	Lurzoru-kalitate kontzeptua planeamenduan sartu
P7.3	Udaleko langileriaren prestakuntzarako programa		E.7.3.1.	Udal kudeaketa alorrean arduradun politikoei eta udal langileei iraunkortasunari buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioa eskaini

Ikus deskribapen fitxen dokumentua

4.3. Udalaz Gaindiko Ekintza Plana



Udalaz Gaiindiko Ekintza Planari dagokionez, Orioren kasuan, ondorengo erakundeek proposaturiko ekintzek osatzen dute:

- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
- Urola Kostako Udal Elkartea
- URKOME (Landa Garapeneko Elkartea)

Ekintza sorta honek, hortaz, Udal Ekintza Plana osatuko du.

Udalaz gaiindiko entitateek garatu beharreko ekintzez gain, aholkularitzak Udaltalde 21 Urola Kosta osatzen duten herriek eskualde mailan gara ditzaketen beste zenbait ekintza proposatu ditu.

Z ^a	LE 1	LERRO ESTRATEGIKOA	UDALERRIAREN EKONOMIA SUSTAPENA BULTZATU	
Z ^a	PROGRAMA		Z ^a	EKINTZA
P.1.1	Dibertsifikazioa bilatuz, enpresa ekimen berriak babestu eta sustatzeko programa		E.1.1.1	Enpresagune zerbitzuak garatzen dituen arloak zabaldu eta indartu (UKUE)
P.1.2	Lehen sektorearen sustapen ekonomikorako eta babeserako programa		E.1.2.1	Lana elkarrekin egiteak oro har eta nekazaritza kooperatibak sortzeak bereziki dakartzan onurei buruz baserritarrak sentsibilizatu (URKOME)
			E.1.2.2	AGROALDEAK bultzatu eskualdean (URKOME)
			E.1.2.3	Sektorea indartzeko formazioa bideratu profesionalek dituzten beharretara egokituz (URKOME)
			E.1.2.4	Ordezkapen zerbitzua (gaixotasuna, oporreatatik,...) zabaltzeko aukerak aztertu (URKOME)
			E.1.2.5	Ekoizpen kostuak gutxitzea, produktuen kalitatea handitzea, ingurumena zaintzea, abereen ongizate eta higiene baldintzak hobetzea, teknologia berrikuntza eta landa eremuko jardueren dibertsifikaziora zuzenduriko inbertsioak sustatu nekazaritzako ustategietan (Foru Aldundiko Landa Garapen Saila)
			E.1.2.6	Gazteak nekazaritzako ustategiaren titular bezala eta jarduera nagusia hau delarik ezartzeko saritu, itzuli beharrik gabeko diru laguntzen bitartez eta hobaridun maileguen bitartez. (Foru Aldundiko Landa Garapen Saila)
			E.1.2.7	Nekazaritza ekologikoko ustiapen proiektuei laguntza eskaini (URKOME?)
			E.1.2.8	Baztertu edo erabiltzen ez diren landa lurak identifikatu eta erabiltzeko aukerak aztertu (lur-banku bat sortu, adibidez) (URKOME)
P.1.3	Udalerrian Merkataritza sektorea indarberritzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P.1.4	Udalerrian turismoa sustatu eta garatzeko programa		E.1.4.1	Turismo informazio puntuetan landa eremuko informazioa ematen dela bermatu (URKOME)
			E.1.4.2	Turismoari buruzko web orri bat gauzatzearen bideragarritasuna aztertu eta bere kasuan web orria abian jarri (UKUE + udala)
			E.1.4.3	Mendi ibilbideen programa bat eskaini eta bultzatu (UKUE + udala)
			E.1.4.4	Santiagoko biderako egiten ari diren seinaleztapenekin amaitu eta bide hori dinamizatzeko egin ahalko diren ekintzak zein diren aztertu. (UKUE + udala)

Z ^a	LE 1	LERRO ESTRATEGIKOA	UDALERRIAREN EKONOMIA SUSTAPENA BULTZATU	
Z ^a	PROGRAMA		Z ^a	EKINTZA
			E.1.4.5.	Landa inguruneko zenbait puntu seinaleztatu edo informazio puntuak ipini:panelak (URKOME)
			E.1.4.6	Nekazalturismoa eta Landa etxeak sustatu (Foru Aldundiko Landa Garapen Saila)
P.1.5	Pertsona guztien lanbideratze eta aukera berdintasunerako programa		E.1.5.1	Erabiltzaileari banan banako arreta eskaini, elkarrizketa bidez, eta laguntza eta tresnak eskura jarri laneratzeko aukera gehiago izan ditzaten (UKUE)
			E.1.5.2	Lan eskaintzei eta prestakuntza eskaintzei buruz bulegoan eskura jartzen den informazioa eguneratuta eskaini (UKUE)
			E.1.5.3	Lan bitarteko zerbitzua eskaini (UKUE)
			E.1.5.4	Lanbide hastapeneko programak garatu (UKUE)
			E.1.5.5	Lanerako prestakuntza ikastaroak antolatu soldadura arloan (UKUE)
			E.1.5.6	Aukera berdintasunaren aldeko programak garatu (UKUE)

Z ^a	LE 2	LERRO ESTRATEGIKOA	ETXEBIZITZA ETA OINARRIZKO ZERBITZUAK BERMATU	
Z ^a	PROGRAMA		Z ^a	EKINTZA
P2.1	Udalerrian dauden beharren arabeko etxebizitza politika garatzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P2.2	Udalerrian dauden beharren arabera, hezkuntza zerbitzuak sortu eta garatzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P2.3	Udalerriko osasun baldintzak eta gizarte zerbitzuko baldintzak egokitu eta garatzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P2.4	Hirugarren adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzeko programa		E.2.4.1	Gizarte zerbitzuen beharrea dauden baina eskatzen ez dutenen (eskari ezkutua) beharra intuitzen denez, azterketa bat egin (URKOME)
P2.5	Udalerriko beharretara egokitutako aisialdia, kultura eta kirol zerbitzuak eskaintzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P2.6	Droga menpekotasun arazoei aurre egiteko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P2.7	Giza ongizate beharrei erantzuna eta gizarteratzen laguntza emateko programa		E.2.7.1	Baztertua gelditzeko arriskuan dauden pertsonen prestakuntza eskaini eta laneratzeko lagundu AUZOLAN programaren bitartez (UKUE)
			E.2.7.2	Baztertuak gelditzeko arriskuan dauden pertsonen eta bere bizikidetza unitateko kideen beharrak atzeman eta diagnostikatu. Diagnostikoa abiapuntu hartuta, gizarteratzeko ibilbidea zehazten da erabiltzaileekin (UKUE)
			E.2.7.3.	Jendartean zabaldu eta funtzionatzen duen herrietan bono-taxi zerbitzua hobetu (URKOME)

Z ^a	LE 2	LERRO ESTRATEGIKOA	ETXEBIZITZA ETA OINARRIZKO ZERBITZUAK BERMATU	
Z ^a	PROGRAMA		Z ^a	EKINTZA
P2.8	Herrian etorkinen integrazioa eta elkarbizitza sustatzeko programa		E.2.8.1.	Etorkinen beharren inguruko azterketa burutu (UKUE)
P2.9	Udalerrian informazio eta ezagupen gizartea ezartzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P2.10	Udalerrian euskararen normalizazioa bultzatzeko programa		E.2.10.1	Ikastetxeetako eskola-kiroleko monitoreentzako ikastaroa antolatu (UKUE: Euskara Zerbitzua))
			E.2.10.2	Saltoka euskarazko aerobik maratoia antolatu (UKUE: Euskara Zerbitzua)
			E.2.10.3	Kirol elkarten euskara sustatzeko programa gauzatu (UKUE: Euskara Zerbitzua)
			E.2.10.4	Lanera! Urola Kostako enpresak euskalduntzeko programa gauzatu (UKUE: Euskara Zerbitzua)
			E.2.10.5	On-line euskaltegia antolatu (UKUE: Euskara Zerbitzua)
			E.2.10.6	Euskarazko produktuen katalogo bat egin (UKUE: Euskara Zerbitzua)
			E.2.10.7	Aisialdirako begiraleen prestakuntza ikastaroa egiten jarraitu (UKUE: Euskara Zerbitzua)
			E.2.10.8	Merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilpena bultzatu (UKUE: Euskara Zerbitzua)

Z ^a	LE 3	LERRO ESTRATEGIKOA	HIRI INGURUNEAREN ETA INGURUMEN ZERBITZUEN HOBEKUNTZA	
Z ^a	PROGRAMA		Z ^a	EKINTZA
P3.1	Herrian ur hornikuntza sistema hobetzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P3.2	Herriko ur baliabideak babesteko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P3.3	Hondakin uren kudeaketa hobetzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P3.4	Ur kontsumoa murriztu eta erabilera eraginkorra bultzatzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P3.5	Udalerriko energia optimizatu eta kontsumoa aurrezteko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P3.6	Udalerrian energia berriztagarriak erabili eta sustatzeko programa		E.3.6.1.	Baserri eta nekazaritza ustategietan eguzki plaken ezarpena sustatu . (Foru Aldundiko Landa Garapen Saila)
P3.7	Udalerriko hondakinen kudeaketa hobetzeko programa		E.3.7.1	Indarrean dauden gaikako bilketa zerbitzuak optimizatu (UKUE)
			E.3.7.2	Garbigunetan jasotako hondakinen berreskuratze indizea handitu (UKUE)
			E.3.7.3	Urteta zaborteziaren isur ahalmena handitu eta egungo legedia bete (UKUE)
			E.3.7.4	Eskualdeko herritarrei eta enpresei banan banako aholkularitza eskaini hondakinen kudeaketari buruz (UKUE)
			E.3.7.5	Silo plastikoak biltzeko zerbitzua mantendu (URKOME)
			E.3.7.6	Lehen sektoreari zuzenduriko sentikortze kanpainak, nekazaritzako ustategietan hondakinen kudeaketa eta eliminazio egokiari buruz (minden arazketa, simaurra ongarri moduan erabiltzea, fito eta zoosanitarioen kudeaketa egokia, hondakin ez organikoen birziklapena, etab.) (GFA)
P.3.8.	Kontsumoa murriztu eta hondakinen sorrera txikitze programa		E.3.8.1	Urola kostak eskaintzen dituen zerbitzuak nahiz zerbitzu berriak ezagutarazi eta sustatu (UKUE)
P3.9	Hiri ekipamenduak hobetu eta mantentzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P3.10	Udalerria birgaitzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	

Z^a	LE 3	LERRO ESTRATEGIKOA	HIRI INGURUNEAREN ETA INGURUMEN ZERBITZUEN HOBEKUNTZA	
Z^a	PROGRAMA		Z^a	EKINTZA
P3.11	Aire kutsadura eta zarata murrizteko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	

Z ^a	LE 4	LERRO ESTRATEGIKOA	HIRIKO MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN ASE	
Z ^a	PROGRAMA		Z ^a	EKINTZA
P4.1	Udalerriaren irisgarritasuna bermatzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P4.2	Garraio zerbitzu publikoa sustatzeko programa.		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P4.3	Garraiobide alternatiboak sustatzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P4.4	Autoaren eta ibilgailu motordunen erabilera arrazionala bultzatzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P4.5	Bide sarearen hobekuntza gauzatzeko programa	E.4.5.1.	Baserri bideen Plan Orokor bat egin 15-20 urtetako aurreikuspenarekin (URKOME)	
		E.4.5.2.	Herri eta baserri bideen garbiketa egin (URKOME)	
P4.6	Herriko mugikortasuna hobetzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	

Z ^a	LE 5	LERRO ESTRATEGIKOA	HERRITARREKIKO KOMUNIKAZIOA HERRITARREN SENTIKORTZE ETA PARTE HARTZEA HOBETU
Z ^a	PROGRAMA		Z ^a EKINTZA
P5.1	Udalak herritarrekiko duen komunikazioa hobetzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana
P5.2	Herritarrek udalerriko ekimenetan duten parte-hartzea areagotzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana
P5.3	Herritarren iraunkortasun sentikortasuna bultzatzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana

Z^a	LE 6	LERRO ESTRATEGIKOA	BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA BABESTU ETA UDALERRIKO GUNE ETA ELEMENTU ESANGURATSUAK EZAGUTARAZI
Z^a	PROGRAMA		Z^a EKINTZA
P6.1	Bioaniztasuna eta paisaia babestu, berreskuratu eta hobetzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana
P6.2	Udalerriko gune eta elementu naturalak ezagutu eta ezagutarazteko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana
P6.3	Ondare historiko, etnografiko eta arkitektonikoa ezagutzeko, babesteko ,berreskuratzeko eta ezagutarazteko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana

Z ^a	LE 7	LERRO ESTRATEGIKOA	IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK TXERTATU UDAL KUDEAKETAN	
Z ^a	PROGRAMA		Z ^a	EKINTZA
P7.1	Udalerriko jarduera ekonomikoen kontrola burutzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P7.2	Udalaren jardueran iraunkortasun irizpideak txertatzeko programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	
P7.3	Udaleko langileriaren prestakuntzarako programa		Ikus Udaleko Ekintza Plana	

Ikus deskribapen fitxen dokumentua

5. JARRAIPEN PLANA

5.1. Aurkezpena

Jarraipen Planaren helburua Iraunkortasunerako Ekintza Planaren aplikazio prozesuarentzako monitorizazio tresnak zehaztea da, proposamenak zer neurritan bete diren eta zer nolako eraginkortasuna duten aztertuz. Honela, Ekintza Plana sortzen diren baldintza eta egoera berrietara egokituz joan ahal izango da, udalerriaren ingurumen eta sozioekonomia testuinguruaren bilakaerara moldatzeko aukera izanez. Jarraipen Plana Iraunkortasunerako Adierazle Sistema batean oinarritzen da; adierazle hauei esker udalerriaren egoera eta bilakaera karakterizatu eta udalerriko eragileek egoera hobetu eta iraunkortasunaren bidean aurrera egiteko eman ditzaketen erantzunak adieraz daitezke zenbaki bidez.

Jarraipen Planak izaera teknikoa du, udal teknikariei informazioa emateko helburua duelarik; baina aldi berean, komunikazio izaera ere badu, herritarrek prozesuaren jarraipena egin ahal izan dezaten

5.2. Iraunkortasunerako adierazle sistema

5.2.1. Adierazleen ezaugarri eta helburuak

Aztertzen ari diren arlo ezberdinetan ingurumen eraginak neurtu ahal izateko beharrezkoa da Iraunkortasun Adierazleak definitzea.

Adierazle sistema urtebeteko maiztasunarekin lortzen den parametro multzoa da. Beren helburu nagusia udalerriko ingurumenaren hobekuntza prozesuan funtsezkoak diren aspektuen bilakaeraren eta garapen iraunkorreko ereduetaزانzko bidearen jarraipena egitea da. Era berean, parametro hauek beste helburu bat ere badute: herritarrei aipaturiko arloetan gertatzen ari diren aldaketen berri ematea eta Iraunkortasunerako Ekintza Planaren ezarpena bultzatzea.

5.2.2. Aukeraketa irizpideak

Adierazle gisa aukeraturiko parametroek ondoko ezaugarriak bete behar dituzte:

SOILTASUNA: Nori zuzendua dagoen kontutan hartuta, informazioa modu errazean ulertzeko moduan aurkeztu behar da.

BALIASUNA: Adierazleak egiaztagarria eta errepikagarria izan behar du, metodo zientifiko baten bidez neurtua. Zehaztasun metodologiko bat izan behar da adierazlea

sinesgarria izan dadin bai jakitunentzat baita hiritarrentzat ere.

DENBORAN ZEHAR DATU MULTZOAK IZATEA. Adierazlea martxan jarri aurreko datuak izan behar dira, epe luzera joera islatuko dutelarik. Etorkizunean maiztasun jakin batekin datuek jasotzen jarraitzeko aukera eman behar du adierazleak.

EKONOMIKOKI ZILEGIA IZAN BEHAR DU DATUEN. Datuen lorpenak ekonomikoki zilegi izan behar du orain eta etorkizunean

DATUAK BATERATZEKO AUKERA. Beste adierazle batzuk biltzen dituzten adierazleak aukeratzea komenigarria da. Adibidez: Aire kalitate txarreko egun portzentaia. Kalifikazio hau emateko adierazle atmosferiko guztiak inplikatzeko ditu.

SENTIKORTASUNA. Adierazlea sisteman aldaketa txiki bat sumatzeko gai ote den kontutan hartu behar da, edo aldaketa handiak behar dituen sumatu ahal izateko.

FIDAGARRITASUNA. Adierazle baten neurketa ezberdinak errepikatzean edo neurriak organismo ezberdinek hartzekotan, emaitza berdina lortu behar da

EKINTZA PLANEKIN LOTURA. Adierazleak lotura erraza izan behar du bai jakitun baita hiritarren interpretazioaren ondoren aurrera eramango diren ekintza planekin

5.2.3. Adierazle sistemak

Hainbat erreferentzi daude Iraunkortasun Adierazleei buruz Europako hiri eta organismo ezberdinek erabiltzen dituztenak: OCDE, OMS, UNCHS (Habitat),EUROSTAT, Europako Ingurumen Agentzia, berriki eta Europako Tokiko Agenda 21eko prozesuentzat modu espezifikoan Hiri eta Herri Iraunkorren Kanpainatik bultzatzen den Europar Adierazle Komunen Sistema.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak EAEko udalerri orotarako baliagarriak diren iraunkortasunerako tokiko 12 adierazle komun proposatzen ditu. Adierazleon helburua udalerri ezberdinetako Tokiko Agenda 21 prozesuaren eboluzioaren konparaketa burutu ahal izatea da.

5.2.4. Proposaturiko adierazle sistema

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak tokiko iraunkortasun prozesuak neurtzeko duen adierazle sistema jarraitzea proposatzen da. Lehendabiziko 12 adierazleak komunak dira Udalentzat eta bere kalkulua derrigorrezkoa da. Ondorengo 20 adierazleak aldiz, Eusko Jaurlaritzatik proposatzen diren adierazle espezifikoaren zerrenda da,

hauen kalkulua Udalak berak erabaki beharko du. **(Ikus 3. eranskina. Adierazleak kalkulatzeko fitxak).**

EUSKO JAURLARITZAKO LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILEKO ADIERAZLEAK
1. Adierazlea: Ereku publiko irekien eta zerbitzuen erabilgarritasuna udalerrian
2. Adierazlea: Lurzoruaren erabilera iraunkorra
3. Adierazlea: Tokiko mugikortasuna eta bidaiarien garraioa
4 Adierazlea: Garraio-azpiegituretan erabilitako udal-azaleraren banaketa
5. Adierazlea: Ur-kontsumoa
6. Adierazlea: Energia-kontsumoa
7. Adierazlea: Hondakinen sorrera eta kudeaketa
8. Adierazlea: Hondakinak uretara isurtzea
9. Adierazlea: Ingurumen-kudeaketako sistemak udalerrian
10. Adierazlea: Pobrezia eta gizarte-bazterketa
11. Adierazlea: Langabezia-tasa
12. Adierazlea: Herritarrek udal-komunitatearekin dute gogobetetze-maila

EUSKO JAURLARITZAKO LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILEKO ADIERAZLEAK. ADIERAZLE BEREZIEN PROPOSAMENA
1. Adierazlea: Hiriko airearen kalitatea
2. Adierazlea: Ingurumen-heziketa
3. Adierazlea: Energiaren eraginkortasuna etxebizitzetan
4. Adierazlea: Jasangarritasuna sustatzen duten produktuen kontsumoa
5. Adierazlea: Ingurumeneko udal gastuak
6. Adierazlea: Aztarna ekologikoa
7. Adierazlea: Zirkulazioaren intentsitatea oinarrizko bide-sarean
8. Adierazlea: Parke mugikorra
9. Adierazlea: Hiriko zarata
10. Adierazlea: Landatutako eta botatako basoen azalera
11. Adierazlea: Araztutako uren erabilera
12. Adierazlea: Energia berriztagarrien erabilera
13. Adierazlea: Euskararen ezagutza
14. Adierazlea: Gizarte-politikako udal gastuak
15. Adierazlea: Nazioarteko elkartasun jardueretan udalak duen esku-hartzea


16. Adierazlea: Biztanleriaren zahartze indizea
17. Adierazlea: Etorkinen integrazioa
18. Adierazlea: Herritarren parte-hartzea
19. Adierazlea: Herritarren segurtasuna
20. Adierazlea: Bide-segurtasuna

6. JARRAIPENA ETA PARTE-HARTZEA

Aalborgeko Gutuneko testuak berak Tokiko Agenda 21en garapenean komunitateko sektore guztiekin lan egitearen konpromisoa azpimarratzen du – hiritarrak, enpresak, interesdun taldea-, hiritarren eta hauen partaidetzaren beharrezko protagonismoa ziurtatuz.

Orioko Tokiko Agenda 21-eko Programa ez da gure Udal Administrazioen berezko funtzioetara mugatzen. Oriotar guztiak inplikatu nahi ditu, pentsatu, erabaki eta jarduteko eran aldaketak sustatuz, hau da, denon artean, herritar, udal teknikari eta udal ordezkari politiko artean egiten joan behar den iraunkortasunerako kultura aldaketa sustatuz.

Guzti honegatik, prozesuaren jarraipenerako eredu bat proposatzen da ondoren, bai udal kudeaketa organoek eta baita herritar partehartzeak eginga ere, hurrengo irudian azaltzen da eskema honen adierazpen grafikoa:



Eskema honen arabera, prozesuaren jarraipena urtero egingo litzateke, ondorengo irizpideekin:

Prozesua Gobernu-batzordearen Ekintza Planaren onarpenarekin hasten da.

Hemendik aurrera, udalaren jarraipena udal batzorde (Iraunkortasun Batzordea) baten bitartez izango da, gutxienez urtean hiru aldiz bilduko dena. Herritarren jarraipena berriz, herritar parte-hartze foro baten bidez egingo da, urtean bitan deituko dena, gutxienez.

Lehenengo bilera batean, jarraipen batzordeak Planaren abiaraztea aztertzen du, ekintzen gauzatzearen arduradunek abian jarri dituztela edo abiaraztea planifikatu dutela ziurtatuz.

Jarraian, herritar parte-hartze foroaren lehenengo bileran, ekin diren ekintzei buruz informatzen da, eta herritarrek hauen jarraipenaren inguruan dituzten kezkak jasotzen dira, beharrezkoa ikusten denean herritarrekin batzorde mistoak sortzeko aukera emanez gai bereziki nabarmenetan.

Bigarren bilera batean, jarraipen batzordeak Ekintza Planaren gauzatzearen aurrerapenak aztertzen ditu, Planerako aurreikusitako jarraipenaren arabera. Jarraipenaren emaitzaren arabera, batzordea berak, edo gobernu-batzordeari proposatuko dio, egokitzapen ekintzak martxan jartzea beharrezkoa baldin bada.

Honen ondoren, foroaren urteko bigarren bilera ospatuko da, Planaren betetze mailaz informatuko delarik eta herritarren ekarpenak jasoko dira Ekintza Planaren urteroko berrikuspena egiteko.

Azkenik, jarraipen batzordearen azken bileran, hurrengo urterako Ekintza Plana gauzatzeko programa proposatuko dio gobernu-batzordeari, hasitako ekintzen betetze maila eta teknikari, politikari eta herritar forotan proposaturiko ekintza berrietan oinarrituz.

Jarraipen prozesuan, lau urtetik behin, diagnosi eta helburuen berrikuspen bat sartzea proposatzen da, Ekintza Plana egoera berrietara edota sortzen diren irizpide berrietara egokitu ahal izateko.

(Ikus 2. Eranskina: Aholku Kontseiluaren Araudi eredua)

7. TOKIKO AGENDA 21EN EKINTZEN KUANTIFIKAZIO EKONOMIKOA

Tokiko Agenda 21-ean proposaturiko Ekintzak ez dira asmo deklarazio soilak; ostera, batez ere Orioko Udal Administrazioaren jardura konpromiso bat suposatzen dute. Konpromiso hau, landutako Ekintza Planaren indarraldian zehar Ekintzak bideragarri bihurtzen dituzten landu eta onartutako aurrekontuen bidez zehaztua dago. Hala ere, zenbait ekintzari dagokionez gutxi gorabeherako kostuak jasotzen dira soilik, eta hauek exekuzio prozesuan zehar egokitu beharko dira.

Ekintzak kuantifikatu eta aurrekontu bat esleitzeari dagokionez Ekintza mota ezberdinak hartu behar dira kontutan:

- Zenbait ekintza beste erakunde batzuk burutu behar dituzte (eta diru-laguntzak eman): Gipuzkoako Foru Aldundia edo Eusko Jaurlaritza.
- Orioko Udalak parte hartzen duen beste zenbait erakundek burutu eta diruz lagundu beharreko ekintzak. Urola Kostako Udal Elkastea kasu.
- Udaletxeak diruz lagundutako ekintzak, ekintza beraren garapenaren araberakoa izanagatik eta kuantifikatzeko zailak direnak. Hauen aurrekontua aurrerago zehaztuko da.
- Udaletxearen dirulaguntza jasoko duten ekintzak, jadanik kuantifikatuak izan direnak.
- Udal zerbitzuen kudeaketaren baitan integratzen diren ekintza kostuak (0 €-ko kostuarekin kuantifikatzen dira).

Orioko Udalak, bere eskuduntzei dagokien legez, berak agindu eta diruz laguntzen dituen ekintzetan soilik hartuko du erantzukizun ekonomikoa, eta baita ere bera partaide den instituzioek egiten dituztenetan, finantzaketa eta erantzukizunaren aldetik berea den atalari dagokionean. Herrian eragina edukirik, beste erakunde batzuk burutu eta diruz lagundu behar dituzten ekintzei dagokienez, Udaletxeak sostengua eskaini eta jarraipena egingo du.

Gogoan eduki behar da, Ekintza Planean jasotako ekintzen artean Plan hau onartu aurretik jadanik martxan jarrita dauden ekintzak ere badirela, eta beraz, Tokiko Agenda 21 onartu aurretiko urteetan kostuak ere izan dituztela.

Bukatzeko, nabarmendu beharra dago kasu askotan agertzen diren balioek gerturapenak besterik ez direla ondorengo arrazoiengatik:

- Balioak ez dira aurrekontu errealetan oinarrituz ezarri, estimaziotan oinarrituz baizik
- Mahaietan parte hartu duten teknikariek ezin izan dituzte ekintza guztien aurrekontuak kalkulatu
- Zenbait ekintzetan kostua urteko ebaluatu da eta urte bakarra hartu da kontutan (emaitzen arabera ondorengo urteak gehitu beharko lirateke)

Ekintzen deskribapen fitxetan (ikus 1. eranskina), ekintza bakoitzari dagokion aurrekontua jarri da, ezagutzen den kasuetan.

1 ERANSKINA: HERRITAR PARTE HARTZE FOROEN AKTAK

ORIOKO TOKIKO AGENDA 21

ORIOKO 1. HERRITAR PARTE HARTZE FOROA

PARTAI DEAK	UDALETXEA/ENPRESA
Maikar Iurramendi	Zaragueta Eskola
Luis M Azkue	Zaragueta Eskola
Marije Gz de Txabarri	Zaragueta Eskola
Marije Azkue	Zaragueta Eskola
Bixente Uranga	Herritarra
P. Udabe	Herritarra
Eneritz Odriozola	Karkara Elkarte
Mikel Iribar	Talai-mendi
Fernando Marti	Herritarra
Ines Zinkunegi	Herritarra
M.A. Albeniz	Herritarra
Joseba A. Arrizabalaga	EA
Jon Agirresarobe	Errikotxia
Itziar Barrenetxea	Harribil dantza taldea
Iñaki Agote	Turismo eta Zerbitzua
Iñaki Iturain	Herritarra
Enara Rabino	Herrio
Daniel Barrenetxea	Talai-mendi
Kandido	Etixerat
Begoña Rivero	Herritarra
M ^º Jose Eizaguirre	Herritarra
Garbiñe Alonso	Herritarra
Emeterio Iribar	Herritarra
Iñaki Sarasua	Herritarra
Patxi Sarasua	Herritarra
Haritz Arostegi	Herritarra
Andoni Alkorta	Herritarra
Maribel Bruño	Zaragueta Eskola
J.I Peña	Herritarra
Amaia San Sebastian	Dendaria
Zigor Saizar	Orioko Herri Eskola
Pello Orbaños	Ikastola
J. F. Lukas	Ikastola
Leandro Azkue	Orioko Arrantzaleen Kofradia
Ruth Echeverria	Herritarra
Ana Miren Fdez	Herritarra
Beñat Solabarrieta	Txurumuski
Ainhoa Egibar	Herritarra
Santos Carretero	Herritarra
Argiñe Azkarate	Arkupe
Pilar Arruti	Arkupe

PARTAI DEAK		UDALETXEA/ENPRESA			
Amaia Urkola		Herrio Natur Taldea			
Cristina Salsamendi		Arkupe			
Jose Luis San Sebastian		Orio A.E.			
Fernando Aranbarri		Herritarra			
Florentino Arrizabalaga		Herritarra			
Martxiel Genoba		Herritarra			
Pat Cowie		Herritarra			
Arantza Alkorta		Herritarra			
Alazne Goenaga		Udala			
Eugenio Cotado		Udala			
Noemi Ostolaza		Udala			
Eneko Olariaga		Udala			
Mirari Arruabarrena		Udala			
Juan M. Apaolaza		Haizea Ikerketa, S.L			
Arantxa Zubizarreta		Haizea Ikerketa, S.L			
Elixabete Zuriarrain		Urola	Kostako	Udaltalde	21eko
DATA		2004ko abenduak 1			
		koordinatzailea			

Bileran ezinezkoa izan zen bertaratutako guztien izenak jasotzea

BILERAREN HASIERA

Aholkularitzako ordezkariak eskerrak eta ongietorria ematen dizkie Forora inguraturiko partehartzaile guztiei. Proiektuaren egoeraren aurkezpen labur bat egiten du eta horren ostean Foroaren helburua zein den adierazten du.

HELBURUA

Diagnostikoaren gaiarekiko Foroan bildutakoen pertzepzioak jasotzea

IRISMENA:

Diagnostikoaren gaiak lau blokeetan aurkezten dira:

1. Jarduera ekonomiakoen ingurumen eragina eta mugikortasuna
2. Ingurumen bektoreak
3. Sozioekonomia
4. Oria hezegunearen baliabideen azterketa

METODOLOGIA:

1. Orain arte jasotako pertzepzioak irakurtzen dira
2. Bertaratutakoak, aurkeztutako dokumentazioan oinarrituz, balorazioa egin pertzepzioa adierazi
3. Norberak lekarkeena

Ondorengo tauletan Foroko partaideek Diagnosiaren inguruan egin zituzten ekarpenak jasotze dira.

Honez gain, bertaratutakoek Orioko Tokiko Agenda 21eko prozesuaren metodologia adostea eskatu zuten, parte hartzeari dagokionean batik bat. Honen ondorioz, herriko elkarteekin bilera bat antolatu zen, ondorengo faseetarako parte hartzearen metodologia adosteko asmoz

JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA INGURUGIROAN (1. BLOKEA)		
JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA	DIAGNOSTIKOAREN HAUTEMATE NAGUSIAK	HERRITARREN HAUTEMATEA
	Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak: ♣ Baserriak husten ari dira ♣ Sortutako hondakinei dagokien araudia indarrean jarri gabe dago. ♣ Hiru ustiategi handi daude behi eta negutegiekin ♣ Arditegi txiki batzuk daude ♣ Ortzaikako granja ez dago kontrolatua (untxiak eta oiloak) Arrantza: ♣ Itsasontzien olioak jaso egiten da. ♣ Kanpaina bat egin zen itsasontzietako zaborrak biltzeko baina bukatu zenetik ez da jarraitu banaketarekin. Industria jarduerak: ♣ Aiako enpresa batek hondarra ateratzen du itsasotik, itsasoko urari eragiten diolarik ♣ Orion enpresak herri barruan egoteak zarata eta usain txarrekin arazoak sortzen ditu. ♣ Autopistaren lotura berria aprobetxatuz industrialde berria jartzea planteatzen da.	♣ Udan Zumaiko draga dela eta Orioko barra aurrean bota dira lohiak. EJko Ingurumen Sailak debekatua du garai horretan hori egitea. Udalak ez die gai horiei aurre egiten. ♣ Hondarra ateratzen duen Aiako enpresak ondo egiten du. Barra erreformatu zen eta hondarra akumulatzen da. Enpresa horrek mesede egiten du.

JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA INGURUGIROAN (1. BLOKEA)		
JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA	DIAGNOSTIKOAREN PERTZEPZIO NAGUSIAK	HERRITARREN HAUTEMATEA
	Turismoa eta zerbitzuak: ♣ Ostalaritza zerbitzutako establezimendu kopuruak %25eko jaitsiera jasan du 6 urtetan. 1998an 43 establezimendu zeuden eta gaur egun 32 daude. Ostatu ematen duten establezimendu kopurua ordea 4tik 6ra igo da. ♣ Merkataritza mailan establezimendu kopuruak 1998 eta 2001 artean %17ko beherakada izan zuen (65 establezimendutik 54ra pasa zen). 2001 eta 2004 artean establezimendu kopuruak %38ko gorakada jasan du (54tik 75 establezimendu izatera pasa da herria). Aktibitate aldetik ordea, beherakada nabarmendu da batez ere Urbil Zentro Komertzialaren eraginez ♣ Turismo aldetik hondartza da puntu erakargarriena. Ibaia eta Alde Zaharra indartu behar dira. ♣ Turisten %47a kanpinean geratzen da. ♣ Erkidegotik datozenez gain, turisten %31 Kataluniatik datoz, %33a estatuko gainontzeko lurraldeetatik eta %29a atzeritik. ♣ Komertzioa eta Turismoa suspertzeko estrategia bideratzen ari da Udala eta Arkupe (PERCOTUR	♣ Merkataritza bizitza da. Euskal Herriak zentro komertzialen dentsitate handiena dauka estatu mailan. Zentro komertzialetan sortzen diren lan prekarioengatik, merkataritza erdi eta txikiak kaltetzen dira. ♣ AROZENA fabrika inguruan ekipamendu komertziala aurreikusita dago AASS-tan. Kanpora doan jendea hemen geratzeko ontzat har liteke, baina Orioko lanpostu asko kaltetuko lirateke (janari dendak...) ♣ Urbilek aparkamendua dauka ordaindu gabe eta udaltzainarekin eztabaidatu gabe. Komertzio guztiari eskuak lotzen zaizkio. Ez diogu irisbiderik uzten eta transportistak ez du lekuri deskargatzeko. Jendea kanpoko komertziora doa. Aparkamendurik ez dago eta 15 minututan erosketak egiterik ez dago eta horren ingurua ez da ezer egiten.

MUGIKORTASUNA (1 BLOKEA)		
MUGIKORTASUNA ETA IRISGARITASUNA	DIAGNOSTIKOAREN PERTZEPZIO NAGUSIAK	HERRITARREN HAUTEMATEA
	Bide sareak eta trafiko intentsitatea: ♣ Autopistarekin erdi-lotura eta Orioko bariantea eraikitzeke proiektuak daude. ♣ Gaur egungo herriko sarrera inbutu bat da. Hau ekiditeko, zubi berri bat eraikitzeke ideia dago Aparkalekuak: ♣ Lurrazpiko aparkalekuak eraikitzea aurreikusita dago (guztira 400 plaza inguru) ♣ Hondartzako Planean 800 aparkaleku plaza inguru aurreikusten dira ♣ Eraikuntza berriko guneetan etxebizitza bakoitzeko 1,5 plaza eraikiko dira lurpean eta plaza bana gainazalean Garraioa:: ♣ Garraio publikoari dagokionean kexarik ez da jasotzen. ♣ Bai autobusa baita trena ere herri kanpoaldean geratzen dira eta barrura sartzeko aukera izatea eskertuko litzateke. Bizikletak eta oinezkoak: ♣ Bidegorri sare zabala eraikitzeke asmoa dago ♣ 2700 firma inguru jaso dira gaur egungo Orioko sarrera dena ez peatonalizatzeko. Irisgarritasuna: ♣ Hirigune Historikora iristeko elementu mekanikoen beharra nabarmena da.	♣ Arazoa daukagu autoekin eta 2500 biztanle gehiago edukiko ditugu. ♣ Aparkalekuen gaia oso garrantzitsua da. 15 minutuko muga dugu. Oso motza da. Ez du denbora ematen ezertarako . gutxienez 30 minutukoa beharko litzateke. ♣ Kanpotik datorren jendeak zailtasunak ditu aparkatzeko. Alternatibak behar dira, baina ez urruti, herrian bertan baizik. ♣ Calle Arriba: bi etxe daude aurri egoeran (ruina) eta beste bi etxetara sarbidea moztuta dago. Ezin da pasa eta euria ari duenean egoera okerragoa da. ♣ Proiektaturiko zubi berria arrantzaleentzat oso txarra da. Etxetik kanpora joan beharko lukete eta baita arrantzaleekin lan egiten duten tailerrak ere. Ez dugu ikusten zubi horren beharrik dagoenik. 2700 sinadura bildu ziren peatonalizazioaren kontra, zer konpontzen du zubi berriak? Plaza ingurua bakarrik utziko luke libre zubiak. Beste aukera batzuk aztertu beharko litzuzke Udalak. Autopistako lotura eta saihezbidea aztertu, Txankako bidea zabaldu eta txukuntzeko. Turisten erdia hondartzara badoa, Txankatik joan daitezke zuzenean. Beste zubia jarritz gero, prezioa oso altua izango da lortuko den etekinarekin konparatuz. ♣ Pelotari kale bukaeran plaza txiki bat dago eta 40 auto inguru egoten da han aparkatuta. ♣ Azkeneko obretan egin den kale berrian, barrera arkitektonikoak jarri dira. Hemendik aurrera kontu handiagoarekin ibili. ♣ Badago plangintza bat egina irisgarritasunari buruz, 3 fasetan egin behar zena. Gaur egun ez dira epeak betetzen ari. Bereziki udal ekipamenduetan.

INGURUGIRO BEKTOREAK(2 BLOKEA)		
ATMOSFERA, URA ETA ENERGIA	DIAGNOSTIKOAREN PERTZEPZIO NAGUSIAK	HERRITARREN HAUTEMATEA
	Airearen kalitatea: ♣ Aita Lertxundi eta Anibarko Portuan aire kutsadura nabarmena da autoen eraginez. Akustika: ♣ Tabernek sortutako zarata dela eta arazoa konpontzeko sonometroak jarri dira tabernetan. ♣ Motorrek zarata arazoa sortzen dute. ♣ Aita Lertxundi kalean eta autopista inguruan zarata handia dago. Ura: ♣ Txurrukako hondartzan bainua debekatua egoten da baina ez kutsaduragatik, lokatzak sortutako arriskuagatik baizik. Ur hornidura: ♣ Kanpineko biltegiak arazoak ematen ditu. Ez du tratamendu egokia ematen eta ur asko galtzen da. Ur zikinen saneamendua: ♣ Ur zikina Zarauzko araztegira doa. Zenbaitetan, marea bizien garaian, itsasoko ura sartzen da eta arazoak sortzen dira. ♣ Plaza inguruan eta Iturbide kalean hodiak zaharrak dira eta arazoak daude. Sarea bukatzean (2005ean) arazoa konponduko da. Energia: ♣ Ia herri osoan gas naturala sartuta dago. ♣ Urbanizazio berrietan fluxu kontrolagailuak jartzen dira. Zaharretan ere jartzeko asmoa dago.	URA ♣ Eusko Gudari kalea joan zen urtean berritu zen eta oraindik estolderiatik usain txarrak ateratzen dira noizean behin. Berrikusi beharko litzateke. ♣ Ur zikinak: ponpaketa sistematik, gainezkabidetik ura askotan ateratzen da. Marea bizien arazoa da edo dimentsioen arazoa? Agian ez zen ondo kalkulatu.

INGURUGIRO BEKTOREAK (2. BLOKEA)		
HONDAKINAK-LURZORUA	DIAGNOSTIKOAREN PERTZEPZIO NAGUSIAK	HERRITARREN HAUTEMATEA
	Hondakinen kudeaketa: ♣ .Txakurren kakak direla eta kexa asko daude. Ordenantza erregulatzailer bat atera beharko litzateke. ♣ Mankomunitateak eskainitako ohizko zerbitzuaz gain, inpresora kartutxoak paper-denda batean jasotzeko aukera dago. ♣ Tabernetako olio enpresa batek jasotzen du eta orain beira eta ontzi arinak jasotzeko gorpildun edukiontzia jarriko zaizkie. ♣ Birziklapen tasa handitu beharra ikusten da. ♣ Orioko Bentako Parkean gaikako bilketa egiteko edukiontzia jarri dira. Lurzoru kutsatuak: ♣ Arostegi tailerraren lurra eta Motondoko eremu bat kutsatu bezala kalifikatuta daude.	Hondakinak ♣ Txakurren kakaren inguruan garbitzaileek lan hobea egin beharko lukete. ♣ Aita Lertxundin papera birziklatzeko edukiontzirik ez dago.

INGURUGIRO BEKTOREAK (2. BLOKEA)		
SISTEMA NATURALAK	DIAGNOSTIKOAREN PERTZEPZIO NAGUSIAK	HERRITARREN HAUTEMATEA
	Gune babestuak: ♣ Gaur egun babestuta daude Itsaslabarrak (DOT), Tontortxiki eremua, Oriako itsasadarra (Hezeguneen Plana) eta Sarikolako Burniola (EJko katalogoan jasota) ♣ AASSetan Kukuarriko punta babesteko asmoa dago. ♣ Dunak babestuta geratuko dira. Natur guneen berreskurapena: ♣ Dunen berreskurapena martxan dago.	♣ Orio ibaia Gipuzkoako bizkar-hezurra da eta baztertua dago. ♣ Beduan mendia kendu eta kanaberaz bete dute. Ez da ezer mugitu hemen. ♣ Ibaia lokatzez beteta dago eta usaina botatzen du. Garbitzen ari dira baina ez dena. Marea behera dagoenean, dena zikina ikusten da. ♣ Txurruka hondartza: beti kutsatuta dagoela eta debekatua dago bainua. Inork ez du ezer egiten. Behin-betiko itxi edo zerbait egin beharko litzateke. 3-4 urteko gaia da. ♣ Gune babestuak ♣ Orain ez dago dunarik Orion. Berreskurapena ez da posible dunarik ez badago.

ARLO SOZIOEKONOMIKOA (3. BLOKEA)		
DEMOGRAFIA-EGITURA EKONOMIKOA- ENPLEGUA	DIAGNOSTIKOAREN PERTZEPZIO NAGUSIAK	HERRITARREN HAUTEMATEA
	Biztanleria: ♣ Orioko azalera bikoiztu da azken 15 urteetan baina biztanleria ez da handitu. Jendea herri barruan trasladatu da, batez ere Alde Zaharreko irisgarritasun arazoak direla eta. ♣ Inmigranteentzat integrazio bideak ireki behar dira. Egitura eta jarduera ekonomikoak: ♣ Arrantzale falta sumatzen da. Kanpoko jendea dator itsasontzietan lan egitera. ♣ Lehen 28 itsasontzi zeuden eta orain 9 daude. Enplegua: ♣ Gehiengoak herritik kanpo egiten du lan. ♣ Industrialde berriak lanpostuen sorrera ekar dezake.	Industrialdea ♣ Orioko indar sozial guztiak, orain dela 15-20 urte elkartu ziren TEKNIKER-ekin eta baldintza batzuk jarri zitzaizkion. Inportanteena industrialdea egitea. 15 urte pasa dira eta udalak ez du ezer egin. Industrialderik ez dago eta industria, zegoena, joan egin da. Industrialde baten beharra dagoela. ♣ Industrialdeak lanpostu berriak ekarriko ditu. Oriok lo egiteko bakarrik balio du. Lanerako ez du balio.

ARLO SOZIOEKONOMIKOA (3. BLOKEA)		
OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA	DIAGNOSTIKOAREN PERTZEPZIO NAGUSIAK	HERRITARREN HAUTEMATEA
	Etxebizitza: ♣ Jende gaztea bertan geratzea nahi bada babes ofizialeko etxebizitza gehiago behar dira. ♣ Datorren urteetan egingo diren etxebizitza babestuak oriotarrentzat bakarrik izango dira. ♣ Etxebizitza hutsen alokairua bultzatu behar da. Hezkuntza: ♣ Herriko ikastetxeen aldeko kanpaina egin beharko litzateke. Hezkuntza eskaintza zaindu. Osasuna: ♣ Mankomunitate mailan dagoena baino zerbitzu gehiago beharko litzateke. ♣ Zarautzen eskualde mailako anbulatorioa eraikitzeko asmoa dago. Gizarte zerbitzuak: ♣ .Eguneko zentroak gaur egungo eskaria asetzen du. ♣ 4 apartamendu tutelatu eraikiko dira 2005ean.	ETXEBIZITZA ♣ Jende gaztea geratzeko, etxe bizitza librean prezioak ere dauzkan prezioak ez edukitzea, nolabait prezio horiek kontrolatzea beharrezkoa da. BOE-ak ez dira soluzio bakarra, gazte guztientzat haina ez dituztelako egingo. ♣ Udalaren baliabideak erabili beharko lirateke. Ez promotoreek esaten duten guztia onartu. Baldintza batzuk jarri beharko litzaizkieke promotoreei. ♣ Kritika udalari. Aurten sartu den lege berria sartu baino lehen, udalak bazekien zein lege zetorren. Bazekien hondartzako terrenoak nola saldu. Udala ez dago ezer egiten BOE-ei buruz. Pribatuei fakultate gehiago ematen ari da. Terrenoak oso ondo saldu ditu. ♣ BOE-ko zenbat behar diren, estudiorik egin du udalak? VPO gutxi egiten dira. Gazte asko dago Orion. ♣ UDALA: udaberrian galdetegi bat egingo da apuntatzen diren guztiei nolako etxebizitzak nahi dituzten jakiteko. ♣ Zaharrek ere behar dituzte etxeak. ♣ Berdinketa bat beharko litzateke. BOE-koak ez direnen prezioak jaitsi.

ARLO SOZIOEKONOMIKOA (3. BLOKEA)		
OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA	DIAGNOSTIKOAREN PERTZEPZIO NAGUSIAK	HERRITARREN HAUTEMATEA
	Kirola, aisia eta kultura: ♣ Gazteentzako ekimenetan hutsunea nabari da. ♣ Tamaina ertaineko ekipamenduaren beharra sumatzen da. ♣ Hondartzan kirol gune berri bat eraikiko da. ♣ Kiroldegi ingurua ekipamendua zabalduko da. Kirol ekipamendua zentralizatzea izan da irizpidea. Euskara: ♣ Hizkuntza aldetik arazoak sortzen dira atzerritarrekin eta estatuko jendearekin. Kanpotarrei hizkuntza errefortzu bat ematen zaie ikastetxeetan. ♣ Gero eta bikote erdaldun edo misto gehiago dagoenez, etorkizunean ere haurrek euskaraz hitz egiteko kanpaina antolatu du Udalak. ♣ Euskararen erabilera gora doa, batez ere gazteen artean. ♣ Euskararen kalitate mailarekin kezka dago. Zenbait forma (hitanoa adibidez) galtzen ari dira. ♣ Lan munduan euskararen presentzia txikia da. Idatziz euskararen erabilera ez da minimotara iristen.	Ekipamendua ♣ Txurumuski taldeak proiektu bat egin zuen gazteentzako, duela 5 bat urte. Berandu da orain. Arazoak lehenago aurreikusi behar dira. Euskara ♣ Proposamena: letreroak, seinaleak, ...jartzean, euskaraz idaztea kartelak eta ondo idatzita egotea (h-ak bere lekuan)

ARLO SOZIOEKONOMIKOA (3. BLOKEA)		
ONARRIZKO ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA	DIAGNOSTIKOAREN PERTZEPZIO NAGUSIAK	HERRITARREN HAUTEMATEA
	Komunikazioa eta parte-hartzea: - Udaletxean egiten diren gauzak behar bezala azaltzen ez direnaren sentsazioa dago.	♣ Talai Herri plataforma: diagnosi prozesuan parte hartu nahi zutela esan zuten. Lan mahaietan nahi zuten parte-hartu. Udalak ezezkoa eman zuen. Teknikoei zegokiela esan zitzairen. ♣ Herriaren parte-hartzea ez da egon mahai teknikotan. Nabaritzen da. Beste leku bat egon beharko litzateke herriak esateko zer den garrantzitsua eta zer ez. ♣ Herria eta udala bi organo oso ezberdin dira. Udalak ez du errazten herritarren partaidetza. Ez da herritarren hitza errespetatzen eta hortik dator arazo guztia. ♣ Talde eta pertsona ezberdinak parte-hartzea eskatzen joan dira udalera eta ez dute erantzunik jaso. Talde bat sortu da, gehiengo handi bat biltzen duena eta idatzi bat aurkeztu da udalean ondorengoa eskatuz: ○ Diagnosi sakon bat egin arte AASS-en prozesua geratzea ○ Eztabaidarako elkargunea sortu diagnosi hori egiteko ○ Agenda 21aren prozesuan egiten diren fase guztietan herritarren partaidetza sustatu eta bermatzea ♣ Jendeak dudak dauzka. Non galdetu liteke? Kezkek badaude eta bildu eta hitz egin behar da. ♣ Gauza asko daude mahai gainean jarri gabe, orain arte ez delako fororik egin. Eta orden hau jarraituz, gai asko kanpo geratzen dira. Hasieratik jaso beharko litzateke zein gai eta nola hitz egin. ♣ Mahai teknikoak irekiak izan beharko lirateke. Tekniko eta zinegotziek esaten dutena herritarrek esan dezakete. ♣ Akordio sozial bat egon behar da. Zein mahai tekniko nahi dituen herritarrak eta nola antolatu. Gehiengo sozial bat ez dago ados nola planteatu diren mahaiak. Benetan sinesten du herriak Agenda 21 prozesuan, baina ondo egina.

ORIA HEZEGUNEAREN BALIABIDEEN AZTERKETA (4. BLOKEA)	
DIAGNOSTIKOAREN PERTZEPZIO NAGUSIAK	
Ingurumen aldetik: ♣ Eusko Jaurlaritzak azaroaren 19an onartu du EAEko Hezeguneen Lurralde Arloko Plana. Honen arabera, gune hori babestuta dago. ♣ Hezegune hori, bere horretan, babes gune handiago baten parte izatera iritsi daiteke ♣ Arraun pistaren proiektuan, pistaren kokapena ez dago erabakia, eta sustatzaileen arabera natur baliabideak babesteko proiektua da. Kirolaren aldetik: ♣ Arraun Pistaren moduko ekipamenduen defizita dago Gipuzkoan ♣ EAEn, gune horrek eskaintzen ditu arraunerako horrelako azpiegitura bat egiteko baldintza hoberenak. Legutiok baina hobeak, eta bere alternatiba izan daiteke. Sozio-ekonomiaren aldetik: ♣ Arraun pistaren proiektuak, kirolaz gain, Orioko sozio-ekonomia suspertuko luke, eta luzarora Orio ezagutaraziko luke. Orioko udalaren aldetik: ♣ Arraun pistaren moduko egitasmo baten aurrean, herriko eragile, eta herritik kanpoko administrazioen jarrerak aztertu nahi ditu. ♣ Batzorde bat osatzea erabaki da. Irekia eta gai hau aztertuko duena.	♣ Arraun pista egingo balitz, publikoa izan beharko luke (ez pribatizatua) ♣ Bi plan behintzat badaude: arraun pistarena eta Hezeguneen Plana ♣ Proposamena: batzordea ez izatea bakarrik Arraun Pista eztabaidatzeko. ♣ Zergatik ez da beste gaietan ere gehiago sakonduko laugarren blokea bezala? Beste mahai batzuk sortu beharko lirateke. Batzorde ezberdinak sortu. ♣ Gai ezberdinak daude kezka handia sortzen dutenak. Baliabideak jarri beharko lirateke mahai ezberdinak osatzeko. Bilera bat egin eta ikusi zein gaietan sakondu beharko litzatekeen. Eta mahai berriak egin.

ORIOKO TOKIKO AGENDA 21

ORIOKO 2. HERRITAR PARTE HARTZE FOROA

PARTAI DEAK	UDALETXEA/ENPRESA
Ibai Lertxundi	Herritarra
I. Uranga	Herritarra
M.A. Albeniz	Herritarra
Jon Peña	Herritarra
Amaia Aizpurua	Herritarra
Haritz Arrizabalaga	Herritarra
Idoia San Sebastián	Herritarra
Maikar Iurramendi	Zaragueta Eskola
Marije Gz. De Txabarri	Zaragueta Eskola
Elizabete Manterola Agirrezabalaga	Herritarra
Eneritz Odriozola Irastorza	Karkara
Jose Luis San Sebastián	CRO Orio AE
Ainara Peña Ilarramendi	Karkara
Itziar Barrenetxea Oliden	Harribil dantza taldea
Luis Azcue	Muscuilu-Harria
Daniel Barrenetxea	Talai Mendi M.A.
Kandido Esoain	Etixerat
Enara Rabina	Herrio
Garbiñe Manterola	Herrio
Ainhoa Fernández	Arkupe
Amaia Urkola	Herrio
Iñaki Zaldúa	Herritarra
Haritz Arostegui	Herritarra
M ^a Luisa Urbieto	Udala
Eugenio Cotado Iturain	Udala
Noemi Ostolaza	Udala
Eneko Olariaga	Udala
Mirari Arruabarrena	Udala
Maider Etxaide	Haizea Ikerketa, S.L.
Ainhoa Zubillaga	Haizea Ikerketa, S.L.
Junkal Fernandez	Haizea Ikerketa, S.L.
Arantxa Zubizarreta	Haizea Ikerketa, S.L.
Jon Zubiria	Ondoan
Elixabete Zuriarrain	Urola Kostako Udaltalde 21eko koordinatzailea
DATA	2005ko apirilak 21

Bileran ezinezkoa izan zen bertaratutako guztien izenak jasotzea

BILERAREN HASIERA

Aholkularitzako ordezkariak eskerrak eta ongietorria ematen dizkie Forora inguraturiko partehartzaile guztiei. Proiektuaren egoeraren aurkezpen labur bat egiten du eta horren ostean Foroaren helburua zein den adierazten du.

HELBURUA

- Diagnostikoaren ondorioak eta helburuen proposamenak balioztatu
- Helburuen artean lehentasunak jartzea
- Ekintzen proposamena egitea

IRISMENA:

- Arlo sozioekonomikoa
- Planeamendua eta mugikortasuna
- Jarduera ekonomikoen ingurumen eragina
- Inguru Naturala
- Ingurumen Bektoreak: Ura, Energia, Hondakinak, Atmosfera eta Akustika

METODOLOGIA:

5 talde sortzen dira parte-hartzaileen artean eta talde bakoitzari gai ezberdinak lantzeko eskatzen zaio.

Banaketa honela gelditzen da:

1. eta 2. TALDEA:

- Arlo sozioekonomikoa
- Komunikazioa eta Parte-Hartzea

3. eta 4. TALDEA

- Ingurumen naturala
- Mugikortasuna
- Komunikazioa eta parte-hartzea

5.TALDEA:

- Ingurumen bektoreak

- Jarduera ekonomikoak
- Arriskuen kudeaketa
- Udal Ingurumen Kudeaketa
- Komunikazioa eta Parte-Hartzea

EKARPENAK

1 TALDEA: ARLO SOZIOEKONOMIKOA

- **OSASUNA:**
 - Medikuaren gelak ordenagailua jartzea
 - Herrira pediatria ekartzeko elkarrizketaldiak mantendu
 - Osasun zerbitzuak osatu eta hobetu.
 - Osasun zerbitzua zabaldu.
- **GIZARTE ZERBITZUAK**
 - 3 adinekoei “eguneko zentroa” jartzea
 - Balio anitzeko ekipamenduak sortu: Gazteentzat lokalak, antzerki lokalak, bilera gelak, etab..
 - Ikastetxe eta Gizarte zerbitzuen arteko harremana zabaldu beharrei erantzuna emateko
 - Haur eskola publikoa sortu.
 - Eguneko zentroa handitu
 - Drogomenpekotasuneko (Askagintza-Udala) prebentzio lanari jarraipena eman.
 - 3.adinekoentzat ONG bat sortu.
- **MIGRAZIOA:**
 - Etorkinei zuzendutako Internet/euskara ikastaroak antolatu
 - Etorkinen beharrak aztertu eta erantzuna eman.
 - Etorkinei euskara ikasteko aukerak eman, ikastaroak,...
- **AISIALDIA:**
 - Gazteentzako lokala jartzea
 - Gazte taldeekin elkartu hauen beharrak ezagutu eta erantzuna eman (12-18 urte)
 - Herri sarreran dagoen parkea berritzea
 - Haurrei zuzenduriko parke gehiago jartzea
- **KIROLA:**
 - Kirol ekipamenduak indartu* eta baldintza egokietan mantendu
 - Nesken kiroleko Plan bat gauzatu
 - Kirola-osasuna, 3.adinekoentzat programa bat aurrera eraman

- **JARDUERA EKONOMIKOAK**

- Fosa septikoak era naturalean kudeatzeko dauden esperientziak baserritarrei ezagutarazi
- Industrigune egoki bat sustatu lehen sektorearen galerari aurre eginez.
- Arrantza mantentzeko alternatibak aztertu. Bertako arrantzaleak harrapatzen duten produktuari irtenbide bat eman.
- Azterketa bat egin Orioko negozioen ordutegiak mugitzeko aukeren inguruan.
- Arozenan komertziorako ekipamendu handirik ez egitea.
- Bertako kontsumoa sustatzeko kanpainak egin
- Turismo ekologikoa sustatzeko ekintzak burutu: ibilbideak markatu, piragua irteerak, guneak berreskuratu.
- Gazteentzako turismoa sustatu, kanpina txiki geratu da eta beste modu bateko turismoa bultzatu.

- **ETXEBIZITZA:**

- Etxebizitza hutsak kontutan izanik, etxebizitza berriak eraiki, bertakoen beharrak ase eta etxebizitza huts gehiago ez agertzearren
- Gazteen etxebizitza /lanpostu beharrei Goiko Kalen irtenbidea emateko aukera aztertu, kale honi bizitza ematearren.
- Alokairuko etxebizitzaren eskaintza bideratu.
- Gazte eta Udalaren arteko bilerak burutu etxebizitza beharra kudeatzeko.
- Etxe hutsen inguruko azterketa bat egin.

2 TALDEA: LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA PLANGINTZA

- Arkitektura bioklimatikoa sustatu (inzentiboak, akordioak, Eusko Jaurlaritzarekin, laguntzak, eta.)
- Kirol ekipamenduak indartu*
- Gune berdeetan egiten den gastua kontrolatu
- Industria kokatzeko lurzoru gehiago bideratzeko aukerak aztertu eta erreserbatu.

MUGIKORTASUNA

- Autobus zerbitzu gehiago jartzea eta batez ere autobusa herrira igotzea
- Gazteentzat (edozeinentzat) asteburutan autobus konbinazioa jartzea
- Orioko web gunea erabili autoa konpartitzeko eskaintzak eta eskaerak bertan jartzeko.
- Herritarrak kontzientziatu gaizki aparkatzeak dituen ondorioetatik (ezinduen mugikortasunean oztopoak, umeen karroek dituzten arazoak, etab..)

- Udalak garraio publikoko enprekin harremanak ezarri bonoak sortu ahal izateko.
- Oinezko eta bizikletentzako diskriminazio positiboa emateko dauden aukerak aztertu.
- Bariantearen eraikuntza bultzatu, ahal den azkarren egiteko. Aita Lertxundi kalea, herri barneko kale bat bihurtu dadin.
- Herriko sarrera naiz irteerak hobetu (Txanka bidea).
- Bidegorri sarea egin eta txirringa aparkalekuak ipini. Lotura eta ibilbide praktikoak planteatu.
- Udarako kaia berrian aparkalekua ipini eta jendea pasatzeko ontziak jarri.
- Aparkalekuak gehitu.
- Dauden aparkalekuak hobetu eta erabilera bultzatu.

KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTE-HARTZEA

- Zer Berri Aizarnazabalen kontzientziazio mezuak jarri hilabetero
- Ingurumen hezkuntza (kanpainak) umeei eta helduei bideratu
- Iradokizunak, kexak, ... bideratzeko zerbitzu bat sortu.
- Urtero herri foro bat antolatu udal eta herritarren arteko komunikazioa hobetzeko, bermatzeko.
- Erabaki garrantzitsuak hartu aurretik, herria informatu eta bermatu ados dagoela. Ados ez balego, kontutan izan eta errespetatu.
- Udaletxeak egiten duena kaleratu herri aldizkarien bidez.
- Udaletxe eta herritarren komunikazioa hobetzeko baliabide guztiak erabili.
- Mahai teknikoei eta foroei jarraipena eman.
- Motondoko eremuaren inguruan eztabaidatzeko mahai teknikoaren sorkuntza.
- Udalak Hitza eta Karkarari diru laguntzak eman ditzala
- Oriora.com foroa bultzatu
- Euskal kultura sustatzeko ekintzak bultzatu
- Udaletxeko informazioa eguneratua edukitzea.

3 TALDEA: INGURUMEN BEKTOREAK

- Jasangarritasun txostena eskatu herriko enpresei
- Eskola atzeko bidean argiak jarri
- Pantaila akustikoak jarri arazoak dauden lekuetan
- Aldundiari eskatu egindako kanpainak herri txikietara ere iristea
- Dauden gune askeak txukundu, bertako landaredia barneratu.
- 2000. Urtetik hona, ur-kontsumoaren eboluzioaren arrazoiak aztertu.
- Motorren zarataren kontrola indartu.
- Hondakinen inguruan informazio kanpainak burutu (sektore ezberdinei zuzendua).

- Argi publikoaren, energia kontsumoa kontrolatu
- Eraikin berrietan energia berriztagarrien aldeko apustua egin
- Arrantzaleei itsasontziko hondakin biltzea erraztu.
- Iraunkortasun irizpideak barneratzen dituzten abeltzain eta nekazarientzat merkatua sortu.
- Larrialdi planen jarraipena urtero egin.
- Natura 2000 Sarea uztartu udalaren Ingurumen politikarekin
- Herriguneko farola kopurua murriztu, kutsadura luminikoa minimizatu.
- Kontsumoa neurri batetik gorako kontsumoak zigortu
- Merkataritza jasangarria bultzatu
- Ustiapen jasangarriak diruz lagundu

INGURUMEN NATURALA

- Inguru natural guztien azterketa eta kudeaketa egokia planteatu.
- Basoen inbentarioa egin (jabegoa, erabilpenak,...), berreskuratzeko aukerak planteatu, eta bertako basoak babestu.
- Basoen berreskurapen lana eskolekin landu.

ORIOKO TOKIKO AGENDA 21

ORIOKO 3. HERRITAR PARTE HARTZE FOROA

PARTAI DEAK	UDALETXEA/ENPRESA
Cristina Fernandez	Txurrumuski
Marije Gz de Txabarri	Zaragueta Eskola
Marije Azkue	Zaragueta Eskola
M ^a Luisa Urbietta	Udala
Xabier Zabala	Udala
Emeterio Iribar	Talai
Ramon Etxeberria	Udala
Noemi Ostolaza	Udala
Ainara	Karkara
Jesus Rodriguez	Udala
Idoia San Sebastian	Udala
Ainhoa Leunda	Udala
Amaia ¿?	
Eneko Olariaga	Udala
Iñaki Zaldúa	Talai
Eli Lertxundi	Arkupe
Amaia S.	Arkupe
Jose Ramon Iparragirre	Arkupe
M ^a Carmen	Arkupe
Arantza ¿?	Arkupe
Arantxa Lertxundi	Arkupe
Garbiñe Manterola	Herrio
Eneriz Odriozola	Herrio
Martxiel Genova	Udala
M ^a Angeles Uranga	Arkupe
M ^a Jose San Sebastian	Udala
Maidier Etxaide	Haizea Ikerketa SL
Junkal Fernandez	Haizea Ikerketa SL
Arantxa Zubizarreta	Haizea Ikerketa SL
Ainhoa Zubillaga	Haizea Ikerketa SL
Elixabete Zuriarrain	Urola Kostako Udaltalde 21eko koordinatzailea
DATA:	2005eko azaroak 28

Bileran ezinezkoa izan zen bertaratutako guztien izenak jasotzea

BILERAREN HASIERA

Aholkularitzako ordezkariak eskerrak eta ongietorria ematen dizkie Forora inguraturiko partehartzaile guztiei. Proiektuaren egoeraren aurkezpen labur bat egiten du eta horren

ostean Foroaren helburua zein den adierazten du.

HELBURUA

- Ekintza Planarekiko hobekuntzak proposatu
- Ekintza Plana onartu
- Lehentasunezko ekintza nagusiak adierazi

IRISMENA:

- Arlo sozioekonomikoa
- Planeamendua eta mugikortasuna
- Jarduera ekonomikoen ingurumen eragina
- Inguru Naturala
- Ingurumen Bektoreak: Ura, Energia, Hondakinak, Atmosfera eta Akustika

METODOLOGIA:

1. 4 talde eratzen dira, lerro ezberdinak eztabaidatzeko.
 - 1. taldea:
 - 2. lerroa: etxebizitza eta oinarritzko zerbitzuak bermatu
 - 5. lerroa: herritarrekiko komunikazioa herritarren sentikortze eta parte-hartzea hobetu
 - 2. taldea:
 - 3. lerroa: Hiri ingurunearen eta ingurumen zerbitzuen hobekuntza
 - 5. lerroa: herritarrekiko komunikazioa herritarren sentikortze eta parte-hartzea hobetu
 - 3. taldea:
 - 4. lerroa: Hiriko mugikortasun beharrak iraunkortasun irizpideekin ase.
 - 5. lerroa: herritarrekiko komunikazioa herritarren sentikortze eta parte-hartzea hobetu
 - 6. lerroa: Bioaniztasuna eta paisaia babestu eta udalerriko gune eta elementu esanguratsuak ezagutarazi
 - 4. taldea:
 - 1. lerroa: Udalerraren ekonomia sustapena bultzatu
 - 5. lerroa: herritarrekiko komunikazioa herritarren sentikortze eta parte-hartzea hobetu
 - 7. lerroa: Iraunkortasun irizpideak txertatu udal kudeaketan

2. **Lehenengo zatian** orain arte landutako Ekintza Planaren irakurketa egiten da Udalak aurrera eramango dituen ekintzetan zentratuz. Udalez gaindiko erakundeek proposatu dituzten ekintzak orokorrean aurkezten dira baina ez dira eztabaidatzen. Programa bakoitzean ekintzen hobekuntzak edo ekintza berriak proposatzen dira.

3. **Bigarrenengo zatian**, lehentasunak eztabaidatzen dira..

PROPOSATUTAKO HOBEKUNTZA ETA EKINTZA BERRIAK

1.LERROA: UDALERRIAN EKONOMIA SUSTAPENA BULTZATU

- 1.3.1. PERCO eta PERCOTUR programak garatu. *Azterketa hori ez da fidagarria. Ez da material baliagarria. Datu okerrak buzoneatu dira. Gauzak egiteko moduak huts egin du. Lanpostuak arriskuan daude.*
- LAN TALDEAN EGINIKO PROPOSAMEN BERRIA: *Orio 8.000-10.000 biztanlera iristen denean azterketa sozioekonomikoa egin, bitartean azalera handiko komertzioen proiektuak bertan bera utzi*
Lan talde bakoitzaren ideien bateratze lana egin zenean berriz, proposamen berri hau moldatu egin zen, eta honela planteatu zen: "Orio 8.000-10.000 biztanlera iristen denean azterketa sozioekonomikoa egin. Tokiko Agenda 21eko prozesua amaitu arte, Orioko Planeamenduko AASSen berrikuspen prozesua eten.

2.LERROA: ETXEBIZITZA ETA OINARRIZKO ZERBITZUAK BERMATU

- 2.1.2. Etxebizitza babestuak egin. *Ez da inkestarik egin etxebizitza beharraren inguruan. Zenbat BOE egingo dira?*
- PROPOSAMEN BERRIA: *Etxebizitza beharra asetzeko azterketa bat egin (zenbat, zein motatakoak...).*
- 2.2.2. Guraso eskolaren programa sendotu eta garatu. *Geratuta egon omen da aurrekontu arazoagatik. Urtarrilean hasiko da berriz. Parte hartu zutenei informazioa ematea eskatzen da.*
- *Herriaren hazkuntza ikusirik kontutan hartu beharko litzateke osasun beharrak handitu direla.*
- *Zerbitzuen aurreikuspena herriaren hazkuntzarekin koordinatu beharra dago.*
- (2.5.1.: Haur eta gazteen aisialdirako beharrak aztertu/ 2.5.2: Aisialdirako baliabide eta ekipamenduen egokitasuna eta erabilerak aztertu, beharrezko egokitzapenak egin ahal

izateko/ 2.5.3.: Aisialdirako ekipamenduen erabilera arrazoizkoa izan dadin plangintzak garatu/ 2.5.4.: Aisialdirako behar eta ekipamenduetan oinarritzen den gazte plana garatu) *Ekintza hauek beka baten bidez lantzen ari dira. Abenduan bukatuko da. Beharrak ikusiko dira eta honen arabera ekin. Aurrekontuak irekiak utzi dira gai hauetarako*

- 2.5.4. Aisialdirako behar eta ekipamenduetan oinarritzen den gazte plana garatu. *Eusko Jaurlaritzak Gazte Plana badu. Kontutan hartu beharko litzateke. Gazte Bilgunea/Euskal Gazteri Kontseilua kontutan hartu beharko lirateke gazte plana diseinatzean.*
- 2.5.7. Udala eta elkarteen arteko elkarlanaren bidez kultur jarduerak ugaritu. *Koordinazio falta sumatzen da elkarte-udala artean*
- *Aurrekontuen inguruan informazio falta sumatzen da.*
- 2.6.1.: Drogamenpekotasunaren Prebentzioko Planarekin jarraitu. *Eguneratzen ari dira. Otsailean aurkeztuko da.*
- 2.7.3. Gizarte zerbitzuen diagnostikoa egin eta beharrak identifikatu, ondoren plangintza bat diseinatu ahal izateko. *Ekintza hau kentzea erabakitzen da. Honen ordez, beste hau planteatzen da: “Ematen diren zerbitzuen inguruko informazioa zabaltu”*

3.LERROA: HIRI INGURUNEAREN ETA INGURUMEN ZERBITZUEN HOBEKUNTZA

- 3.1.1.: ur eskapeak eta galerak saihesteko fundiziokoak ez diren sare guztiak aldatu, hau da, fibrozementuzkoak, galbanizatu eta polietilenoazkoak. *Egiten ari da.*
- 3.1.3. Diputazioak ur depositu berri bat eraikitzeke duen aurreikuspena gauzatu. *Egungo egoeran ez legoke egun bateko urik.*
- 3.2.1. Hondartzako bigarren fasean San Juaneko hartunea lorategien erregadiorako erabili. *Tratatu gabeko ura da. Aztertu beharko litzateke.*
- 3.5.1. Argiteri publikoan energia eraginkortasuna hobetzeko fluxu erreduktore eta kontsumo baxuko luminariak jartzeko azterketa egin eta kutsadura luminikoa gutxitzeko neurriak hartu. *Urbanizazio berrietan jadanik hartzen dira neurriak.*
- 3.6.2. Lur urbanizaezinean eguzki plakak jartzeko eman daitezkeen eskaera pribatuei erantzuna emateko ordenantza edo araudi bat egin. *Asko pentsatu den kontua da.*
- 3.7.10 Etxeetako basura ontziak egokitzeko programa. *Aurrekontuetan sartuta dago.*
- 3.7.11. etxeko olioaren bilketaren ordutegia eta sistema beharretara egokitu. *Olio bilketako edukiontzi bereziak ezartzeko aukera aztertu.*
- 3.7.13. Txakurren inguruko Ordenantza eguneratu. *Hasteko elkarteekin harremanetan jarri.*
- *Konpostajerako proiektu pilotuari buruzko informazioa eskuratu. **PROPOSAMEN BERRIA***

- 3.11.2. Udalerriko zarata mapa egin eta dagokion neurri zuzentzaileak hartu. *Udalak programa berezi bat du martxan tabernekin, zarata kontrolatzeko. Emaiza onak ematen ditu.*
- Motorren zarataren inguruko kontrola areagotu. *Egun egiten den kontrola ez da nahikoa.*

4.LERROA: HIRIKO MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN ASE

- 4.1. PROGRAMAN PROPOSAMEN BERRIA: *udal eraikinetan irisgarritasuna bermatu.*
- 4.2.1.Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio Sailarekin harremana eta koordinazioa mantendu garraio publikoaren inguruko eskariak (*herri barruko autobus geltokia, bonobusa, autobus konbinazioen egokitzapena...*) bideratu ahal izateko. *Herri barruko autobus geltokiak ez du zentzurik. Kendu.*
- 4.3.1. Oinezkoentzako bidea egokitu Txanka eta Anibarko Portua lotuz. *Ekintza egokitzea proposatzen da: "Txanka eta Anibarko Portua lotzeko bideak aztertu"*
- 4.3.4. Bidegorri sarea eraiki, lotura eta ibilbide praktikoak planteatuz, eta txirringentzako aparkalekuak ipini (Itsas etxetik hondartzara...) *Mugikortasun Planaren baitan egongo litzateke. Pausu garrantzitsua izan da hondartza-autopista bitarteko bidegorria. Helburua benetan mugikortasunerako alternatiba izatea bada, autopista eta Bikamiota eta hortik ikastolarako bidegorria egin beharko litzateke. Ibai ertzetik egiten bada, uda garaian egokia da, baina ez da alternatiba erreala urte osorako.*
- *Mugikortasun Asteko kontraesana adierazten da. Iraunkortasuna aldarrikatzen da baina autoan jartzeko parasolak banatzen dira.*
- *Ortzaikako zubia irristagarria da eta oinezkoak bidegorritik doaz.*
- 4.4.2. Aparkaleku berriak eraiki. *Publikoak izan daitezela*

5.LERROA: HERRITARREKIKO KOMUNIKAZIOA, HERRITARREN SENTIKORTZE ETA PARTE HARTZEA HOBETU

- 5.1.3.: Udaletxeko komunikazioa koordinatuko duen arduradun bat izendatu. *Komunikazioa hobetzea garrantzitsua da informazio eguneratua edukitzeko.*
- 5.1.4. Udala eta herritarren arteko komunikazioa hobetzeko bide berriak aztertu eta martxan jarri *parte-hartzea bermatzeko (web orria...)*
- PROPOSAMEN BERRIA: *Udaleko organo guztietan (informazio konfidentziala den batzordeetan izan ezik) herritar soilen parte-hartzea baimendu.*
- PROPOSAMEN BERRIA: *Aurrekontua eztabaidatzean parte hartzea sustatzeko bideak aztertu.*

- 5.2.1. Eskolako Agenda 21 garatu. *Hasita dago. Ikasturte honetan hondakinen gaia landuko da.*

6.LERROA: BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA BABESTU ETA UDALERRIKO GUNE ETA ELEMENTU ESANGURATSUAK EZAGUTARAZI

- 6.3.1Udalerriko ondare historiko, etnografikoa eta arkitektonikoa ezagutarazten jarraitu. *Orioko kofradia kentzea pena da. Eraikuntza tipikoak mantendu beharko lirateke, herriaren xarma mantentzeko.*

LEHENTASUNEN EZTABAIDA

1.LERROA: UDALERRIAREN EKONOMIA SUSTAPENA BULTZATU

- 1.1.1.Arau subsidiarioetan proposatzen den industria gune berria garatu.
- *PROPOSAMEN BERRIA: Orio 8.000-10.000 biztanlera iristen denean azterketa sozioekonomikoa egin, bitartean AASSen garapena bertan behera utziaz.*

2.LERROA: ETXEBIZITZA ETA OINARRIZKO ZERBITZUAK BERMATU

- *PROPOSAMEN BERRIA: Etxebizitza beharra asetzeko azterketa bat egin (zenbat, zein motatakoak...).*
- 2.2.2. Guraso eskolaren programa sendotu eta garatu
- 2.4.1. Pertsona helduen bizi kalitatea hobetuko luketen hainbat zerbitzuen (janari prestaketa, arropa garbiketa,...) bideragarritasuna aztertu
- (2.5.1.: Haur eta gazteen aisialdirako beharrak aztertu/ 2.5.2: Aisialdirako baliabide eta ekipamenduen egokitasuna eta erabilera aztertu, beharrezko egokitzapenak egin ahal izateko/ 2.5.3.: Aisialdirako ekipamenduen erabilera arrazoizkoa izan dadin plangintzak garatu/ 2.5.4.: Aisialdirako behar eta ekipamenduetan oinarritzen den gazte plana garatu)
- 2.5.7.: Udala eta elkartearen arteko elkarlanaren bidez kultur jarduerak ugaritu
- 2.10.9.: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzen jarraitu, programa eta ekintza berriak antolatuz

3.LERROA: HIRI INGURUNEAREN ETA INGURUMEN ZERBITZUEN HOBEKUNTZA

- 3.1.3. Diputazioak ur depositu berri bat eraikitzeko duen aurreikuspena gauzatu
- 3.4.1. Uraren erabilera eraginkorra sustatzeko kontzientziazio kanpainak burutu (herritarrei zuzenduak, ikastetxeekin elkarlanean,...)

- 3.5.1. Argiteri publikoan energia eraginkortasuna hobetzeko fluxu erreduktore eta kontsumo baxuko luminariak jartzeko azterketa egin eta kutsadura luminikoa gutxitzeko neurriak hartu.
- 3.7.10 Etxeetako basura ontziak egokitzeko programa.
- 3.7.11. etxeko olioaren bilketaren ordutegia eta sistema beharretara egokitu. *Olio bilketako edukiontzi bereziak ezartzeko aukera aztertu.*

4.LERROA: HIRIKO MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN ASE

- 4.3.4. Bidegorri sarea eraiki, lotura eta ibilbide praktikoak planteatuz, eta txirringentzako aparkalekuak ipini (Itsas etxetik hondartzara...).
- 4.4.2. Aparkaleku *publiko* berriak eraiki
- 4.6.1. Herriko Mugikortasun Plana diseinatu

5.LERROA: HERRITARREKIKO KOMUNIKAZIOA, HERRITARREN SENTIKORTZE ETA PARTE HARTZEA HOBETU

- ez da lehentasunik markatu (talde batean)
- 5.1.3.Udaletxeko komunikazioa koordinatuko duen arduradun bat izendatu (talde batean)
- 5.2.2. Herritar parte-hartzeari jarraipena eman (bi taldetan)
- 5.1.2. Udalaren web orriaren funtzionaltasuna hobetu, zerbitzu eskaintza handituz eta hobetuz. (talde batean)
- 5.3.1.Iraunkortasunarekin zerikusia duten gaiei buruz kontzientziazio kanpainak gauzatu eta formazioa eskaini (talde batean)
- PROPOSAMEN BERRIA: *Udaleko organo guztietan (informazio konfidentziala den batzordeetan izan ezik) herritar soilen parte-hartzea baimendu.* (talde batean)

6.LERROA: BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA BABESTU ETA UDALERRIKO GUNE ETA ELEMENTU ESANGURATSUAK EZAGUTARAZI

- 6.1.2. Herriko gune baliotsuak identifikatzeko azterketa bat burutu, baldintza egokietan mantendu eta erabilerarako aukerak aztertu.
- 6.3.1Udalerriko ondare historiko, etnografikoa eta arkitektonikoa ezagutarazten jarraitu.

2005eko azaroak 28an Orion ospatu zen Herritar Foroaren ondoren, Orioko Udaleko arduradun politikoak 2005eko abenduaren 21ean bildu ziren Herritar Foroaren proposamenak aztertzeko.

Herritar Foroan hainbat ekintza berri proposatu ziren, guztiak aztertu ondoren Tokiko Iraunkortasunerako Ekintza Planean sartuko ez direnak aipatzen dira hemen, ez sartzeko arrazoiak argituz.

PROPOSAMENA	EZ SARTZEKO ARRAZOIAK
<i>“Orio 8.000-10.000 biztanlera iristen denean azterketa sozioekonomikoa egin. Tokiko Agenda 21eko prozesua amaitu arte, Orioko Planeamenduko AASSen berrikuspen prozesua eten.</i>	AASSen arabera Orioko hazkuntza ez da 6.000 biztanle baino gehiagokoa izango momentu honetatik 2010 urte bitartean, beraz ez du zentzurik 8.000 eta 10.000 biztanleko hazkuntza hori planteatzea.
<i>Etxebizitza beharra asetzeko azterketa bat egin (zenbat, zein motatakoak...).</i>	Ekintza Planean badago ekintza bat “Udala eta gazteen artean elkarriketak mantendu hauen etxebizitza beharrak ezagutu eta kudeatzeko”, elkarriketa hauek burutzen direnean ikusiko da planteaturiko azterketa benetan beharrezkoa den edo ez.
<i>Herriaren hazkuntza ikusirik kontutan hartu beharko litzateke osasun beharrak handitu direla. Zerbitzuen aurreikuspena herriaren hazkuntzarekin koordinatu beharra dago.</i>	Zerbitzuen inguruko beharretan bi atal ikusten dira: 1. Gazteei zuzenduriko ekipamenduen beharra lantzen ari den Gazte Planean aztertzen ari dela 2. Osasun zerbitzuen inguruan ikusten da laster Zarautzen eskualderako osasun zentroa egongo dela, bestetik anbulatorioak badu hazteko ahalmena beharrezko balitz, eta gainera osasun zerbitzuak ez dira Udalaren eskumena
<i>4.3.1. Oinezkoentzako bidea egokitu Txanka eta Anibarko Portua lotuz. Ekintza egokitzea proposatzen da: “Txanka eta Anibarko Portua lotzeko bideak aztertu”</i>	Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanak izan dira, baina errepide nazionala denez biderik ezin da egin
<i>Udaleko organo guztietan (informazio konfidentziala den batzordeetan izan ezik) herritar soilen parte-hartzea baimendu.</i>	Batzordeetan jorratzen diren gaiak interesatu zehatzak dituztenean parte hartzea gonbidatzen zaie, bestela ere, eskaria eginez parte hartu ahal da.

Herritar Foroan eginiko komentario edo iradokizunak zerrenda honetan agertzen ez badira kontutan hartu izan direlako da.

Bestetik Herritar Foroan markatu ziren lehentasunekin Udala ados dago, hala ere, zehaztu beharra dago nahiz eta lehentasunezko ekintza moduan markatu bere exekuzioa aurrekontu eta diru laguntzen menpe egongo direla beti ere.

2. ERANSKINA: HERRITARREN PARTE HARTZE FOROAREN ARAUDI EREDUA

ORIOKO IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO HERRITARREN PARTE-HARTZE FOROA

ATARIKO IDAZPURUA

1.artikulua.- Eraketa

Tokiko Administrazioen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduak xedatutakoaren eta Udalbatzak xx-ko xx-an Europako Hiri eta Herrien Iraunkortasunerako Gutuna (Aalborgeko Gutuna) onestearekin hartutako konpromisoaren babespean, Orioko Udalean **ORIOKO Iraunkortasunerako Herritarren Parte-hartze Foroa** eratu da, kontsultarako izaeraduna.

2.artikulua.- Definizioa

ORIOKO Iraunkortasunerako Herritarren Parte-Hartze Foroa elkarte eta herritar taldeengana zuzendutako kontsultarako izaera duen organoa da, zeina era berean eztabaidarako gune izango den, tokiko iraunkortasuneko gaiekin lotuta (ekonomikoak, gizarte arlokoak eta ingurumenekoak).

Foroaren helburua herriko bizi kalitatea hobetzeko ekintzak sustatu, aditzera eman edo bultzatzea da, beronen kide herritar elkargoak, enpresak, alderdi politikoak, sindikatuak, hezkuntza zentroak, Udal Batzordea (iraunkortasunekoak), udalaz gaindiko organo eta elkargoak eta herritarrak oro har izanik, herriaren interesak ordezkatzuz.

3.artikukua Jarduketa eremua

ORIOKO Iraunkortasunerako Herritarren Parte-hartze Foroaren jarduera esparrua tokiko iraunkortasunarekin lotura duten gaiak lantzean datza, Tokiko Agenda 21 prozesuak ezarritako kudeaketa sistema jarraituz.

4.artikulua Eginkizunen izaera

ORIOKO Iraunkortasunerako Herritarren Parte-hartze Foroak informazioa eman edo proposamenak egingo ditu, izaera loteslerik gabe beti ere.

Foroak, iraunkortasuneko udal batzordeko ordezkariaren bidez, iraunkortasun gaien inguruko akordio lotesleak hartzea proposatuko dio Udal Gobernu Batzordeari.

5 artikulua. Eginkizunak

Foroak eginkizun hauek izango ditu:

1. Izaera orokorrekoak:

- a) Udalarekin batera Tokiko Agenda 21 prozesuan lan egin modu koordinatu eta paraleloan.
- b) Foroaren jarduera eremuarekin loturiko araudi jarduketa edo bestelakoen arduradun politikoek bidalitako informazioa jaso.
- c) Iraunkortasunarekin erlazionaturiko gai edo proiektuei dagokienean Udaleko Gobernu arduradunek iraunkortasun arloko gaiei edo egitasmoei buruz eskatutako txostenak eta proposamenak burutu.
- d) Ekonomia, gizartea eta ingurumen arloan udalaren jarduna hobetuko duten neurriak edo jarduerak proposatu.
- e) Ekonomia, gizartea eta ingurumen arloan sortutako kexak, erreklamazioak eta kezkak aurkeztu.
- f) Dagokion jarduera esparruan ekimen publiko eta pribatuen arteko koordinazioa bultzatu.

2. Izaera zehatzekoak:

- a) Udalerriaren ekonomia, gizartea eta ingurugiro kalitateari buruzko diagnostikoa ezagutu eta horren lorpenean parte hartu. Udalerriak, iraunkortasunari dagokionez, dituen lehentasunezko arazoak zeintzuk diren zehazten lagundu.
- b) Agenda 21en ezarpena proposatu, bultzatu eta lan honetan parte hartu, beronen iraunkortasun politika diagnostikatu eta antolatzeke partaidetza metodo orokorraren ikuspuntutik.
- c) Ingurugiroari buruzko informazioa eman eta biztanleria sentikortzeko kanpainak eta ekitaldiak proposatu eta bultzatu.
- d) Habitat naturalak zaindu, hobetu eta berreskuratzeko Plan eta Egitasmoak buru daitezen proposatu.
- e) Hondakinak bereiztuta bildu eta birziklatu eta berauen ekoizpena murrizteko politikak sustatu.

- f) Obra eta hirigintza proiektuak ingurunera egokitzeko beharrezko neurriak sustatu. Horretarako, obra edo proiektu hauek eragin lezaketen ingurumen eragina murrizteko proposamenak burutuko dira, arloa eskudunari helaraziz.
- g) Iraunkortasun irizpideak proposatu Udalaren jarduera zein herritarren jarduerari begira.
- h) Eraikinen eraikuntzan irizpide bioklimatikoak kontutan har daitezen sustatu.
- i) Energia berriztagarriak ezarri eta erabiltzeko programak sustatu.
- j) Enpresetan ekoizpen garbiko programen ezarpena sustatu.
- k) Ingurumen arloko udal araudiaren gauzapena sustatu eta prozesu honetan parte hartu.
- l) Lanpostuak sortzea xede duten Plan eta Egitasmoen gauzatzea proposatu, sektore kritikoenei zuzenduta batik bat -emakumezkoak eta prestakuntza eskasa duten sektoreak-.
- m) Aisialdirako azpiegiturak eta ekipamenduak hobetu eta hedatzeko Plan eta Proiektuak gauzatzea proposatu.
- n) Ondare historiko eta artistikoa babesteko ekintzak bultzatu.
- o) Herriko mugikortasun eta irisgarritasun baldintzak hobetzera zuzendutako Plan eta Proiektuak gauzatu daitezen proposatu.

6.artikulua. Fororako Asistentzia

Foroan parte hartzeko interesa dutenek ORIOKO Udalean aurkituko duten parte-hartze eskaera inprimakia bete beharko dute.

I IDAZPURUA

KONTSEILUKO ORGANOEZ

7. artikulua. Osaketa

Foroak ondoko organoak hartuko ditu bere baitan:

- a) Foroaren Osoko Batzarra
- b) Lehendakaritza
- c) Idazkaritza

d) Lan batzordeak

8. artikulua. Foroaren Osoko Batzarra

Foroaren Osoko Batzarra ondokoek osatuko dute:

- a) Iraunkortasunerako Udal Batzordea
- b) Udalez gaindiko erakunde eta elkarteak
- c) Udal elkarteak
- d) Enpresak
- e) Alderdi politikoak
- f) Sindikatuak
- g) Hezkuntza zentroak
- h) Herritarrak

9. artikulua. Foroaren Osoko Batzarreko kideen eskuduntzak.

Foroaren Osoko Batzarreko kideen ahalmenak ondokoak izango dira:

- a) Lan saioetako eztabaidetan parte hartu beren iritzia emanez.
- b) Boto-eskubidea.
- c) Lehendakaria eta lehendakariordea aukeratu.
- d) Bileretan galdera eta eskaerak burutu.
- e) Gai zerrendako gaiak argitzen lagunduko duten aurrekariak, argibideak eta agiriak eskatu, Kontseiluko idazkariaren bitartez.
- f) Lehendakariak eguneko gai zerrendan sar ditzan proposamenak eta mozioak idatziz planteatu.
- g) Batzarkide izateari berez dagozkien gainerako zeregin oro.

Foroaren Osoko Batzarra osatzen duten taldeen ordezkariak taldeko beste kideren baten esku laga dezake berauen ordezkapena, baina ez norberaren izenean parte hartzen

dutenek.

10. artikulua. Lehendakaria.

Foroko kideetako batek Lehendakari kargua izango du.

Foroaren Osoko Batzarrak aukeratuko du Lehendakaria eta karguak 2 urteko iraupena izango du; epe honen amaieran lehendakari berria aukeratuko da.

Udal ordezkariak ez dute Lehendakari izateko aukerarik izango.

11. artikulua. Lehendakariaren betebeharrak

Lehendakariaren betebeharrak ondokoak dira:

- a) Foroaren ordezkari izan.
- b) Ohiko Bilkurak eta Apartekoak deitu eta eguneko gai-zerrenda zehaztu; gainontzeko kideek egindako eskaerak kontutan edukiko ditu, beti ere aurrerapen nahikoarekin (gutxienez saioa burutzeko data baino 7 egun lehenago) burutu baldin badira.
- c) Bilkuren buru izan, eztabaidak moderatu eta bidezko arrazoiengatik bilkurak eten.
- d) Berdinketa kasuetan bere botoaren bidez berdinketa deuseztatu.
- e) Foroan adostutako ekimen eta proposamenen berri eman.
- f) Lehendakari izateari berez dagozkion gainerako zeregin oro.

Gaixotasun, hutsegite edo beste arrazoi legalen bat dela medio Lehendakariak ezin badu bileran parte hartu Iraunkortasun Udal Kontseiluko beste kide batek ordezkatzeko du (Lehendakariordea).

12. artikulua. Idazkaria

Idazkari kargua beteko duenak, hitzarekin baina botorik gabe, udal teknikari edo lagatzen duen pertsonaren esku egongo da.

13. artikulua .Idazkariaren betebeharrak

Idazkariari dagokio:

- a) Bilkuretara joan, hitzarekin baina botorik gabe.

- b) Lehendakariak aginduta Foroaren bilkuretarako deialdiak burutu, Foroko kideei deia eginez.
- c) Foroko kideen komunikazio ekintzak, eta beraz, notifikazioak, datu eskariak, zuzenketak edo kontutan eduki beharreko beste edozein motako idatzi jaso.
- d) Foroaren helburu eta beharrei dagokion informazioa bildu.
- e) Gaiak prestatu, idatzi eta bilkuretako aktak eskuetsi.
- f) Kontsulta, irizpen eta onartutako akordioen ziurtagiriak egin.
- g) Akten artxibo bat mantendu, dagokion direktorioan sartuko direla ziurtatu, eta informazio kontseiluari dagozkion kopiak bidali epe jakinean.
- h) Idazkari izateari berez dagozkion gainerako zeregin oro.

14. Artikulua. Lan batzordeak

- a) Iraunkortasunarekin edota Agenda 21eko Gaikako Alorrekin loturiko gai puntualei berariazko tratamendua eman behar zaienean eratu ahal izango dira Lan Batzordeak; baita Foroaren Osoko Batzarrak beharrezkotzat jotzen duenean ere.
- b) Lan Batzordeen osaketa, izendapena eta funtzionamendua Foroaren Osoko Batzarrak zehaztuko ditu.
- c) Lehendakariak, beharrezkotzat edo bidezkotzat jotzen duen laguntza teknikoa eska dezake.
- d) Lan Batzordeek, landutako gaien berri emango diote Foroko Osoko Batzarrari.

15. Artikulua. Foroaren dinamizazioa

Saioak, Foroaz kanpoko eragile edo dinamizatzaile batek moderatuko ditu, beronen eginkizunak honakoak izango direlarik: gai zerrendan aurreikusi ez diren gaiak tratatzea ekidin, saioak moderatu eta denbora alperrik gal ez dadin debatea aberasten ez duten eztabaidak ekidin.

16. Artikulua. Plaza hutsak.

Uko egite, gaixotasun, heriotza, hutsegite, kargu-uzte, etab.-en ondorioz sorturiko plaza hutsen berri Foroaren Osoko Bilkurari berehala emango zaio, beharrezko neurriak har

daitezen.

17. Artikulua. Kide berrien gehitzea.

Forora kide berrien gehitzea 6. artikuluan aurreikusitako eskabide inprimakia beteaz (eskuragarria Orioko Udaleko.....Sailean) burutuko da. Honekin batera, gehitze berriaren arrazoiak zehazten dituen azalpen dokumentua aurkeztuko da. Inplikaturako gizarte eragile, elkarte, enpresa, hezkuntza zentro etab.-ek lehentasuna izango dute.

Eskaera berrien onarpenak Foroko Osoko Bilkuraren hurrengo bileran burutuko dira.

II IDAZPURUA

ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAZ

18. Artikulua. Deialdia

Foroaren deialdia Lehendakariak burutuko du, landu beharreko gaiak Gai Zerrendan zehaztuz.

Foroko Gai Zerrenda gutxienez bilera burutu baino bost egun natural lehenago jasoko dute kide guztiek.

19. Artikulua. Ohiko Bilkurak

Foroaren Ohiko Bilkurak bi hilabete behin burutuko dira.

20. Artikulua. Aparteko Bilkurak.

Foroaren Lehendakariak bere ekimenez beharrezkotzat joko balu edo Foroko edozein kidek proposatu eta Foroko kideen herenak (1/3) bultzatuta, Foroaren Aparteko Bilkura burutuko da.

21. Artikulua. Bileren publikotasuna

Saioaren deialdian Lehendakariak hala zehaztu ezean, hau ez da publikoa izango eta bileretara deituak izan diren Foroko kideek bakarrik parte hartu ahal izango dute. Lehendakariak, saio zehatzetara bertan tratatu beharreko gaiekin erlazionaturiko pertsonak edo interes publikodun helburuak jarraitzen dituzten elkarteak gonbida ditzake. Hauek guztiek hitza izango dute baina ez botorik. Gonbidapena idatziz eta saioaren deialdia baino lehen burutuko da, Gai Zerrendan partaideon berri emango delarik.

22. Artikulua. Quoruma.

Organoaren baliozko osaketarako, saioak eta eztabaidak burutu eta erabakiak hartzeari dagokionean, kideen erdiaren presentzia beharrezkoa izango da; kideon artean Lehendakaria edo beronen ordezkoa (Lehendakari Ordea edo Udal Iraunkortasun Batzordeko Ordezkaria) izatea derrigorrezkoa izango da.

23. Artikulua. Gai zerrendan jasotzen ez diren gaien tratamendua

Gai zerrendan jasotzen ez diren gaien inguruko eztabaida edo akordiorik ezin izango da burutu, ondoko baldintzak bete ezean:

1. Bilerara kideen erdia gehi bat bertaratu dira eta,
2. Gehiengo soilez bertaratutakoek gaia tratatzea premiazkotzat jo dute.

Bi baldintzok beteko ez balira gaia hurrengo bileran landu beharko da.

24. Artikulua. Erabakiak hartzea.

Erabakiak bertaratutakoen gehiengo soilez hartuko dira. Foroko edozein kidek hala eskatuko balu botoa isilpekoa izango da

25. Artikulua. Akta

Idazkariak Foroaren saio bakoitzeko akta jasoko du, bertan nahitaez ondokoak zehaztuko direlarik: bertaratutakoak, bileraren gai zerrenda, lekua eta iraupena, eta harturiko erabakien berri.

Foroko kideen eskakizunei jarraituz, Foroko Aktan hartutako akordioen inguruko aurkako botoen, abstentzioen edo aldeko bozka ematearen arrazoiak inguruko berri jasoko da. Era berean, edozein kidek bere interbentzio edo proposamenen transkripzio osoa aktan barnera dadin eska dezake, baldin eta momentuan edo Lehendakariak ezartzen duen epearen baitan bere azalpenak fidelki jasotzen dituen testua aurkezten badu; testu hau aktan jasoko da edo beronen kopia atxikiko zaio aktari.

26. Artikulua. Akten onarpena.

Aktak Foroaren hurrengo saioan kideen gehiengo soilez onartuko dira. Aktak kide guztiei banatuko zaizkie hurrengo saioaren deialdia eta gai-zerrendarekin batera.

27. Artikulua. Akten artxiboa.

Aktak, euren onarpenaren ondoren, Foroaren akten artxiboan gorde daitezzen ziurtatuko du idazkariak. Era berean, akten informatika Direktorioan barnera daitezzen ziurtatuko du.

28. Artikulua. Foroaren Estatutu Erregulatzailleen aldaketa

Foroaren Lehendakariak bere ekimenez edo edozein kidek proposatu eta Foroko kideen herenak (1/3) proposamen hau bultzatuko balu, Estatutu hauek berrikusi egingo dira.

Estatutuen berrikuspenaren ondorioz egindako aldaketak Osoko Bilkuran onartuko dira.

3. ERANSKINA: ADIERAZLEAK KALKULATZEKO FITXAK

1. Adierazlea	
EREMU PUBLIKO IREKIEN ETA ZERBITZUEN ERABILGARRITASUNA UDALERRIAN	
Definizioa	Eremu publiko irekietatik (5.000 m2 baino gehiago dituztenak eta edozein neurritakoak) eta oinarrizko zerbitzuetatik 300 metrora edo gutxiagora bizi den udalerriko (herrigunea eta nekazaritza-auzoetako eremu finkatuak) biztanleriaren ehunekoa ebaluatzen du. Modu osagarrian, adierazle hau 150 eta 500 metro bitarteko distantzietarako kalkuluak egiteko erabil daiteke Adierazle honekin egingo diren kalkuluetarako, eremu publiko irekitzat ondokoak hartuko dira: • Oinezkoek eta txirrindulariek erabiltzeko parke publikoak, lorategiak edo eremu irekiak. Zirkulatzeko guneak edo banaketa-lerro berdeak eta hilerriak ez dira kontuan hartuko, tokian tokiko agintariek horien aisialdirako funtzioa edo natur izaera ezartzen ez badute behinik behin, edo horien garrantzi historikoa edo kulturala ezartzen ez badute. • Dohain erabiltzeko aire zabaleko kirol-instalazioak • Ia urte osoan jendeak dohain erabil ditzakeen jabetza pribatuko eremuak: parke pribatuak eta aisialdirako eta aire zabaleko jarduerak egiteko nekazaritzarako lurrak (esate baterako, baserri-eskolak). Kontuan hartu beharreko zerbitzuak hauek dira: • Lehen mailako osasun-laguntza publikoa (medikuntza orokorreko medikua, familia-medikua, farmaziak, ospitaleak, lehen mailako arreta-zentroak edo beste edozein osasun-zentro publiko). • Gutxieneko maiztasunarekin (ordu-erdi) ibiltzen diren garraio publikoko lineak, hiriko autobusaren eta taxien geltokiak bereiziz • Ikastetxe publikoak (derrigorrezko irakaskuntzako zentro publikoak eta haurtzaindegia publikoak). • Janari-dendak, elikagaiak saltzeko guneak eta okindegiak. • Birziklatzeko zerbitzuak edo instalazioak: gaikako bilketarako edukiontziak, garbiguneak, puntu berdeak • Finantza-erakundeak • Kirol-eremuak. • Kultur eremuak: kultur etxeak, liburutegiak, gizarte-etxeak, museoak,

1. Adierazlea			
EREMU PUBLIKO IREKIEN ETA ZERBITZUEN ERABILGARRITASUNA UDALERRIAN			
	erakusketa-aretoak, antzokiak, zinema-aretoak etab		
Unitateak	%		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	IHOBek lau urtean behin egiten duen galdeketaren bidez datuak lortzea (udal-ekobarometroa).		
Lortu nahi den joera	Handitu		
Europarra	Bai		
Oharrak	Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da.		

2. Adierazlea			
LURZORUAREN ERABILERA IRAUNKORRA			
Definizioa	lurzoruaren erabileran iraunkortasun-mailari buruzko ikuspegi integratua eskaintzen duten alderdiak biltzen ditu. Aztertutako faktoreek hauek barne hartzen dituzte: 1. Artifizializatutako lurzorua: artifizializatutako lurzorua ehunekoa udalerriaren azalera osoarekiko (%). Aurreikusitako hazkundea ere ondoan adieraz daiteke (lurzoru urbanizagarria). 2. Utzitako lurrak eta poluituta egon daitezkeenak: utzitako lurraren azalera (m²) eta poluituta egon daitekeena (m²). 3. Lurzoruaren erabileraren intentsitatea: - Biztanle-kopurua artifizializatutako lurzorua km²-ko - Etxebizitzetarako hiri-lurzoruko biztanle-kopurua - etxebizitzetarako hiri-lurzoruaren km²-ko 4. Garapen berria: eraikuntza berrien banaketa hauen artean: - Erabili gabeko lurzorua (%): lehenago eraikitzeke erabili ez diren lurrak (normalean birkalifikatutako lurzoru landatarra). - Utzita eta poluituta zeuden lurzoruaren berreskurapena (%). - Gainerako lurzoruak (%). 5. Hiriko azalaren berriztapena(*): - Eraikinak erabat edo partzialki zaharberritzea (azalera osoaren m²-ak eta kopuru osoa), fatxada berritu zaien eraikin-kopurua barne). - Utzitako lurzoruak berreskuratzea (orubearen azalaren m²-ak eta kopuru osoa) hiriko erabilera berrietarako (berdeguneak barne). - Poluitutako lurzoruak berreskuratzea (m² eta kopuru osoa). 6. Babestutako azalera udalerriko azalera osoarekiko (%).		
Unitateak	1, 4 eta 6: % 2 eta 5: m² 3: bizt / Km²		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Kalkulatzeko beharrezko aldagaiak eta iturriak hauek dira: Artifizializatutako lurzorua: izaera naturala galdu duen lurzoru osoa (lurzoru hiritarra, industriak, errepideak, etab.). Hirigintza edo		

2. Adierazlea	
LURZORUAREN ERABILERA IRAUNKORRA	
	fotointerpretazioko zinegotzigoa (GIS). Udalerriaren azalera osoa: udalerriaren administrazioaren kontrolpean dagoena. EUSTAT edo Hirigintzako zinegotzigoa. Utzitako lurzoruak: erabilera produktiborik ez duen artifizializatutako lurzoru (etxebizitzak, industriak edo zerbitzuak). Hirigintzako zinegotzigoa. Poluituta egon daitezkeen lurzoruak: IHOBE (Poluituta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioa). Biztanleak: udal-errola. Etxebizitzetarako hiri-lurzorua: Hirigintzako zinegotzigoa. Etxebizitzetarako hiri-lurzoruko biztanleak: Hirigintzako zinegotzigoa. Erabili gabeko lurzoruko eraikuntza berriak (CORINE Land Cover-en kategoria guztiak, "artificial surfaces" izan ezik). Hirigintzako zinegotzigoa. Eraikuntza berriak gainerako lurzoruetan. Hirigintzako zinegotzigoa. Eraikinen zaharberritzea: zaharberritutako eraikinen (fatxada barne) azalera osoa (solairu guztien azaleraren batura) eta kopurua. Hirigintzako zinegotzigoa. Utzitako lurzoruak erabilera berrietarako berreskuratzea: utzitako lurzoru artifizializatuaren azalera utzita zegoen lurzoru berreskuratutako azalera eta berreskuratutako gune-kopuru. Hirigintzako zinegotzigoa. Poluitutako lurzoruak berreskuratzea: IHOBE. Babestutako azalera: landaredia edo paisaia babestuta duten inguruak, etorkizuneko garapena mugatuta dutenak. Hirigintzako zinegotzigoa.
Lortu nahi den joera	• 3.1,3.2, 4.2, 4.3, 5 eta 6: handitu • 1,2 eta 4.1: Txikiagotu
Europarra	Bai
Oharrak	Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da.

3. Adierazlea			
TOKIKO MUGIKORTASUNA ETA BIDAARIEN GARRAIOA			
Definizioa	Udalerriko herritarren mugikortasuna aztertzen du. Herritar bakoitzaren mugikortasun-eredu orokorra definitzeko alderdiak barne hartzen ditu: 1. Bizilagun bakoitzak egunero egiten duen desplazamendu-kopurua batez beste (desplazamendu-kopurua biztanleko). 2. Bizilagun bakoitzak batez beste egindako distantzia (km biztanleko). 3. Herritar bakoitzaren desplazamenduen batez besteko iraupena (minutuak biztanleko). 4. Desplazamenduaren arrazoia eta asteko erregularutasuna, desplazamenduak honela sailkatuz: sistematikoak edo ez-sistematikoak (bidaia sistematikoen % vs. bidaia ez-sistematikoen %). 5. Desplazamenduak egiteko erabilitako garraiobideak eta desplazamendu bakoitzean egindako distantziak (kontuan hartutako garraiobide bakoitzari dagokion %). Mugitzeko ondorengo moduak hartu dira kontuan:		
Unitateak	Despl/bizt: 1 Km/bizt: 2 Minutu/bizt:3 %: 4 eta 5		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	IHOBek lau urtean behin egiten duen galdeketaren bidez datuak lortzea (udal-ekobarometroa).		
Lortu nahi den joera	Txikiagotu: 1, 2, 3 eta desplazamendu pribatuak. Handitu: motorrik gabeko desplazamenduak eta desplazamendu kolektiboak		
Europarra	Bai		
Oharrak	Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da.		

4. Adierazlea			
GARRAIO-AZPIEGITURETAN ERABILITAKO UDAL-AZALERAREN BANAKETA			
Definizioa	Udalerrian garraiobideen azpiegiturretan erabilitako azaleraren banaketa (%) ebaluatzen du, garraiobide hori zein den kontuan hartuta: 1. Oinezkoek erabiltzeko azalera (erabilera ugariko kaleak, baina oinezkoek lehentasuna izango dutenak –alderantzizko lehentasuna– eta espaloiak). 2. Bizikletetarako egokitutako azalera (bizikletetarako bideak). 3. Garraio publiko kolektiboak erabiltzeko azalera (autobusen bideak edo trenbideak). 4. Motordun ibilgailuek erabiltzeko azalera (hiri barneko eta hiri arteko errepideak), garraio publiko kolektiboak erabiltzeko azalera alde batera utzita.		
Unitateak	%		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Adierazle hau kalkulatzeko hiru metodo erabil daitezke: 1. Udalerriko kartografia digitaleko sistemen bidez datuak lortzea (GIS). 2. Kategoría bakoitzak erabiltzeko azaleraren kalkulua udalerriko kartografia zehatza erabiliz. 3. Tokian tokiko lanen bidez datuak lortzea.		
Lortu nahi den joera	• 1, 2 eta 3: Handitu • 4: Txikitu		
Europarra	Ez		
Oharrak	Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da.		

5. Adierazlea			
UR-KONTSUMOA			
Definizioa	Udalerriko ur-kontsumoa hainbat ikuspuntutatik aztertzen du: 1. Uraren etxeko kontsumoa (litro/bizt./egun). 2. Udalerriko ur-eskaria (altako hornidura) guztira (m3/urte). 3. Ur-eskari osoaren banaketa sektoreka udalerrian (%). Ondoko sektoreak hartu dira kontuan: Etxekoa, zerbitzuak, industria, udalerria, nekazaritza. 4. Banaketa-sarean gertatzen diren galerak, ur-eskari osoaren ehuneko gisa (%).		
Unitateak	litr/bizt./egun: 1 m3/urte: 2, 4 %: 3		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Kalkulatzeko informazio-iturriak hauek dira: • Uraren etxeko kontsumoa (fakturatutako ur-bolumena): udalerriko ur-horniketaz arduratzen den enpresa. • Ur-eskaria guztira: udalerriko ur-horniketaz arduratzen den enpresa (ur-hartune pribatuak ere barne hartu behar dira, datu hori eskuragarri dagoen kasuetan behinik behin, bai eta nekazaritzaren sektoreko ur-eskaria ere). • Ur-eskariaren banaketa sektoreka: udalerriko ur-horniketaz arduratzen den enpresa, eta ureztatzaile-elkarteak nekazaritzaren sektorerako. • Biztanleak: udal-errola.		
Lortu nahi den joera	Txikiagotu		
Europarra	Ez		
Oharrak	Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da.		

6. Adierazlea			
ENERGIA-KONTSUMOA			
Definizioa	Udalerriko energia-kontsumoa (elektrizitatea eta gas naturala) aztertzen da, hainbat ikuspuntutatik: 1. Elektrizitatearen eta gas naturalaren etxeko kontsumoa (tpb/bizt./urte). 2. Udalerriko elektrizitatearen eta gas naturalaren kontsumoa guztira, energia-iturriaren arabera (tpb/urte). 3. Udalerriko energia-kontsumoaren banaketa sektoreka. Kontuan hartu beharreko sektoreak: Etxekoa, Zerbitzuak, Industria, Udalerria, Garraioa, Nekazaritza.		
Unitateak	tpb/bizt//urte: 1 tpb/urte: 2 %: 3		
Balioa		Urtea	
Informazio iturriak	Kalkulatzeko informazio-iturriak hauek dira: Gas naturalaren, eta elektrizitatearen kontsumoa: enpresa hornitzaileei sektoreen arabera izan den kontsumoaz galde dakieke. Biztanleak: udal-errola		
Lortu nahi den joera	Txikiagotu		
Europarra	Ez		
Oharrak	Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da.		

7. Adierazlea			
HONDAKINEN SORRERA ETA KUDEAKETA			
Definizioa	Sortutako hondakinen bolumena eta horien kudeaketa aztertzen da. Kontuan hartuko diren aldagai nagusiak hauek dira: 1. Hiri-hondakinen sorrera, biztanleko eta eguneko (kg/bizt./egun). 2. Hiri-hondakinen kudeaketa: balorizazioa (birziklatzea –gaikako bilketa eta errausketa– edo zabortegia (%)). 3. Hondakin arriskutsuen sorrera (tona/urte). 4. Hondakin arriskutsuen kudeaketa: balorizatzea eta ezabatzea (%).		
Unitateak	Kg/bizt./egun:1 %: 2 eta 4 tona/urte: 3		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Kalkulatzeko informazio-iturriak hauek dira: Hiri-hondakinen sorrerari eta kudeaketari buruzko datuak: Hiri-hondakinen bilketari (ohikoa, gaikakoa eta puntu berdeak) eta kudeaketari buruzko datuak eskatzea Mankomunitateei (Gipuzkoa), Koadrilei (Araba) eta Garbikerri (Bizkaia) . Gerta daiteke datuak ez agertzea udalerrien arabera bereizita; hala bada, biztanle bakoitzeko batezbestekoa aterako da. Hondakin arriskutsuen sorrerari eta kudeaketari buruzko datuak: Eusko Jaurlaritzari (Ingurumen Sailburuordetza) eskatzea udalerrian dauden eta Hondakin Arriskutsuen Sortzailetzat sailkatu diren industriek adierazitako Hondakin Arriskutsuen kopurua. Biztanleak: Udal-errola.		
Lortu nahi den joera	Txikiagotu: 1, 3, zabortegia eta ezabatzea. Handitu: balorazioa		
Europarra	Ez		
Oharrak	Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da.		

8. Adierazlea			
HONDAKINAK URETARA ISURTZEA			
Definizioa	Uraren kalitatea aztertzen da, bi ikuspegi hauetatik: 1. Ibaien kalitatea (BMWP' Indizea) eta, dagokionean, kostaldeko uraren eta estuarioetakoaren kalitatea (koefiziente biotikoa). 2. Hondakin-urak tratatzeko sistemak dituzten udalerriko etxebizitzak (%). 2.1. Hondakin-uren saneamendu-sarearekin konektatuta dauden udalerriko etxebizitzak (%). 2.2. Hondakin-uren saneamendu-sarearekin konektatuta ez dauden udalerriko etxebizitzak, baina ura tratatzeko sistema egokiak dituztenak (%)		
Unitateak	BMWP' Indizea eta Koefiziente biotikoa: 1 %: 2		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Informazio-iturriak hauek dira: Ibaien kalitateari (BMWP' Indizea) eta estuarioetako eta kostaldeko urari (Koefiziente biotikoa) buruzko datuak: Eusko Jaurlaritzari (Ingurumen Sailburuordetzari) eskatuko zaio udalerritik gertuko estazioei dagokien informazioa. Batzuetan, Foru Aldundiek ere izan dezakete horrelako informazioa. Hondakin-uren saneamendu-sarearekin lotuta dauden udalerriko etxebizitzei buruzko datuak. Udalerriko etxebizitzak. Hirigintzako zinegotzigoa		
Lortu nahi den joera	Hobetu: 1. Handitu: 2.		
Europarra	Ez		
Oharrak	Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da.		

9. Adierazlea			
INGURUMEN-KUDEAKETAKO SISTEMAK UDALERRIAN			
Definizioa	Udalerriko jardueretan ingurumen-kudeaketako sistemak (ISO 14001, EMAS, Ekoscan, Jasangarritasun Txostenak) duten ezarpen-maila aztertzen da. Arlo hauek hartuko dira kontuan: 1. Enpresa handiak eta ertainak. 2. Herri-erakundeak (Udala eta herri-elkarte eta -erakundeak). 3. GKEak.		
Unitateak	%		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Kalkulatzeko informazio-iturriak hauek dira: Ingurumen-kudeaketako sistemak dituzten enpresa handiak eta ertainak: IHOBE. Ingurumen-kudeaketako sistemak dituzten herri-erakundeak: Udala, IHOBE. Ingurumen-kudeaketako sistemak dituzten GKEak: Udala, IHOBE. Enpresa handi eta ertainen, herri-erakundeen eta GKEen kopurua: Udala.		
Lortu nahi den joera	Handitu		
Europarra	Bai		
Oharrak	Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da.		

10. Adierazlea			
POBREZIA ETA GIZARTE-BAZTERKETA			
Definizioa	Oinarrizko Errentaren prestazioa jasotzen duten udalerriko familien ehunekoa		
Unitateak	%		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Kalkulatzeko informazio-iturriak hauek dira: Oinarrizko Errentaren prestazioa jasotzen duten familien kopurua: Udaleko Gizarte Zerbitzuen saila. Familia-unitateen kopurua: Udala, EUSTAT.		
Lortu nahi den joera	Txikiagotu		
Europarra	Ez		
Oharrak	Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da.		

11. Adierazlea			
LANGABEZIA-TASA			
Definizioa	Biztanleria aktiboaren barnean dauden langabeen ehunekoa aztertzen du		
Unitateak	%		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Adierazle hau kalkulatzeko informazio-iturriak hauek dira: Langabezia-tasa: EGAILAN edo EUSTAT		
Lortu nahi den joera	Txikiagotu		
Europarra	Ez		
Oharrak	Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da.		

12. Adierazlea			
HERRITARREK UDAL-KOMUNITATEAREKIN DUTEN GOGOBEKETZE-MAILA			
Definizioa	Herritarrek beren ustez duten ongizate-maila aztertzen da. Horretarako, oro har, komunitateari eta, zehazki, beste alderdi zehatz batzuei dagokienez duten gogobetetze-maila aztertzen du (oso gustura, nahiko gustura, ez oso gustura, batere gustura ez, ez daki edo ez du erantzun). Hau da, herritarrek honako arlo hauekin gustura dauden aztertzen du: 1. Udalerria, bizitzeko eta lan egiteko toki den neurrian. 2. Etxebizitzaren kalitatea, erabilgarritasuna eta eskuragarritasuna. 3. Bertako lan-aukerak. 4. Natur ingurunearen kalitatea eta kopurua (berdeguneak, ibaiak, etab.). 5. Eraikitako ingurunearen kalitatea (kaleak, espazio publikoak, eraikinen egoera, etab.). 6. Gizarte- eta osasun-zerbitzuen maila. 7. Kultur eta aisialdiko zerbitzuen maila. 8. Ikastetxeen kalitatea. 9. Herri-garraioko zerbitzuen maila. 10. Udal-plangintza egiteko eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukerak. 11. Herritarren segurtasun-maila.		
Unitateak	% eta batez besteko balioa		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	IHOBek lau urtean behin egiten duen galdeketaren bidez datuak lortzea (udal-ekobarometroa).		
Lortu nahi den joera	Handitu		
Europarra	Bai		
Oharrak	Adierazle hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eginiko, betiere nazioarteko adierazleetan oinarriturik, eta EAEko udal guztientzat komunak diren iraunkortasunerako 12 adierazle sistemako bat da.		

Adierazle berezia 1			
HIRIKO AIREAREN KALITATEA			
Definizioa	Kalitate oneko airea erregistratzen den egun kopurua		
Unitateak	Egun kopurua		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	EAE-ko Airearen kalitatea neurtzeko sareko estazioetako informazioa eskatzea Eusko Jaurlaritzari.		
Lortu nahi den joera	Handitu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 2			
INGURUMEN-HEZIKETA			
Definizioa	Udalerrian garatutako ingurumen-heziketarako jardueren kopurua eta horietan parte hartzea		
Unitateak	Jarduera kopurua/ parte-hartzaile kopurua		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Udaleko Ingurumen Saila		
Lortu nahi den joera	Handitu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 3			
ENERGIAREN ERAGINKORTASUNA ETXEBIZITZETAN			
Definizioa	Energiaren eraginkortasunari buruzko ziurtagiriak dituzten etxebizitzak/eraikinen kopurua		
Unitateak	Etxebizitza kopurua		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	EVE/CADEM kontsultatzea		
Lortu nahi den joera	Handitu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 4			
JASANGARRITASUNA SUSTATZEN DUTEN PRODUKTUEN KONTSUMOA			
Definizioa	Etiketa ekologikoa duten produktuen eta produktu biologikoen edo merkataritza-jarduera leialen (merkataritza justua) xede direnen kontsumo osoaren ehunekoa		
Unitateak	%		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria			
Lortu nahi den joera	Handitu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia5			
INGURUMENeko UDAL GASTUAK			
Definizioa	Ingurumeneko udal gastu-arrunten ehunekoa		
Unitateak	%		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Udal aurrekontuan Ingurumenari zuzendutako partidak zehaztea eta banaketa aurrekontu osoarekiko.		
Lortu nahi den joera	Handitu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 6			
AZTARNA EKOLOGIKOA			
Definizioa	Dibulgaziozko adierazlea, unitatetzat biztanleko hainbat hektarea erabiliz, erabilitako baliabideak ekoizteko eta biztanle-multzo zehatza batek sortutako hondakina bereganatzeko beharrezkoa den eta ekologikoki produktiboa den sailaren azalera (laboreak, belardiak, basoa keta uretako ekosistemak) aztertzen duena, biztanle talde horrek zehaztugabeko epean bizi maila zehatz bati eusteko moduan eta sail hori edonon egonik ere.		
Unitateak	Ha/bizt.		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Elaborazio propioa IHOBeko informaziotik abiatuta lortu		
Lortu nahi den joera	Txikiagotu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 7			
ZIRKULAZIOAREN INTENTSITATEA OINARRIZKO BIDE SAREAN			
Definizioa	Oinarrizko bide sareko puntu adierazgarrienetan erregistraturiko eguneko batez besteko intentsitateen batez besteko balioa		
Unitateak	Ibilgailu kopurua/egun		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Aldundiko Garraio eta Obra Publikoetako Sailari eskatzea (Urtez urteko txostena)		
Lortu nahi den joera	Txikiagotu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 8			
PARKE MUGIKORRA			
Definizioa	Ibilgailuen PARKEA KARROZERIA motaren arabera (automobilak, motozikleta, e.a.)		
Unitateak	Ibilgailu kopurua karrozeria motaren arabera		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Udalerriko ibilgailu kopurua Eustaten bidez lortua edo zirkulazio zergaren arabera.		
Lortu nahi den joera	Txikiagotu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 10.			
HIRIKO ZARATA			
Definizioa	Osasunerako Mundu Erakundeak aholkatutakoaz gaindiko soinu maila jasaten duten biztanleen ehunekoa		
Unitateak	%		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Udal zerbitzuak eta airearen kalitateari buruzko ikerketak		
Lortu nahi den joera	Txikiagotu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 10.			
LANDUTAKO ETA BOTATAKO BASOEN AZALERA			
Definizioa	Landutako baso azaleraren (bertako espezieak) eta zuhaitzak botata dituen azaleraren arteko ratioa. Hobe litzateke ratio horiz uhaitz kopuruaren bidez adieraztea		
Unitateak	Landutako azalera/Zuhaitzak bota diren azalera		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Nekazaritza Saila		
Lortu nahi den joera	Handitu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 11.			
ARAZTUTAKO UREN ERABILERA			
Definizioa	Berrio erabiltzen diren araztutako uren ehunekoa		
Unitateak	%		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria			
Lortu nahi den joera	Handitu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 12			
ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ERABILERA			
Definizioa	Energia berriztagarren kontsumoa (edo produkzioa) guztira		
Unitateak	Tep		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Udala edo EVE		
Lortu nahi den joera	Handitu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 13			
EUSKARAREN EZAGUTZA			
Definizioa	Euskaraz dakiten biztanleen ehunekoa		
Unitateak	%		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	EUSTATEko zentsurako inkesten bitartez /Udala		
Lortu nahi den joera	Handitu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 14			
GIZARTE POLITIKAKO UDAL GASTUAK			
Definizioa	Udalak gizarte politiketarako bideratutako gastu arrunten ehunekoa		
Unitateak	%		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Gizarte gaitara zuzendutako gastu arruntaren zenbatekoa eskatu Gai Sozialetarako zinegotzi Sailari eta herriko gastu arrunta Ekonomiako zinegotzi sailari		
Lortu nahi den joera	Handitu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 15			
NAZIOARTEKO ELKARTASUN JARDUERETAN UDALAK DUEN ESKU HARTZEA			
Definizioa	Udalak garapenerako nazioarteko lankidetzarako bideratutako gastu arrunten ehunekoa.		
Unitateak	%		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria			
Lortu nahi den joera	Handitu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 16			
BIZTANLERIAREN ZAHARTZE INDIZEA			
Definizioa	65 urte edo gehiago dituzten herritarren ehunekoa		
Unitateak	%		
Balioa		Urtea	
Kalkulatzeko metodoa	Udal Errolda		
Lortu nahi den joera	TXIKIAGOTU		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 17			
ETORKINEN INTEGRAZIOA			
Definizioa	Udalerrian erroldatuta dauden etorkinen kopurua		
Unitateak	Pertsona kopurua		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Udal errolda		
Lortu nahi den joera	Handitu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 18			
HERRITARREN PARTE-HARTZEA			
Definizioa	Herritarren parte-hartzea helburu duten udal organo egonkorren bileren kopurua, horietan aztertzen diren gaiak bereiziz (ingurumena, gizartea, e.a.)		
Unitateak	Bileren kopurua/urtean		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Herritarren parte-hartzea helburu duten organo egonkorren bileren aktak biltzea. Organo hauek herritar eta/edo udal eragile ezberdinen parte hartzea bultzatzeko sortuak, ingurumen gaik lantzen dituztenak, Udalak ofizialki onartutakoak eta organo egonkor bezala ikusiak direnak izango dira.		
Lortu nahi den joera	Handitu		
Europarra	Ez		
Oharrak			

Adierazle berezia 19			
HERRITARREN SEGURTASUNA			
Definizioa	Udalerrian 1000 biztanleko izaten diren delituen edo hutsegiteen kopurua		
Unitateak	Delituen eta hutsegiteen kopurua		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria			
Lortu nahi den joera	Txikiagotu		
Europarra			
Oharrak			

Adierazle berezia 20			
BIDE SEGURTASUNA			
Definizioa	1.000 ibilgailuko izaten diren istripuen kopurua		
Unitateak	Istripu kopurua		
Balioa		Urtea	
Informazio iturria	Udaltzaingoa eta Ertzaintza		
Lortu nahi den joera	Txikiagotu		
Europarra			
Oharrak			